

---

# **BABES-AGINDUA GENERO- INDARKERIAN: GAUR EGUNGO SISTEMA JUDIZIALAK BIKTIMAK BABESTEN DITU?**

---

**GrAL**

**Egilea: NAIA GAMBRA GARCIA**

**Zuzendaria: KATIXA ETXEBARRIA ESTANKONA**

**IKD i3 Laborategia Berrikuntza Proiektuak 2021/2022: «Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikuspegitik» (IKDi3 21-30)**

**ZUZENBIDE FAKULTATEA**

**2021-2022**

# AURKIBIDEA

|  |           |
|--|-----------|
| LABURDURAK .....   | 1         |
| SARRERA.....   | 2         |
| <b>I. BABES-AGINDUA GENERO-INDARKERIAN.....</b>  | <b>5</b>  |
| 1. Genero-indarkeriaren biktimen babes-aginduaren ibilbidea .....                                  | 5         |
| 2. Babes-aginduaren kontzeptuarako hurbilketa .....  | 6         |
| 2.1. Kontzeptua .....  | 6         |
| 2.2. Izaera juridiko eztabaidatsua.....  | 7         |
| 3. Aplikazio eremua.....   | 9         |
| 3.1. Eremu objektiboa.....   | 9         |
| 3.2. Eremu subjektiboa .....   | 9         |
| 3.2.1. Babestutako emakume biktimen multzo mugatua.....  | 10        |
| 3.2.2. Babestutako seme-alaba biktima bikoitzak .....  | 12        |
| <b>II. BABES-AGINDUA IZAPIDETZEKO PROZEDURA: ARINA, BAINA, ARAZOK BETEA? .....</b>                 | <b>14</b> |
| 1. Eskaera fasea .....   | 14        |
| 1.1. Eskaera egiteko legitimazio zabala.....   | 14        |
| 1.2. Epailearen jarrera pasiboa.....   | 15        |
| 1.3. Eskaera aurkezteko erraztasuna .....  | 16        |
| 1.4. Segurtasun-Indar eta Kidegoen atestatuaren garrantzia.....                                    | 17        |
| 2. Entzunaldiaren fasea.....   | 19        |
| 2.1. Epaitegian biktima babesteko baliabide eskasak .....  | 19        |
| 2.2. Organo eskudun aldakorra.....   | 20        |
| 2.3. Entzunaldira deituak ez agertzeak dakartzan ondorioak eta arazoak .....                       | 22        |
| 3. Ebazpenaren fasea: babes-aginduen urraketa ugariak.....   | 23        |
| <b>III. BABES-AGINDUAREN EDUKIAREN ERAGINKORTASUNA EZBAIAN.....</b>                                | <b>26</b> |
| 1. Izaera penaleko neurriak.....   | 26        |
| 1.1. Hurbiltzeko debekuak: biktima babesteko helburu zalantzarria.....                             | 26        |
| 1.2. Sustatu beharreko lokalizazio-sistema telematikoak .....                                      | 27        |
| 2. Izaera zibileko neurriak: EAE-ko Familia Harremanei buruzko 7/2015 Legeari aipamen berezia..... | 28        |
| 3. Asistentzia izaerako neurriak .....   | 30        |
| <b>IV. BABES-AGINDUA ONARTZEKO BALDINTZA ZORROTZAK.</b>  | <b>31</b> |
| 1. <i>Fumus bonis iuris</i> .....  | 31        |
| 2. <i>Periculum in damnum</i> .....  | 33        |
| 2.1. Arriskuaren baloraziorako tresnak.....  | 35        |
| 2.1.1. Polizia-balorazioa .....  | 36        |
| 2.1.2. Balorazio forentsea .....   | 37        |

|           |   |    |
|-----------|---|----|
| 2.2.      | Epaileak egiten duen balorazio subjektiboa .....                                      | 38 |
| 3.        | Ukatutako babes-aginduei buruzko balantzea .....                                      | 39 |
| 3.1.      | Babes-aginduen ukapen kopuru altua eta barruti judizialen arteko ezberdintasuna ..... | 39 |
| 3.2.      | Babes-agindua ukatzeko jurisprudentziak zehaztutako irizpideak .....                  | 40 |
| 3.2.1.    | Zehaztutako irizpideen azterketa .....  | 40 |
| 3.2.1.1.  | Garrantzi gutxiko gertakaria edo entitate txikiko intzidentea izatea .....            | 41 |
| 3.2.1.2.  | Larriak ez diren lesio fisikoak izatea .....  | 42 |
| 3.2.1.3.  | Jokabide puntuala eta isolatua izatea .....   | 42 |
| 3.2.1.4.  | Aurretiaz bestelako salaketarik ez egotea .....                                       | 43 |
| 3.2.1.5.  | Ikertuak genero-indarkeria aurrekari penalik eta polizialik ez izatea .....           | 43 |
| 3.2.1.6.  | Polizia-balorazioaren maila baxua .....   | 43 |
| 3.2.1.7.  | Biktimaren bertsioa berresteko elementu periferikorik ez egotea ..                    | 44 |
| 3.2.1.8.  | Maiz elkar topo egingo dutela aurreikusteko arrazoirik ez egotea ..                   | 44 |
| 3.2.1.9.  | Harremanaren eta bizikidetzaren haustura ofiziala izatea .....                        | 44 |
| 3.2.1.10. | Iraupen laburreko harremana izatea .....  | 44 |
| 3.2.1.11. | Salaketa berandu egitea edo erasotzailearekin bueltatzea .....                        | 45 |
| 3.2.2.    | Azterketaren ondorioak .....  | 45 |
| 3.2.2.1.  | Indarkeria ez-fisikoak, indarkeria ikusezina .....                                    | 45 |
| 3.2.2.2.  | Genero-ikuspegi gabeko arriskuaren balorazioa .....                                   | 47 |
| 3.2.2.3.  | Elkarrizketetatik ateratako ondorioak .....   | 49 |

## **V. ONDORIO OROKORRAK ETA AZKEN HAUSNARKETAK..... 51**

### **BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRI OSAGARRIAK ..... 53**

|    |                                   |    |
|----|-----------------------------------|----|
| 1. | Bibliografia .....                | 53 |
| 2. | Bestelako iturri osagarriak ..... | 56 |
| 3. | Legeria .....                     | 58 |
| 4. | Jurisprudentzia .....             | 59 |

### **ERANSKINAK..... 61**

|    |  |    |
|----|--|----|
| 1. | ERANSKINA: Fiskalaren elkarrizketa .....   | 61 |
| 2. | ERANSKINA: Ertzainaren elkarrizketa .....  | 66 |
| 3. | ERANSKINA: Epailearen elkarrizketa .....   | 69 |
| 4. | ERANSKINA: Abokatuaren elkarrizketa .....  | 75 |
| 5. | ERANSKINA: Forentsearen elkarrizketa ..... | 81 |
| 6. | ERANSKINA: Biktimaren elkarrizketa .....   | 85 |

## LABURDURAK

|                 |  |
|-----------------|--|
| ABIU            | Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak         |
| AG              | Auzitegi Gorena                                    |
| AGE             | Auzitegi Gorenaren epaia                           |
| art.            | artikulua  |
| EAE             | Euskal Autonomia Erkidegoa                         |
| EAI             | Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegia |
| EAO             | Estatuko Aldizkari Ofiziala                        |
| EB              | Europar Batasuna                                   |
| GE              | Guardiako Epaitegia                                |
| GEEA            | Giza Eskubideen Europako Auzitegia                 |
| GEEAE           | Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren epaia        |
| KA              | Konstituzio Auzitegia                              |
| KAE             | Konstituzio Auzitegiaren epaia                     |
| Koor.           | Koordinatzailea                                    |
| LO              | Lege Organikoa                                     |
| OJ              | Oinarri Juridikoa                                  |
| <i>Op. cit.</i> | <i>Opere citato</i>                                |
| or.             | orrialdea  |
| PA              | Probintzia Auzitegia                               |
| PAA             | Probintzia Auzitegiaren autoa                      |
| PKL             | Prozedura Kriminalaren Legea                       |
| ZK              | Zigor Kodea  |
| zk.             | zenbakia   |
| Zuz.            | Zuzendaria   |

## SARRERA

*Maguettek laguntza eskatu zion sistema judizialari, baina ukatu egin zioten. Gaur, sistema horrek berak senarra kondenatu du Maguette erailtzeagatik.*

Maguette Mbeugou-ren erailketak, pil-pilean dagoen genero-indarkeriaren biktimek sistema judizialarengandik jasotzen duten babes eza agerian uzten du. “Bilbon gizon batek bere bikotea erail du bere bi alaben aurrean” (GARA, 2018ko irailak 26), “Urruntzeko agindua ukatu eta Maguetteren hiltzailea absolbitu zuten epaileek” (EITB, 2018ko irailak 26), “Afrikako komunitateak Maguette Mbeugouk tratu txarrak salatu ondoren babesik ez izatea kritikatu du” (NAIZ, 2018ko irailak 26), “Epaimahaiak Maguette Mbeugou erailtzearen erruduntzat jo du haren senarra” (BERRIA, 2021eko azaroak 4). 2017ko abenduan, Maguette Mbeugou-k, bere senarrarengandik jasotzen zituen tratu txarrak salatu ostean, laguntza eskatu zuen epaitegietan, baina sistema judizialak ez zion babesik eskaini. Handik gutxira, emakume hau eraila izan zen bere bi alaben aurrean, eta 2021an bere senarra hura erailtzeagatik kondenatu dute. Maguette Mbeugou-ren kasua ez da bakarra, baizik eta, zoritxarrez, beste askoren arteko bat. Izan ere, datuak kontsultatu, besterik ez dugu egin behar; Emakumeen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren arabera, 2021an, erail dituzten 44 emakumeen % 25-ri babes-agindua ukatu zitzaien<sup>1</sup>.

Babes-agindua sistema juridiko-penalak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeei babesa emateko jasotzen duen tresna berezia dugu, hain zuzen ere, genero-indarkeriaren biktimei eman behar zaien arreta espezializatuagatik. Hau da, genero-indarkeriaren biktimak inguruabar berezien preso dira: erasotzailearekin lotzen duen lotura afektiboa, mendekotasun emozionala eta/edo ekonomikoa, seme-alaba komunak izatea, eta delituak biktimarengan dituen ondorio fisiko, psikiko edo/eta sexualak; eta honek, sistemaren erantzun azkar eta eraginkorra galdatzen du. Hori dela eta, erail dituzten emakumeei aurretiaz babes-agindua ukatu zaienean, sistema judizialaren babes-funtzioaren porrota agerian uzten da. Hots, biktimizazio bikoitzaren aurrean egongo ginateke, justizia eta babesa eske doan biktimarentzat frustragarria baita, bere bidezko espektatiben eta sistemaren porrotaren arteko talka<sup>2</sup>.

Honengatik guztiagatik, genero-indarkeriaren biktimen babeserako ematen ohi diren babes-aginduen gaiaren inguruko kezkak gero eta nabariagoak dira<sup>3</sup>. Bere eraginkortasuna kolokan jarri da, tresna honen gabeziak direla eta, bere funtzio nagusia, biktimak babestea, betetzetik urrun egon daitekeelakoan. Beraz, babes-aginduak hamaika emakumeren bizitzatan duen eragina kontuan hartuta, ikerketa sakona merezi duen gaia

<sup>1</sup> EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA, *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas*, 2022. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras> [azken kontsulta: 2022/05/04].

<sup>2</sup> DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM, “Problemas de ejecución de la orden de protección para víctimas de violencia de género”, HERRERA MORENO, MYRIAM (Koor.), *Hostigamiento y hábitat social: una perspectiva victimológica*, Comares, Granada, 2008, 265-267. or.

<sup>3</sup> Azken boladan, irakurritako egunkarietako titular harrigarriak, eta aldi berean, beldurgarriak: “*La falta de comunicación entre juzgados mantuvo las visitas entre el asesino de Sueca y su hijo: ‘No puede volver a pasar’*” (El diario, 2022ko apirilak 5); “*Ana mari, la mujer rociada con sosa, pidió protección pero el juez se la denegó*” (El español, 2020ko maiatzak 1); “*La mujer asesinada por su ex pidió dos meses antes protección y se le denegó*” (La vanguardia, 2019ko abenduak 5).

dugu. Horregatik, lan honen helburu nagusia, babes-agindua zertan datzan azaltzeaz gain, genero-indarkeriaren biktimak babesteko tresna gisa, dituen gabeziak eta akatsak identifikatzea da. Helburu horren baitan, ikerketa, babes-aginduen ukapen kopuru altuak atzean dituen arrazoiak eta arazoak aztertzeraz bideratuta dago, baita sistema judizialak biktimak babesteko funtzio nagusia betetzeko aurrean dituen erronkak zehaztera ere.

Horretarako, tresna juridiko honek genero-indarkeriaren esparruan betetzen duen garrantzia aurkeztuko da aurrea. Gainera, babes-aginduaren alderdi teknikoagoak mahaigaineratuko dira, beti ikuspuntu kritikoa oinarrian hartuta; besteak beste, tresna honen kontzeptuan, izaera juridikoan eta aplikazio eremuan sakonduko dugu, bai eta izapidetza prozeduraren faseak eta babes-aginduaren edukia bera aztertu ere, babes tresna honen gabeziak eta arazoak identifikatzeko helburuarekin. Eta amaitzeko, babes-agindua onartzeko baldintzei erreparatuko zaie, epaileek babes-aginduak ukatzeko hartzen dituzten erabakien azterketa eginez.

Lanean zehar, euskarri gisa, hainbat iturri erabiliko ditugu. Alde batetik, Espainiako estatuan indarrean dagoen legeria izango dugu kontuan: 27/2003 Legea, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duena (aurrerantzean, 27/2003 Legea); 1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa (hemendik aurrera, 1/2004 LO); 1882ko irailaren 14ko Errege Dekretua, Prozedura Kriminalaren Legea arautzen duena (aurrerantzean, PKL). Bestetik, nazioarteko legeria ere ez dugu alde batera utziko, besteak beste, iturri garrantzitsuena, 2011ko Emakumeen aurkako Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Prebenitzeari eta Borrokatzeari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena (hemendik aurrera, Istanbulko Hitzarmena).

Horrekin batera, aldi oro, autoreek sortutako doktrina izango dugu kide; hau da, lanean zehar, hainbat autore ezberdinen iritziak, ideiak eta azalpenak agertuz joango dira. Halaber, Espainiako estatuko jurisprudentzia hartuko dugu hizpide atal batzuetan, gehien bat, KA-ren eta AG-ren jurisprudentzia, baita, beherako auzialdian, babes-aginduen onarpenen edo ukapenen kontra aurkeztutako apelazio errekursoak ebazten dituen PA-en jurisprudentzia ere.

Ikerketa ez da bakarrik eremu teorikora, doktrinalera eta jurisprudentzialera mugatuko, hots, eremu praktikoan ere sakonduko dugu. Izan ere, babes-aginduak zuzenean ezagutzen dituzten eragile juridiko desberdinekin harremanetan jarri ostean, sei elkarrizketa egin ditugu genero-indarkerian esku-hartzeari buruzko praktika ezagutzeko xedearrekin. Hala, babes-aginduaren eskaera egiten den momentutik, epaileak onartzeko edo ukatzeko erabakia hartu arte, prozeduran parte hartu ohi duten pertsonak elkarrizketatu ditugu: lehenik, Bilboko Instrukzio eta Zigor Fiskaltzako fiskal bat<sup>4</sup>; bigarrenik, Bilboko Ertzain-etxean Emakumeen Kontrako Indarkeriaren arloan lan egiten duen lantaldeko ertzaina, Ainara Fernandez García; hirugarrenik, Barakaldoko Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiko (EAIE) epailea, Blanca Ilaria Ibañez; laugarrenik, genero-indarkerian espezializatutako abokatu, Beatriz Ilardia

---

<sup>4</sup> Elkarrizketatua izandako fiskalak ez du lanean bere izena agertzea nahi, beraz, bere nahia errespetatuz, bere erantzunak aipatzen ditugunean “elkarrizketatutako fiskala” esango dugu.

Olangua; bosgarrenik, Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen Auzitegi Klinikako Zerbitzuko burua eta Bizkaiko Auzitegiako Balorazio Integraleko Unitatean (ABIU) lan egiten duen psikiatrian espezializatutako forentsea, Ana Eugenia Abasolo Tellería; azkenik, genero-indarkeriaren biktima (babes-agindua izan zuena), Maite Ediguren Maruri<sup>5</sup>.

Amaitzeko, Emakumeen kontrako indarkeria: prozedura judizialaren gabeziak eta biktimen babesa, diziplinarteko ikuspegitik (IKDi3 21-30) Proiektuan parte hartu dut, eta honi esker, Gradu Amaierako Lana eta praktikak uztartzeko aukera izan dut, gaia ikertzeko motibazio aberasgarria sorrarazi didalarik. Horrela, Zuzenbide Gradu nahitaezko praktikak Bilboko Instrukzio eta Zigor Fiskaltzan egin ditut, hots, babes-aginduen izapidetzak atzean duen praktika juridikoa hurbiletik ikusteko aukera izan dut. Beraz, lanean zehar, nire esperientzatik ateratako ondorioen zertzeladak barneratuko ditut<sup>6</sup>.

Honekin guztiarekin, ikerketa-lanen honen bidez, genero-indarkeria den gaitz-sozialaren kontrako borrokan, nire ekarpen apala ematen saiatuko naiz.

---

<sup>5</sup> Elkarrizketa guztiak eranskin moduan txertatu dira lanaren amaieran. 1. Eranskina fiskalaren elkarrizketari dagokio; 2. Eranskinak ertzainarena biltzen du; 3. Eranskinaren baitan epailearena dago; 4. Eranskiak abokatuarena jasotzen du; 5. Eranskia forentsearenari dagokio; azkenik, 6. Eranskinean biktimarena dago.

<sup>6</sup> Bi hilabete zehar, Jose María Morales Bravo Fiskalarekin ibili naiz lanean, bere zereginak ezagutzen eta bere esperientziaz eta ezagutzaz elikatzen. Fiskalarekin batera, genero-indarkeriaren inguruko guardia zuenean, babes-aginduen eskaerak, atestatuak, eta forentsearen lesio fisikoen txostenak irakurtzeaz aparte, entzunaldietan egoteko aukera izan dut. Hortaz, Bilboko Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko bi Epaitegien funtzionamendua aztertu dut, eta garrantzitsuenak, biktima babesteko funtzioan dauden gabeziak ere identifikatzeko aukera ezin hobea izan dudala esango nuke.

## I. BABES-AGINDUA GENERO-INDARKERIAN

### 1. Genero-indarkeriaren biktimen babes-aginduaren ibilbidea

Historian zehar, emakumeek, emakume izate soilagatik, gizonengandik jasandako indarkeria, denbora luzez isilpean egon den eta giza-eskubideen urraketa ikaragarrietarikoa osatzen duen fenomeno dugu<sup>7</sup>. Denbora luzez, zuzenbidean emakumearen aurkako erasoak gertaera isolatutzat hartu izan dira, 90. hamarkadan, nazioarteko ekimen garrantzitsu batzuei esker, genero-indarkeriaren kontzeptua osatzen den arte<sup>8</sup>. Horrela, kontzeptu honen sistematizazioarekin genero-indarkeriaren izaera unibertsala agerian jartzen da, eta ondorioz, hainbat nazioarteko erakunde eta estatu gaitz sozial honen kontra borrokatzeko tresna juridikoak sortzen hasten dira.

Genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko, biktimen babeserako mekanismo juridikoak sortzen hasi ziren, besteak beste, aztergai izango dugun babes-agindua, emakumeak babesteko tresna gisa osatu zena. Tresna juridiko honen aintzindariak Estatu Batuak eta Australia izan ziren, *protective order* delakoa sortu zutenean; eta ostean, Europara hedatu zen, lehenengo, Austriara (1997) eta beranduago, Alemaniara (2001)<sup>9</sup>.

Espainiako Estatuan, erakunde nazionalen (Emakumearen Institutua, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, Estatuko Fiskaltza Nagusia, etab.) eta nazioarteko erakundeen (Nazio Batuen Erakundea, Europako Kontseilua, EB-eko erakundeak) txostenek biktimak babesteko tresna baten beharra salatu ostean, 27/2003 Legea, etxeko indarkeriaren biktimen babes-agindua arautzen duena, sortu zuten. Lege honek bere 2. artikuluan PKL-ko 544 *ter* artikulua berria barneratu zuen, babes-agindua eta hau izapidetzeko prozedura arautzen zuena, alegia. Lege honen helburu nagusia etxeko indarkeriaren biktimari segurtasuna eta babesa ematea da, horretarako, neurri penalak, zibilak eta asistentzialak aurreikusten ditu, biktima eta haren inguruko pertsonak bizitako arrisku egoera ahalik eta murriztagoa izan dadin<sup>10</sup>.

---

<sup>7</sup> DELGADO ÁLVAREZ, CARMEN, “Raíces de la violencia de género”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010, 44-46. or.

<sup>8</sup> RAMÓN RIBAS, EDUARDO, “Los delitos de violencia de género: objeto de protección”, RAMÓN RIBAS, EDUARDO (Zuz.), ARROM LOSCOS, ROSA (Zuz.), NADAL GÓMEZ, IRENE (Zuz.) *La protección frente a la violencia de género: tutela penal y procesal*, Dykinson, Madril, 2010, 14-15. or. Autore honek, zuzenbidearen munduan genero-indarkeriaren kontzeptua barneratzeko nazioarteko ekimenak aipatzen ditu, besteak beste, Giza Eskubideen Munduko Konferentzia (Viena, 1993), Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Adierazpena, emakumearen aurkako indarkeria ezabatzeari buruzkoa (1993) eta Emakumeen Mundu-Konferentzia (Beijing, 1995). Bereziki ekimen garrantzitsu eta esanguratsu gisa, Nazio Batuen 1995eko IV. Mundu-Konferentzia azpimarratzen du, honetan emakumeek jasaten zuten indarkeriari emandako definizioa kontuan hartuta. Hona hemen definizioa: “*Genero-indarkeria berdintasunaren, bakearen eta garapenaren helburuak lortzeko oztopoa da, historikoki desberdina izan den emakumeen eta gizonen arteko botere-harremanen adierazpena, eta giza eskubideen eta oinarriko askatasunen gozamena urratu eta kaltetu egiten duena*”.

<sup>9</sup> BERBELL, CARLOS, “La violencia doméstica en el mundo”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, 2. zk., 2005, 244-253. or.

<sup>10</sup> 27/2003 Legearen, uztailaren 31koa, etxeko indarkeriaren biktimen babes-agindua arautzen duena. Zioen azalpena.



27/2003 Legearen izenburuari so eginez, babes-agindua etxeko indarkeria kasuetarako arautzen da. Izan ere, Espainiako ordenamendu juridikoak ez du genero-indarkeriaren kontzeptua ezagutzen 1/2004 LO onartu zen arte<sup>11</sup>. Geroztik, Espainiako legediak bi kontzeptu bereizten ditu zigor eta prozesuko babes-mekanismoei begira, etxeko indarkerian ematen den babes-agindua eta genero-indarkerian ematen den babes-agindua<sup>12</sup>. Ikerketa-lan honek azken eremu honetan jarriko du arreta.

Hurrengo orrietan genero-indarkeria kasuetarako babes-aginduak landuko dira, genero-indarkeriaren esparruan funtzio nagusia betetzen baitute, emakumeak eta bere ingurua babestea, eta beren bizitzaren gidaritzza hartzeko aukera izan dezaten lasaitasuna eta segurtasuna ematearena, hain zuzen.

## 2. Babes-aginduaren kontzeptuarako hurbilketa

### 2.1. Kontzeptua

Babes-agindua ebazpen judizialez eman behar den, eta biktimei babesa emateko izaera ezberdineko babes-neurriak biltzen dituen tresna juridikoa da. Beste era batera esanda, babes-agindua genero-indarkeriaren delitu baten biktimaren osotasuna eta segurtasuna bermatzeko prozesu- eta laguntza-mekanismoen multzoa da. Izan ere, arestian esan bezala, genero-indarkeriaren biktimen testuinguru bereziek erantzun integrala galdatzen dute<sup>13</sup>.

Zentzu honetan, babes-agindua, delitu batengatiko prozesu penala izapidetzen den bitartean, sistema judizialak arrisku egoeran dauden biktimei ematen dien babesa dela esan dezakegu. Hala, babesa egikaritzeko, tresna juridiko honek kautela-neurri penalak, behin-behineko neurri zibilak, bai eta gizarte-laguntzak jasotzeko aukera biltzen du<sup>14</sup>. Hain zuzen, tresna honen sorreran, legegilearen asmoa, prozedura judizial azkar eta erraz bat sortzea zen eta, horretarako, epaile bakar baten erabakian izaera penaleko kautela-

---

<sup>11</sup> 1/2004 LO-ak genero-indarkeriaren definizio oso mugatua ematen du. Izan ere, Espainiako Estatuan emakumeen % 57,3-ak emakume izateagatik indarkeria jasaten dute, hala ere, 1/2004 LO-ak, oraindik, bikote eta bikote-ohiaren eremuan emandako indarkeria soilik hartzen du genero-indarkeria gisa. ESPAINIAKO BERTINTASUN MINISTERIOA, *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2019, 2020*. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras> [azken kontsulta: 2022/05/03].

<sup>12</sup> ARROM LOSCOS, ROSA, “Los juzgados de violencia sobre la mujer. Algunos problemas prácticos”, RAMON RIBAS, EDUARDO; ARROM LOSCOS, ROSA; eta NADAL GOMEZ, IRENE (Zuz.), *La protección frente a la violencia de género: tutela penal y procesal*, Dykinson, Madril, 2010, 73-74. or. Autoreak dienez, genero-indarkeria ez da etxeko indarkeriaren baitan dagoen indarkeria mota bat, baizik eta indarkeria mota autonomoa. Etxeko indarkeria (Zigor Kodeko 173.2 art.) familia-nukleoko kideen artean edo elkarrekin bizi diren kideen artean gertatzen den indarkeria da; hala, biktimak eta erasotzaileak gizonetzkoak zein emakumezkoak izan daitezke. Aldiz, 1/2004 LO-ren 1.1. artikulua genero-indarkeriari ematen dion definizioa kontuan hartuta, erasotzailea gizona izan behar da eta biktima emakumea, eta haien artean ezkontza- edo maitasun-harremana edo harreman ohia egon behar du, bizikidetzarekin zein ez. Beraz, ARROM LOSCOS-ek dienez, bi kontzeptuen ezberdintasuna ez da pertsonen sexuaren araberakoa, emakume eta gizonaren arteko botere-harreman desberdinak sortzen duen bereizketa-egoeraren araberakoa baizik.

<sup>13</sup> CUENCA RUIZ, ANA, “Orden de protección”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010, 201. or.

<sup>14</sup> FERNÁNDEZ SALDAÑA, MARÍA MERCEDES, “Derecho de la víctima de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9734. zk., 2020, 2. or.

neurriak eta behin-behineko neurri zibilak bateratu zituen. Horrekin batera, Administrazio Publikoek aurreikusten dituzten gizarte-babeserako tresnak martxan jartzea ahalbidetzen du<sup>15</sup>.

DEL POZO PEREZ-ek izaera ezberdineko neurri anitzen antolaketa eta koordinazio mekanismo gisa definitzen du babes-agindua; hau da, erakunde beraren baitan kautela- eta babes-neurri penal, behin-behineko neurri zibilak eta alderdi asistentzialak antolatu eta koordinatu egiten dira. Beraz, PKL-ren 544 *ter* artikuluan araututa egon arren, tresna honen ondorioak ez dira eremu prozesalera bakarrik mugatzen<sup>16</sup>.

Hortaz, babes-agindua genero-indarkeriaren biktimentzat funtsezko eta beharrezko tresna da, zigor izaerako neurriek beren segurtasun fisikoa bermatzeaz gain, har daitezkeen neurri zibil eta asistentzialekin emakumeen bestelako arazoei erantzuna eman ahal zaielako, hala nola, seme-alabeen zaintzaren inguruko erabakiak edo laguntza ekonomikoak<sup>17</sup>.

## 2.2. Izaera juridiko eztabaidatsua

Kontzeptua alde batera utzita, babes-aginduaren izaera juridikoa aztertzea dagokigu. Kontzeptuarekin gertatzen ez den bezala, doktrinan babes-aginduaren izaera juridikoaren inguruko eztabaida dago. Izan ere, babes-aginduak izaera juridiko konplexua du, era askotako neurriak, bermeak, eskubideak edo betebeharrak biltzen ditu; ez hori bakarrik, gainera, neurri bakoitzak helburu ezberdinak ditu, eta ordenamendu juridiko ezberdinetan eragina dute<sup>18</sup>.

Alde batetik, hainbat autorek babes-agindua kautela-neurria dela defendatzen dute<sup>19</sup>. Bada, CUENCA RUIZ-ek dio, babes-agindua kautela-neurri pertsonala dela, baina, berezitasun bat azpimarratzen du, hots, ez du kautela izaera zentzu hertsian ulertzen. Zehatzago esanda, zentzu hertsian ulertutako kautela-neurri pertsonalen helburu

---

<sup>15</sup> 27/2003 Legea, uztailearen 31koa, etxeko indarkeriaren biktimen babes-agindua arautzen duena. Zioen azalpena.

<sup>16</sup> DEL POZO PÉREZ, MARTA, “La orden de protección de las víctimas de violencia doméstica”, IBÁÑEZ MARTÍNEZ, MARÍA LUISA eta FIGUERUELO BURRIEZA, ÁNGELA (Koor.), *El reto de la efectiva igualdad de oportunidades*, Comares, Granada, 2006, 89-90.or. Antzeko definizioa eskaintzen du, besteak beste, VALIÑO CES, ALMUDENA-k, “La orden de protección: estudio de las medidas para las víctimas de violencia doméstica y de género en el marco del artículo 544 ter de la Ley de Enjuiciamiento Criminal”, *Revista Aranzadi de Derecho y Proceso Penal*, 56. zk., 2019, 5-6. or..

<sup>17</sup> ZULUETA ÁLVAREZ, ANA JESÚS, “La protección de la víctima en el ámbito de violencia de género”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2020, 161. or.

<sup>18</sup> Zentzu honetan, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT, “La orden de protección a las víctimas de la violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009, 527. or.

<sup>19</sup> Teoria hau defendatzen duten autoreak, besteak beste: CUENCA RUIZ, ANA, *op. cit.*; GONZÁLEZ SÁNCHEZ, JULIÁN ÁNGEL, *La orden de protección de las víctimas de violencia doméstica y de género*, Sepín, Las Rozas, 2014; SOSPEDRA NAVAS, FRANCISCO JOSÉ, *Practicum Proceso Penal*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2017; eta CHOCHRÓN GIRÁLDEZ, ANA MARÍA, “Medidas cautelares y su quebrantamiento”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010.

nagusia, ikertua prozesutik eta haren ondorioetatik ihes egitea saihestea da, aldiz, babes-aginduaren xedea biktima eta bere ingurukoak, eraso berrien aurrean, delitu jakin batzuetatik babestea da<sup>20</sup>. Era berean, doktrinaren sektore honen arabera, kautela-neurrien multzoaren barnean prozesuaren emaitza bermatzeko hartutako neurriak (adibidez, behin-behineko espetxealdia) sartzeaz gain, biktima babesteko neurriak ere (esaterako, hurbiltzeko edo komunikatzeko debekuak) barnebiltzen ditu. Hortaz, kautela izaera duten neurrien barne, babes-agindua dago<sup>21</sup>. Halaber, ZULUETA ÁLVAREZ-en esanetan, 27/2003 Legean (babes-agindua sortzen duena) legegileak erabilitako terminologia dela eta, ez dago zalantzarik kautela-neurrien aurrean gaudela, legearen zioen azalpenean, babes-agindua «kautelazko akzio zibil eta penala» gisa definitzen baitu<sup>22</sup>.

Beste alde batetik, doktrinaren beste alderdi batek, babes-agindua kautela-neurria ez dela defendatzen du<sup>23</sup>. Izan ere, MORENO CATENA-ren iritziz, babes-aginduak nabarmen gainditzen du kautela-neurriaren izaera, izenak berak adierazten du, beste zerbaiten aurrean gaudela; eskubideak mugatzeko neurri soilak baino mekanismo zabalago bat da, alegia. Bada, autore honi jarraiki, babes-agindua babes-neurria da, biktimari prozesuan babes osoa ematea baita bilatzen duen ondorioa. Ez hori bakarrik, gainera, biktima jurisdikzio zibilera alda ez dadin, neurri-zibilak aurreikusten ditu eta biktimari administrazioak neurri asistentzialak martxan jartzeko estatusa ematen dio<sup>24</sup>. Horretaz gain, BONILLA CORREA-k dionez, babes-agindua ematen denean, helburua ez da epaiketa prestatzea, eta delituak eta delitugilearen erruduntasuna ikertzea eta ziurtatzea, baizik eta askoz haratago doa, hots, xedea hasiera-hasieratik biktima babestea da, arrisku-egoera berriak saihestea. Beraz, kautela terminoa babesgarri gisa interpretatu behar da, delitugilea erasotzen ari den ondasun juridikoa modu eraginkorrean eta materialean babestea baita jomuga<sup>25</sup>. Oro har, doktrinaren sektore honek defendatzen du babes-aginduak hainbat izaera juridiko ezberdineko neurriak sortzea ahalbidetzen duela, baina, berez, ez dela kautela-neurria. Hau da, babes-agindua onartzekotan, babes-neurriak, kautela-neurriak, izaera zibileko neurriak eta administrazioak emango dituen laguntzen atea irekitzen da; baina, babes-aginduak berak, ebazpen judizial gisa, ez du kautela izaerarik<sup>26</sup>.

<sup>20</sup> CUENCA RUIZ, ANA, *op. cit.*, 201-202. or.

<sup>21</sup> CHOCRÓN GIRÁLDEZ, ANA MARÍA, *op. cit.*, 232. or.

<sup>22</sup> ZULUETA ÁLVAREZ, ANA JESÚS, *op. cit.*, 162-163. or.

<sup>23</sup> Teoria hau defendatzen duten autore batzuk aipatzearen, MORENO CATENA, VÍCTOR MANUEL eta CORTÉS DOMÍNGUEZ, VALENTÍN, *Derecho Procesal Penal*, 8. edizioa, Tirant Lo Blanch, 2017; BONILLA CORREA, JESÚS ÁNGEL, “La orden de protección de las víctimas de la violencia doméstica y de género”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2002. zk., 2005; DE LA ROSA CORTINA, JOSÉ MIGUEL, *Tutela Cautelar de la Víctima. Órdenes de Alejamiento y Órdenes de Protección*, Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 2008.

<sup>24</sup> MORENO CATENA, VÍCTOR MANUEL eta CORTÉS DOMÍNGUEZ, VALENTÍN, *op. cit.*, 356. or.

<sup>25</sup> BONILLA CORREA, JESÚS ÁNGEL, *op. cit.*, 4832-4833. or.

<sup>26</sup> SÁNCHEZ RIVERA, PEDRO, “La orden de protección en violencia de género”, FERNÁNDEZ GONZÁLEZ, MARÍA BEGOÑA (Koor.), O’CALLAGHAN MUÑOZ, XAVIER, *Tratado sobre igualdad jurídica y social de la mujer en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2019, 378. or.

Laburbilduz, izaera juridikoari dagokionez, argi dago doktrinan ez dagoela adostasunik. Hala ere, bi alderdiek partekatzen dute babes-aginduak genero-indarkeria jasan duten biktimak babesteko helburu nagusia duela.

### **3. Aplikazio eremua**

#### **3.1. Eremu objektiboa**

PKL-ren 544 *ter* 1. artikulua arabera, babes-aginduaren aplikazio esparru objektiboa delitu hauetara mugatzen da:

- Bizitzaren kontrako delituak: hilketa eta erailketa
- Osotasun fisiko edo/eta moralaren kontrako delituak: multzo hauetan azpimarratu behar ditugu lesio delituak, tortura delitua eta tratu apalesgarriaren delitua.
- Sexu-askatasunaren kontrako delituak: sexu-abusua, eraso-sexuala, bortxaketa eta sexu-jazarpenaren delitua dira gehien ematen direnak.
- Askatasunaren edo segurtasunaren kontrako delituak: mehatxu-delitua, derrigortze-delitua eta legez kanpoko atxiloketa dira multzo honetako delitu esanguratsuenak.

Esan beharra dago, delitu arinen prozesuetan ere babes-agindua onar daitekeela<sup>27</sup>. Hots, PKL-ren 544 *ter* 4. artikuluari jarraiki, babes-aginduaren eskaera erabakitzeke entzunaldia eta delitu arinen epaiketa aldi berean egiteko aukera dago. Horrela, delitu arinen aurrean babes-agindua egikaritu ahal izateak, eragina izan dezake erasotzailearengan, jokabide hori errepikatzea edo larriagotzea eragotziz. Hala ere, lanak aurrera egin ahala ikusiko dugun moduan, babes-agindua egikaritzeko baldintza zorrotzak kontuan hartuz, delitu arinen kasuan, biktimarentzako arrisku-egoera objektiboa frogatzea ez da erraza izaten, eta beraz, babes-agindu asko ukatu egiten dira<sup>28</sup>.

#### **3.2. Eremu subjektiboa**

Babes-aginduaren aplikazio esparru subjektiboari dagokionean, batetik, neurri honen babespean dauden biktimak ditugu, hots, genero-indarkeria jasan duen emakumea eta bere seme-alabak eta bere zaintzapean edo tutoretzapean dauden adingabeak; eta

---

<sup>27</sup> Nahiz eta PKL-ren 544 *ter* 1. artikulua faltak aipatu, gaur egun, delitu kontzeptua besterik ez dugu kontuan izan behar. Izan ere, 1/2015 Lege Organikoak eragindako erreforma dela eta, ZK-n aldaketa batzuk eragin zituen, haietariko bat, faltan ezabatzea izan zen. Hala, genero-indarkeriarekin lotutako delituen tratamendua mantendu egin zen, eta falta ziren arau-hauste penalak delitu arin gisa egokitu ziren; hala nola, faltak ziren mehatxuak eta derrigortzeak, delitu arinak bihurtu ziren. Gai honetan interesgarria izan daiteke honako autore honen lana: IZQUIERDO TÉLLEZ, CARLOS ALBERTO, *El juicio por delito leve ante el juzgado de violencia sobre la mujer*, Centro de Estudios Jurídicos, Madril, 2017, 19-22. or.

<sup>28</sup> SÁNCHEZ GONZÁLEZ, ÁLVARO, “Aspectos prácticos de la orden de protección de las víctimas de violencia doméstica”, GALLARDO RODRÍGUEZ, ALMUDENA (Koor.); FIGUERUELO BURRIEZA, ÁNGELA; DEL POZO PÉREZ, MARTA eta LEÓN ALONSO, MARTA (Zuz.), *Violencia de género e igualdad: una cuestión de derechos humanos*, Comares, Granada, 2013, 409. or.

bestetik, neurriaren ondorioak betetzera behartuta dauden subjektuak ditugu, genero-indarkeria delitu batengatik ikertuta dagoen erasotzailea, alegia.

### 3.2.1. Babestutako emakume biktimen multzo mugatua

Espainiako legediak jasotzen duen genero-indarkeriaren kontzeptua mugatua dela esan dezakegu, eta ondorioz, babes-aginduak eman dezakeen babesaren norainokotasuna mugatua da era berean. Hau da, Espainiako legediak, egon badauden, genero-indarkeriaren kontzeptu zabalagoekin bat etorriko balitz, babes-aginduaren eremua ere zabalagoa izango litzateke.

Hala, babes-aginduak genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak soilik babesten ditu, eta Espainiako ordenamendu juridikoaren arabera, 1/2004 LO-k ezartzen duenez, genero-indarkeria bikote esparrura mugatzen da (1.1. art.)<sup>29</sup>. Hitz gutxitan esanda, biktima den emakumea babes-aginduaren onuraduna izan dadin, erasotzailearekin ezkontuta edo antzeko harreman batean egon behar du, nahiz eta elkarrekin bizi ez, edo jada amaitutako harremana izan. Horregatik, babes-agindua bikote edo bikote ohiaren eremuan ematen diren delituen biktimei aplikatzen zaie, bestelako eremuetan emakume izateagatik indarkeria jasaten duten emakumeak kontuan hartu gabe<sup>30</sup>.

Estatuko Fiskaltza Nagusiak, 4/2005 Zirkularrean, 1/2004 LO-k genero-indarkeriaren adierazpen guztiak hartzen ez dituela jaso zuen, hala nola, neska haurren hilketak, mutilazio genitala, sexu-erasoa, -esplotazioa eta -jazarpena<sup>31</sup>. Hari berean, Fiskaltzaren adierazpena ez ezik, espainiako ordenamenduaren genero-indarkeriaren kontzeptuaren eremu mugatua Instanbuleko Hitzarmenaren aldarrikapenarekin agerian geratu zen. Hala, “Emakumeen aurkako indarkeria” giza-eskubideen urraketa eta emakumeen aurkako diskriminazio-forma gisa jotzen duen Instanbuleko Hitzarmenak (3. a). art.), emakume baten aurka, emakume izateagatik, jasotzen duen indarkeria oro “emakumeen aurkako generoagatiko indarkeriatzat” hartzen du (3. d). art) eta babes-agindua aurreikusten du indarkeria honen biktima guztiak babesteko (53. art.). Gainera, Instanbuleko Hitzarmenak aintzatespen inportanteak egiten ditu, hots, generoan oinarritutako indarkeria-ekintza oro izendatzen ditu, besteak beste, kalte fisikoa, sexuala, psikologikoa edo ekonomikoa, bai eta horiek egiteko mehatxuak, derrigortzeak edo

---

<sup>29</sup> 1/2004 LO-ren 1.1 artikulua: “*Lege honen xedea da indarkeriaren kontra egitea, indarkeria emakumeen aurka erabiltzen dutenean, horien ezkontide direnek edo izan direnek, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitarik ez izan, bereizkeriaren, desberdintasun-egoeraren eta gizonek emakumeei ezartzen dizkieten botere-harremanen agerpen gisa*”

<sup>30</sup> SÁNCHEZ RIVERA, PEDRO, *op. cit.*, 379. or. Autore honek, interpretazio zabala oinarrian hartuz, ezkontzaren antzeko harremanen barne, maitasun-kutsuko afektibitatean oinarritutako harreman sentimental guztiak sartzen ditu, besteak beste, izatezko-bikotea, neska- eta mutil-lagunak, ezkongai-harremana. Beraz, kanpo uzten ditu noizbehinkako harremanak, edo adiskidetasun hutsezkoak, eta azpimarratzen du, nahikoa izango dela lotura afektibo intimoa izatea, edozein dela ere bikoteari eman nahi zaion izena.

<sup>31</sup> ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIA, *Circular 4/2005, de 18 de julio, relativa a los criterios de aplicación de la Ley Orgánica de Medidas de Protección Integral contra la violencia de género*, 2005. Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/FIS-C-2005-00004> [azken kontsulta: 2022/05/03].

askatasuna kentzea. Halaber, hitzarmen honek emakume eta neskatok sarritan indarkeria mota larriak jasaten dituztela aitortzen du, esaterako, etxeko indarkeria, sexu-jazarpena, bortxaketa, nahitaezko ezkontzak, «ohorearen» izenean egindako krimenak eta mutilazio genitalak. Horrela, esan dezakegu Istanbulko Hitzarmena indarkeria horrek suposatzen duen egiturazko arazoaz gain, indarkeriazko portaeren deskribapen faktikoa egiten duela<sup>32</sup>.

Espainiako Estatuak, oraindik, nahiz eta 2014an Istanbulko Hitzarmena berretsi duen, ez du bere legedia nazioarteko hitzarmeneko genero-indarkeriaren kontzeptu zabalera moldatu<sup>33</sup>. Horren haritik, 2020ko urriaren 25an, *Group of Experts on action against violence against women and domestic violence*-ek (hemendik aurrera, GREVIO)<sup>34</sup> Espainiako Estatuaren legegintza eta gainerako neurrien ebaluazio-txostena aurkeztu zuen. Honetan, gomendio argia helarazten dio Espainiako Estuari, Istanbulko Hitzarmenak jasotzen dituen emakumearen aurkako, etxeko indarkeria eta genero-indarkeriaren definizioen inguruan. Bada, GREVIO-k gogorarazten du Istanbulko Hitzarmenak emakumeen aurkako indarkeria modu guztietaz hitz egiten duela, eta ez bakarrik bikotearen eremuan ematen den indarkeriaz. Beraz, GREVIO-k, biziki bultzatzen ditu Espainiako agintariak Istanbulgo Hitzarmena benetan indarrean jartzera, gaur egungo Espainiako legeriak, politikek eta programek duten indarkeria-moduen definizio mugatua salatuz. Bestalde, azpimarratu egiten ditu Espainian genero-indarkeriaren kontzeptuaren barne sartuta ez dauden indarkeriak: bortxaketak, sexu-jazarpena, nahitaezko ezkontza, emakume-genitalen mutilazioa eta abortua eta bortxazko esterilizazioa<sup>35</sup>.

Istanbulko Hitzarmena kontuan hartuta, Espainiako 2017ko Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu-Itunak arlo honetan ere jarri du arreta, hots, 102. neurrian genero-indarkeriaren kontzeptuaren zabaltzeko beharra barneratzen du<sup>36</sup>. Izan ere, Estatu-Ituna prestatzeko bai Kongresuan bai Senatuan egin ziren azterketa txostenetan, adituek egindako aurkezpen gehienek kontzeptuaren zabalera eskatzen zuten. Adituren bat aipatzearen, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Salako Fiskal Ordezkarria den

---

<sup>32</sup> MERCADO CARMONA, CARMEN, “La erradicación de la violencia contra la mujer “por tratado”: un análisis comparado del convenio de Estambul y de la convención de Belém do Pará”, *Revista europea de Derechos Fundamentales*, 30. zk., 2017, 221. or.

<sup>33</sup> Azpimarratzekoa da, Las Palmaseko EAIE-ko Auxiliadora Díaz Velázquez magistratuak, Espainiako Estatuan, lehendabizi, Istanbulko Hitzarmena zuzenean aplikatu duela, prostituzio hertsatzaile eta gizakien salerosketa delituen instrukzioa burutzen ari delarik. CANARIAS7, *Un juzgado de violencia sobre la mujer que hace historia*, 2019/02/21. Eskuragarri: <https://www.canarias7.es/sociedad/> [azken kontsulta: 2022/05/14]

<sup>34</sup> Istanbulko Hitzarmenak Emakumearen aurkako Indarkeriaren eta Etxeko Indarkeriaren aurkako borrokan adituak diren Kideen Taldearen (GREVIO) sorrera arautzen du. Talde honek Hitzarmena berrestarekin hartutako konpromisoen jarraipena egiten du. Hau da, Estatuak bisitatuko ditu, gizarterakunde eta erakunde ofizialen informazioa jasoko du, eta txosten bat egingo du estuari gomendioak helaraziz.

<sup>35</sup> GREVIO, *GREVIO's Evaluation Report on Spain*, GREVIO/Inf(2020)19, Consejo de Europa, 2020, 10. paragrafoa. Eskuragarri: <https://rm.coe.int/grevio-s-report-on-spain> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>36</sup> LEHENDAKARITZA, GORTEEN HARREMANAK ETA BERDINTASUN MINISTERIOA, *Documento refundido de medidas del Pacto de Estado. Congreso + Senado*, 2019, 26. or. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/pactoEstado> [azken kontsulta: 2022/05/14].

MARTÍN NÁJERA-k, honako hau adierazi zuen: *“La Fiscalía opina que el marco punitivo actual es suficiente, aunque debe ampliarse el concepto legal de VG de manera que no se circunscriba a las conductas desarrolladas en el marco de la pareja o expareja, sino también a aquellos otros delitos que afectan principal o exclusivamente a mujeres: acoso sexual, mutilación genital y los matrimonios forzados”*<sup>37</sup>.

Zalantzarik gabe, Espainiako ordenamendu juridikoaren genero-indarkeriaren kontzeptu mugatua salatzen duten ekimenek, bai eta kontzeptua zabaldu duten nazioarteko lege ekimenek agerian uzten dute Espainiako sisteman kontzeptuaren berridazketa premiazkoa dela<sup>38</sup>. Izan ere, Espainian emakumeen %57,3-ak emakume izateagatik indarkeria jasaten dute, eta askok ez dute babes-agindua eskatzeko aukerarik, 1/2004 LO-ren arabera, genero-indarkeriaren biktima ez baitira<sup>39</sup>. Horrela, bestelako eremuetan indarkeria jasaten duten emakumeek ez dituzte bikotekidearen edo bikotekide ohiaren eskutik indarkeria jasan duten emakumeen eskubide berdinak<sup>40</sup>.

### 3.2.2. Babestutako seme-alaba biktima bikoitzak

Gaur egun, genero-indarkeria jasan duen emakumeaz gain, beren seme-alabak eta bere tutoretzapean edo zaintzapean dauden adingabeak ere indarkeria honen biktimatzat hartzen dira; hau da, beren amen aurkako indarkeria bizi duten haurrak, genero-indarkeriaren biktima zuzenak dira. Are gehiago, seme-alabak indarkeria bikarioaren biktimak ere dira, aitak instrumentu gisa erabiltzen baititu amaren aurka indarkeria gauzatzeko<sup>41</sup>. Beraz, seme-alabak biktima bikoitzak direla esan dezakegu<sup>42</sup>. Gauzak

---

<sup>37</sup> SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 9. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14]. Era berean, Berdintasun Batzordean hizlari izan ziren CARMONA VERGARA-k eta FERNÁNDEZ DOYAGUE-k, genero-indarkeriaren kontzeptua zabaldu behar zela ere salatu zuten.

<sup>38</sup> Aipatu beharra dago, EAE-n indarrean dagoen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen bigarren aldaketaren legea, hots, 1/2022 Legea, martxoaren 3koa. Azpimarratu beharreko ondorio nagusia emakumeen aurkako indarkeria kontzeptuaren hedapena da, lege honen zioen azalpenean aitortzen den gisan, Istanbulgo Hitzarmena oinarri izan dutena. Hala, 1/2022 Legearen 50.3. artikulua hurrengo definizio ematen du: *“Emakumeen aurkako indarkeria matxista da bikotearen edo bikote ohiaren barneko indarkeria, familiakoa, sexu-indarkeria, feminizidioa, emakume eta neskatuen salerosketa, esplotazio sexuala, emakumeen mutilazio genitala, ezkontza behartuak eta bestelako ohitura tradizional kaltegarriak, estatuak egindako edo onartutako indarkeria eta emakumeen duintasunari, integritateari eta askatasunari kalte egiten dion edo egin diezaiokeen eta nazioarteko hitzarmenetan, Espainiako Zigor Kodean, estatuko araudian edo autonomia-erkidegoko araudian jasotzen den edozein indarkeria mota”*.

<sup>39</sup> ESPAINIAKO BERDINTASUN MINISTERIOA, *Macroencuesta de violencia contra la mujer 2019*, 2020. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras> [azken kontsulta: 2022/05/03].

<sup>40</sup> Horrela dio, SÁNCHEZ RIVERA, PEDRO, *op. cit.*, 379. or.

<sup>41</sup> Espainiako Estatuan, 2013tik 2022ra, 47 haur izan dira erailak beren aitaren eskutik, amaren aurka genero-indarkeria gauzatzeko helburuarekin. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA, *Menores víctimas mortales en los casos de violencia de género contra sus madres en España*, 2022. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras> [azken kontsulta: 2022/05/13].

<sup>42</sup> 8/2015 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duenak, eta 8/2021 Lege Organikoak, haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzkoak, 1/2004 LO-an egindako erreformen ondoren, biktima diren emakumeen seme-alaba adingabeak genero-indarkeria eta indarkeria bikarioaren biktima gisa aitortuak izan dira, baita babestutako subjektu gisa ere. Erreforma hauen

horrela, babes-aginduari dagokionez, adingabeak babestutako subjektuen barne hartzen dira<sup>43</sup>. Gai honi dagokionez, ez dugu gehiago sakonduko, biktimak diren seme-alabek jasaten duten genero-indarkeria eta indarkeria bikarioari buruz beste ikerketa-lan independentea egin baitaiteke.

---

ondorioz, 1/2004 LO-ren 1. artikuluan 2. eta 4. atalak barneratu dira: “2. *Por esta ley se establecen medidas de protección integral cuya finalidad es prevenir, sancionar y erradicar esta violencia y prestar asistencia a las mujeres, a sus hijos menores y a los menores sujetos a su tutela, o guarda y custodia, víctimas de esta violencia.* ; 4. *La violencia de género a que se refiere esta Ley también comprende la violencia que con el objetivo de causar perjuicio o daño a las mujeres se ejerza sobre sus familiares o allegados menores de edad por parte de las personas indicadas en el apartado primero*”. Azpimarratzekoa da, gai honek izan duen eboluzioaren inguruko autore honen lana: MARTÍN NÁJERA, PILAR, “La protección de los menores víctimas de violencia de género”, *La Ley Derecho de Familia: Revista jurídica sobre familia y menores*, 27. zk., 2020, 8-10. or.

<sup>43</sup> GÓMEZ FERNÁNDEZ, ITZIAR, “Hijas e hijos víctimas de la violencia de género”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 8. zk., 2018, 5-6. or.



## II. BABES-AGINDUA IZAPIDETZEKO PROZEDURA: ARINA, BAINA, ARAZOZ BETEA?

### 1. Eskaera fasea

#### 1.1. Eskaera egiteko legitimazio zabala

Babes-aginduaren izapidetzarako prozeduraren ezaugarri bereizgarria arintasunarena da, hots, legegileak, 7/2003 Legean, babes-agindua ebazteko hiru fasetan bereiz ditzakegun prozedura laburra arautu zuen. Honek zenbaitetan biktimei berehalako babesa ematea ahalbidetzen du, baina, bestelako arazoak ere eragiten ditu.

Babes-aginduaren izapidetzeko prozeduraren lehenengo fase honen hasiera, epaileak ofizioz ala alderdi batek eskatuta emango da. Prozesu judizialak dirauen bitartean, edozein momentutan egikari daiteke, eta ez du salaketa egoterik galdatzen (PKL-ren 544 ter 2. art.)<sup>44</sup>. Beste era batera esanda, biktimak genero-indarkeriaren egitate baten inguruko salaketa bat egin gabe, babes-agindua egikaritu ahal izango da.

EAIE edo GE-ko epaile eskudunak, ofizioz, babes-agindua egikari dezake genero-indarkeriaren baitan, biktimaren bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren eta segurtasun eta askatasunaren kontrako delitu baten berri duenean. Horretarako, aurrerago sakonki aztertuko ditugun babes-agindua onartzeko bi baldintzak betetzen direla ziurtatu beharko du. Hala ere, epaileak ofizioz egiten ez duen kasuetan ere, babes-aginduaren izapidetzaren prozedura beste alderdi askoren eskutik has daiteke, hots, Legeak eskaera egiteko legitimatutako pertsonen zerrenda zabala arautzen du<sup>45</sup>. Hala, eskaera honakoek egin dezakete:

1. Biktimak berak, zuzenean ala bere abokatuaren bidez, eskaera egin dezake. Kasu hauetan, abokatuak rol garrantzitsua izango du, bera baita biktimari hizkuntza juridikoa azaldu, babes-agindua zertan datzan adierazi eta bere ondorioen berri emango diona. Honen harira, Babes-Aginduaren Jarraipen Batzordeak (27/2003 Legearen bigarren Xedapen Gehigarrian aurreikusitakoa) gomendio gisa, behin eta berriz adierazi du, eskaera egiteko modu egokiena abokatu baten laguntzaz egitea dela. Elkarrizketatutako Fiskalaren iritziarekin bat natorrelarik, ezinbestekoa da emakumeak babes-aginduaren formularioa betetzean bere abokatuaren laguntza eta aholkularitza izatea, ideien antolaketa bat eginez, bizi izandako indarkeria era

---

<sup>44</sup> PKL-ren 544 ter 2. artikulua: “[...] Lege honen 262. artikuluan salaketa egiteko eginbehar orokorrari kalterik egin gabe, laguntza-erakunde edo -organismoek, direla publikoak direla pribatuak, aurreko paragrafoan aipatutako edozein egitateren berri badute, guardiako epaileari edo Fiskaltzari berehala komunikatu beharko diote, babes-agindua hartzeko prozedura has edo eragin dadin”.

<sup>45</sup> Eskaera formulario baten bitartez burutzen da. Formulario horren funtsezko atala “salatu diren eta babes-aginduaren funtsa diren gertakarien deskribapena” da. Atal honetan idatzitako guztia, zuzenean, organo judizialen eskura pasako da. EUSKADIKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOA, *Babes-aginduaren eskatzeko formularioa*. Eskuragarri: <https://www.justizia.eus/Formulario Orden de Proteccion EUSKARAZ> [azken kontsulta: 2022/05/04].

Babes-agindua genero-indarkeria: gaur egungo sistema judizialak biktimak babesten ditu?

ulergarri batean formularioan irudikatu dezan; izan ere, epaileak, formularioan idatzitakoa babes-agindua onartzeko ala ukatzeko erabakian eragina izango du<sup>46</sup>.

2. Biktimarekin ahaidetasun-harreman hauetako baten bidez lotuta dagoen pertsonak babes-agindua eska dezake, hots, odolezko, adopziozko zein kidesunezko aurreko-ahaideak, ondorengo-ahaideak, neba-arrebak edo familia-nukleoan barneratuta dagoen beste pertsona bat. Ahaidetasun-harremanen zerrenda luzea egiten du, aurrekoetan eta ondorengoetan gradu-mugarik ezartzen ez duelarik.
3. Fiskaltzak, bere aldetik, eskaera egin dezake, babes-agindua egikaritzeko baldintzak betetzen direla uste duenean.
4. Asistentziazko erakundeak eta organismoak, publikoak zein pribatuak, legitimatuta daude babes-agindua eskatzeko, babesaren beharrean dagoen biktima baten egoera ezagutzen dutenean. Erakunde eta organismo hauek agintari judizialari edo Fiskaltzari egoera honen berri emateko betebeharra izango dute.

## 1.2. Epailearen jarrera pasiboa

Babes-aginduaren eskaerarekin jarraituz, 2021an, Espainiako Estatuan, egin diren babes-aginduen eskaeretatik, %93,35 biktimek beraiek egin dituzte, haren atzetik, %4,83 Fiskaltzak, ostean, %1,51 epaileak ofizioz, eta azkenik, %0,31 bestelako pertsona batek<sup>47</sup>. Esanguratsua da, aurreko datuei erreparatuta, Epaileek, ofizioz, hasitako prozeduren kopurua hain txikia izatea, hots, datu hauek organo judizialek maiz jarrera pasiboa hartzen dutenaren itxura ematen du.

Genero-indarkerian, babes-aginduak eskatzera ausartzen ez diren edo bere burua biktima gisa ikusten ez duten emakumeen kasu ugari daude, eta horregatik, organo judizialen jarrera aktiboa garrantzitsua dela azpimarratu beharra dago. Hala, epaileek jarrera aktiboaren zeregina betetzeko ikerketa eginbide dezente agindu behar dituzte, esaterako, forentseen eta gizarte-zerbitzuen txostenak galdatu, lekukoak bai eta alderdien inguruari galdeketa sakona egin, elementu periferikoen azterketa sakona egin, etab. Horrela, biktimen arrisku egoera identifikatu eta biktimari babesa eman ahal izango dio, nahiz eta beste ezein alderdik babes-aginduaren eskera ez egin.

Honen harira, Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu-Ituna prestatzeko Kongresuan egindako txostenean, TARDÓN RECIO-k (CEDAW Sombra España-ko kidea) ikerketa eginbide eskasa salatu zuen: *“Denuncio la falta de diligencia en la investigación, ya que en muchos casos son las propias mujeres las que tienen que aportar la mayoría de las pruebas, lo que con frecuencia se traduce en archivos o sobreesimientos”*<sup>48</sup>. Halaber, abokatua den ILARDIA OLANGUA-ren ustez, epaileak

<sup>46</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 63. or.

<sup>47</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ETXEKO INDARKERIA ETA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIA, *Violencia sobre la mujer/Juzgados por partido judicial 2021, 2022*. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/Anual-2021> [azken kontsulta: 2022/05/05].

<sup>48</sup> KONGRESUKO BERTINTASUN BATZORDEA, *Informe de la subcomisión creada en el seno de la comisión de igualdad para un Pacto de Estado en materia de violencia de género*, 2017, 43. or. Eskuragarri: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado\\_Congreso](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado_Congreso) [azken kontsulta: 2022/05/14].

ikerketa eginbide gehiago eskatu beharko lituzke, atestatuan idatzita datorren gertaera zehatzaren atzean dagoenari garrantzia ematen ez zaiolakoan; bere iritziz, ikerketa eginbide gehiago egitekotan, epaileak babes-agindu baten onarpena arrazoitzeko baliagarria den informazioa gehiago izango luke<sup>49</sup>. Are gehiago, elkarrizketatutako fiskalaren hitzetan, epailearen jarrera aktiboa garrantzitsua da, biktimaren borondatearen aurka prozedura burutzea suposatzen duenean ere<sup>50</sup>.

Azpitarratzekoa litzateke, babes-aginduaren izapidetzarako prozeduraren lehenengo fase honetan, biktima babesteko eginkizunetan, epaileen jarrera pasibo kezkarria. Hau da, nahiz eta babes-aginduaren eskaera egiteko legitimazioa zabala izan, organo judizialen parte hartze aktiborik gabe, babes-aginduen prozedurek ez dute aurrera egingo eta horrek, biktimaren babesgabezia eragiten du, zenbaitetan, biktimaren bizitza arriskuan jarritz.

### 1.3. Eskaera aurkezteko erraztasuna

Babes-aginduaren eskaera aurkeztu beharreko organoari dagokionez, legitimazioarekin gertatzen den bezala, Legeak eskaerak aurkezteko organo zerrenda zabala aurreikusiten du; hots, babes-agindua organo zehatz baten aurrean eskatzeko betebeharra ezarri beharrean, hainbat organotan aurkezteko aukera ahalbidetu da. Hala, eskaera jasotzeko legitimatutako organo guztiek ezaugarri komuna dute, funtzio publikoa, alegia<sup>51</sup>. PKL-ren 544 *ter* 3. artikuluari jarraiki, babes-aginduaren eskaera hurrengo organoen aurrean aurkeztu ahal izango da: organo judiziala, Fiskaltza, Segurtasun-Indar eta -Kidegoak, edozein Administrazio Publikoren menpe dauden Biktimentzako Arreta Bulegoak, eta gizarte- eta laguntza-zerbitzuak<sup>52</sup> eta abokatuaren elkargoetako orientazio juridikoko zerbitzuak.

Argi dago, babes-aginduaren izapidetza prozeduraren lehenengo fase honetan, legegileak biktimari erraztasunak ematen dizkiola sistema-judizialean babesa eska dezan. Baina, nahiz eta biktimak babesa erraz eskatzeko aukera izan, prozeduran parte hartzen duten eragile judizialen erantzukizuna bereziki garrantzitsua da, beren jarduerak eragina izango baitu epaileak babes-agindua onartzeko edo ukatzeko hartuko duen erabakian.

---

<sup>49</sup> ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 75-76. or.

<sup>50</sup> Elkarrizketatutako Fiskalak horrela azaltzen du: *“Me parece que la orden de protección es necesaria, hasta a veces, cuando es en contra de la voluntad de la víctima. Por que hay casos, en que es tan obvia la violencia que, aunque ella no la vea, su protección es necesaria, además, teniendo en cuenta que muchas veces, hay en juego la vida de hijas e hijos menores”*. 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 65. or.

<sup>51</sup> CUENCA RUIZ, ANA, *op. cit.*, 210. or.

<sup>52</sup> Azpitarratzekoa iruditzen zait, eskaera Biktimentzako Arreta Bulegoetan eta gizarte- eta laguntza-zerbitzuetan aurkeztu ahal izatea. Biktimarentzat onuragarria dela esango nuke, askotan, zerbitzu hauetara jotzen baitute laguntza eske, sistema judizialaren esku utzi aurretik. Baina, hau eraginkorra izan dadin, biktima babesteko balio dezan, garrantzitsua da zerbitzu hauetan lan egiten dituzten profesionalak, genero-indarkerian formakuntza izateaz gain, babes-aginduaren gutxieneko ezagutza izatea, biktimari azaldu ahal izateko eta bere ibilbidean lagundu ahal izateko. Beraz, nire ustez, funtsezkoa da langile hauen formakuntza babes-aginduaren gaian. Iritzi berberekoa da hurrengo autoreak: SERRANO HOYO, GREGORIO, *“Algunas cuestiones procesales que plantea la orden de protección de las víctimas de la violencia doméstica”*, *Anuario de la Facultad de Derecho, Universidad de Extremadura*, 22. zk., 2004, 79. or.

#### 1.4. Segurtasun-Indar eta Kidegoen atestatuaren garrantzia

Arestian ikusi dugun bezala, babes-aginduaren eskaera gehienak biktimak berak egiten ditu eta, praktikan, Segurtasun-Indar eta -Kidegoetan aurkeztu ohi ditu, askotan, babesaren eskaera salaketa baten ostean baitator. Horrela, Segurtasun-Indar eta -Kidegoen jarduerak, batez ere, burutzen dituzten atestatuak, kutsu garrantzitsua izango dute babes-agindua izapidetzeko prozeduran.

Lehenik, babes-agindua Segurtasun-Indar eta -Kidegoetan eskatzen denean, prozesu judiziala polizia judizialak egindako atestatuarekin hasiko da, ondorioz, auzia judizio azkar gisa izapidetuko da eta presazko eginbideak egikarituko dira (PKL-ren 795.1 art.). Horrela, Segurtasun-Indar eta -Kidegoetan eskaera aurkezteak biktimarentzat onuragarria izan daiteke, babes-aginduaren izapidetza arintzen lagunduko baitu<sup>53</sup>. Hala ere, autore ezberdinek aztertu duten gisan, genero-indarkeriaren delituen prozesu judizialak epaiketa azkar bezala izapidetzeak biktimari desabantailak ere ekar diezazkioke<sup>54</sup>.

Bigarrenik, babes-aginduaren eskaera epaitegira atestatuarekin batera heltzea elementu erantsia da, garrantzi handikoa baita epaileak babes-aginduaren onarpena oinarritzeko orduan. Izan ere, genero-indarkeria kasuetan, gehienetan, delituak eremu pribatuan ematen direnez, froga eta lekuko falta egoten da; hortaz, poliziak egindako atestaturik funtsezko elementu bihurtzen da, biktimak egindako kontaketa egiazkotasun kutsua ematen baitio. Babes-agindua onartzeari begira, Segurtasun-Indar eta -Kidegoen eginkizuna argia da, hots, egitateen deskribapen sakona egin behar dute, errealitatea ahalik eta zehatzen azalduz. Horretarako, funtzionarioek atestaturik familiarren ezaugarriak jaso behar dituzte (besteak beste, familiako kideen datuak, familia etxebizitza duten, ezkondata ala banatuta dauden), baita bestelako datu garrantzitsuak ere, hala nola, biktimak gizarte-zerbitzuen laguntza izan duen eta horren inguruko txostenak<sup>55</sup>.

Zentzu horretan, Segurtasun-Indar eta -Kidegoen atestatuak babes-aginduaren izapidetzan duten garrantzia agerian dago. Horregatik, funtsezkoa da entitate honetako langileek beren jardueran 1/2004 LO-ren 31.3 artikuluan aurreikusita zegoen Etxeko Indarkeria eta Genero-indarkeria biktimen aurrean Segurtasun-Indar eta -Kidegoen jarduerak eta organo judizialekiko koordinazio-Protokoloa<sup>56</sup> eta Genero-indarkeriaren

---

<sup>53</sup> SERRANO HOYO, GREGARIO, *op. cit.*, 78. or. Honekin batera, aipatu beharra dago, SÁNCHEZ GONZÁLEZ, ÁLVARO, *op. cit.*, 411-412. or.

<sup>54</sup> Honen inguruan, DEL POZO PÉREZ, MARTA, “Ventajas e inconvenientes de los juicios rápidos para la lucha contra la violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009, 617-668. or.; ESCOBAR JIMÉNEZ, RAFAEL, “Insuficiencias en el orden procesal con ocasión de la instrucción y enjuiciamiento de los delitos de violencia contra la mujer”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020, 134-136. or.

<sup>55</sup> Honala dio, DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM-ek, *op. cit.*, 268-274. or. Zentzu berean, SÁNCHEZ GONZÁLEZ, ÁLVARO, *op. cit.*, 411-412. or.

<sup>56</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, *Protocolo de actuación de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad y coordinación con los órganos judiciales para víctimas de violencia doméstica y de género*

aurrean Estatuko Segurtasun-Indar eta -Kidegoek eta Abokatuek jarduteko eta koordinatzeko Protokoloa<sup>57</sup> aplikatzea. Hala, Protokolo huetatik hiru ondorio nagusi atera ditzakegu babes-aginduaren prozeduraren baitan duten rol garrantzitsuari dagokionez.

Lehenengo, genero-indarkeriaren biktimak Segurtasun-Indar eta -Kidegoetara laguntza eske jotzen dutenean, funtsezkoa da funtzionarioek babes-agindua eskatzeko duen eskubideaz jakinaraztea, hortaz gain, horren edukiaren eta ondorioen berri ematea ere. Horretarako, langileek zuzenbidean gutxieneko formakuntza beharko lukete, eta beharrezkoa den denbora guztia erabili behar du, biktimak babesa jasotzeko aukera duela uler dezan<sup>58</sup>. Bigarrenik, garrantzitsua da, funtzionarioek babes-aginduaren eskaera eta eta atestatua jasotzerako momentuan, biktimak abokatuaren laguntza juridikoa duela ziurtatzea. Hala ere, babes-aginduaren eskaera egiteko abokatuaren asistentzia ez da nahitaezkoa, eta ondorioz, ILARDIA OLANGUA abokatuak salatu duen moduan, askotan poliziek ez dute abokatu komisaldegira heldu dadin itxaroten<sup>59</sup>. Hirugarrenik, biktima den emakumea Estatuko Segurtasun-Indar eta -Kidegoetako funtzionarioek genero-ikuspegia izatea ezinbestekoa da, hots, biktimekin lan egiten duten heinean, genero-indarkeriak dituen ezaugarri berezi eta konplexuak ezagutu behar dituzte<sup>60</sup>. Horretarako, Segurtasun Indar eta Kidegoen barne langile talde espezializatu, konprometitu eta ulerbera beharrezkoa da, eta hori, formakuntza egonkor eta jarraia emanez lortzen da<sup>61</sup>.

---

(adaptado a la LO 1/2004), 2005. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero> [azken kontsulta: 2022/05/04].

<sup>57</sup>BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, *Protocolo de actuación y coordinación de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado y Abogados ante la violencia de género regulada en la Ley Orgánica 1/2004*, 2007. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero> [azken kontsulta: 2022/05/04].

<sup>58</sup> Honela dio, ARAGONENSES MARTÍNEZ, SARA-k, “Las medidas judiciales de protección y de seguridad de las víctimas de violencia de género”, *Tutela Penal y Judicial frente a la violencia de género*, Constitución y Leyes, COLEX, 2006, 175. or.

<sup>59</sup> ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 76. or. Gai honi dagokionez, aipatu beharra dago, Kongresuan Genero-Indarkeriaren kontrako Estatu-Ituna prestatzeko egindako txostenean, PELÁEZ SOLÍS-ek (Espainiako Abokatzaren Kontseilu Nagusiko Presidentea) esandakoa: “Es cierto que la LO 1/2004 y la ley de Asistencia Jurídica Gratuita reconocen a las víctimas de violencia de género el derecho a contar con asistencia letrada, pero en la realidad muchas víctimas continúan formulando denuncia o solicitando orden de protección sin información jurídica. El "Protocolo de Actuación de Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado y Abogados ante la violencia de género" tampoco ha solucionado este problema. En efecto, la normativa actualmente vigente otorga a la víctima el derecho a disponer, si lo solicita, de asistencia jurídica antes de formular su primera denuncia, ya sea policial o judicial; al mismo tiempo establece el deber de todos los Colegios de Abogados de organizar esa prestación de servicio especializado, mediante el establecimiento de un sistema de guardias que aseguren disponibilidad permanente de profesionales. Sin embargo, esa asistencia no es preceptiva, ha de ser solicitada por la víctima”. KONGRESUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la subcomisión creada en el seno de la comisión de igualdad para un Pacto de Estado en materia de violencia de género*, 2017, 47. or. Eskuragarri: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado\\_Congreso](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado_Congreso) [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>60</sup> Honela dio, DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM, *op. cit.*, 268-269. or.

<sup>61</sup> Honen inguruan, aipatu beharra dago, EAE-n, Ertzaintzak, nahiz eta genero-indarkerian unitate berezia ez izan, bere egituraren zati handi bat Etxeko Indarkeria/Genero-Indarkeria (EI/GI) arazoari aurre egiteko inplikatzan du, lantalde zehatzak sortuz. Beraz, esan dezakegu, Ertzaintzak genero-indarkerian polizia espezializatua duela. Izan ere, Emakundek ertzaintzan formakuntza berezia antolatzen du urtero, polizia-etxe guztiek eta txanda guztiek prestakuntza duten funtzionarioak izan ditzaten. EMAKUNDE, *Evaluación de los Recursos Policiales en materia de Maltrato Doméstico contra las Mujeres*, 2007. Eskuragarri:

Oro har, emakumeek babes-aginduaren eskaera Segurtasun Indar eta Kidegoen aurrean egiten ohi dute, eta beraz, entitate hauetan lanean dauden funtzionarioen jarduera funtsezkoa da biktimari behar duen segurtasuna eta babesa emateko, bai eta babes-aginduaren onarpena posiblea izateko. Beraz, aipatutako hiru ondorio nagusi horien baitan, funtzionario hauen jarduerak huts egiten duenean, babes-aginduaren izapidetza prozeduran eragin negatibo garrantzitsua izango du. Horregatik, polizia espezializatu eta formatu gehiago beharrezkoak dira, aurrera pausuk egin arren, entitate hauetan genero-ikuspegia eta formakuntza eskasa izaten jarraitzen duelako<sup>62</sup>.

## 2. Entzunaldiaren fasea

Behin babes-aginduaren eskaera eginda, PKL-ren 554 *ter* 4. artikulua alderdiak entzuteko presazko entzunaldia aurreikusten du. Hala ere, entzunaldiaren garapenari dagokionez, legeak azalpen laburra ematen du, bi aipamen orokor besterik ez ditu egiten. Batetik, entzunaldia burutzeko epe zorrotza dago, hots, 72 ordu. Zehatzago esanda, legitimatutako pertsonak babes-aginduaren eskaera egiten duen unean bertan 72 orduko epea zenbatzen hasiko da, eskaera egin den organoa edozein delarik. Legegilearen helburua entzunaldia ahalik eta azkarren egitea da. Bestetik, epaileak entzunaldian biktimaren eta ikertuaren arteko konfrontazioa ekiditeko neurriak hartu behar ditu. Gainera, legeak, epaitegian burutu beharreko babes horren barne, seme-alabak eta familiako kideak ere hartzen ditu. Horrela, biktimak, ikertuak eta lekukoek ez dute aldi berean eta aurrez aurre deklaratu beharko<sup>63</sup>.

### 2.1. Epaitegian biktima babesteko baliabide eskasak

Azken aipamen honetan zentratuz, epaitegian biktima babestuta egotea funtsezkoa da. Hots, biktimaren inguruabar bereziak kontuan hartuz, erasotzailearen

---

[https://www.emakunde.euskadi.eus/violencia\\_evaluacion\\_informes](https://www.emakunde.euskadi.eus/violencia_evaluacion_informes) [azken kontsulta: 2022/05/07]. Gai honi buruz, FERNÁNDEZ CUCÓ, JAVIER ÓSCAR, “La valoración del riesgo: La situación de las víctimas a lo largo del proceso judicial. Víctimas especialmente vulnerables: mujeres inmigrantes”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020, 229. or.

<sup>62</sup> Honi dagokionez, Senatuan Estatu-Ituna prestatzeko egindako txostenetan, GISBERT GRIFO-k (Valentziako Probintzia Fiskaltzako fiskal bozeramailea eta Emakumeen aurkako Indarkeriaren Ataleko fiskala) salaketa interesgarria egin zuen, bestelako adituek berretsi zutena: “*Se observa una falta de especialización de las Fuerzas y Cuerpos de Seguridad del Estado en relación con la problemática de la VG. Por su propia naturaleza, ésta requiere un trato diferenciado que se traduzca en una formación inicial y continuada de las FCSE*”. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 11. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>63</sup> CUENCA RUIZ, ANA-ren esanetan, babes-aginduen inguruan erabakitzeke entzunaldia, praktika judizialean, behin-behineko espetxea erabakitzeke entzunaldiaren antzerakoa da. Hala, entzunaldian bertan edo epe laburrean praktikatu daitezkeen frogak aurkeztu ahal izango dira; adibidez, lekuko adierazpenak, forentsearen txostena, alderdiek aurkez ditzaketen dokumentuak... Azken batean, froga horiek, babes-agindua onartzeko bi baldintzak betetzen diren ala ez erabakitzeke garrantzia izango dute. *Op. cit.*, 2011-213. or.

presentziak biktimarengan deklarazioa egiteko beldurra eta urduritasuna sor dezake, beraz, egoera hori saihesteko xedearekin, epaitegia egoki prestatuta egon behar da.

Horretarako, EAIE-etan biktimentzako gela berezi batzuk daude, biktima eta erasotzailea aurrez-aurre topa ez daitezten. Hau da, epaitegietan emakumeari ematen zaion babeserako gela txiki batean ezkutatzeko datza, erasotzaileak epaitegiko instalazioetatik askatasunez mugitzeko aukera duen bitartean. Biktimek orduak eta orduak ematen dituzte epaitegietan, beraz, azpiegitura beren inguruabarretara egokituta egotea ezinbestekoa da. Lehenik, itxarongelak handiagoak izan beharko lirateke, izan ere, genero-indarkeriaren biktima guztiak, haren senideak eta abokatuak gela txiki horretan egoten dira, eta ez dute espazio pertsonala izateko aukerarik. Bigarrenik, beren abokatuekin pribatuan hitz egiteko aparteko lekuak beharrezkoak dira, lasaitasunez entzunaldia prestatzeko. Hirugarrenik, askotan emakumeak epaitegira seme-alabekin joaten direla kontuan hartuta, adingabeentzako baliabide gehiago beharrezkoak izango lirateke, hala nola, haurrentzako aldagailuak, jostailuak etab. Laugarrenik, pertsona orok dituen oinarrizko beharrak asetzeko baliabideak ezinbestekoak dira, esaterako, biktimek erasotzailearekin partekatzen ez duen komuna izatea<sup>64</sup>.

Nahiz eta epaitegietan biktimari ematen zaion babesari dagokionez, azken urteetan, aurrerapenak egin diren, oraindik instalazioak egokiak ez direla esan dezakegu, biktima erabat babesteko prestatuta ez baitaude, eta baliabide gehiago beharrezkoak baitira. Hortaz, instituzio judizialen partetik, biktimaren babeserako zereginetan gabeziak agerian daude, eta horrek, epaitegietako instalazioetan berehalako erreformak egiteko aldarrikapenak sortzen ditu<sup>65</sup>.

## 2.2. Organo eskudun aldakorra

Babes-agindua erabakiko duen organo eskuduna zein den jakiteko, eskuduntza objektiboa eta lurralde-eskuduntza aztertu beharra dugu. Lehenengo, lurralde eskuduntzari dagokionez, PKL-ko 15 bis. artikulua arabera<sup>66</sup>, genero-indarkeria delituen instrukzioa egiteko lurralde-eskuduntza, biktimaren bizilekuko Epaitegiek dute. Artikulu honek bi salbuespen aurreikusten ditu: batetik, babes-agindua eta bestetik, PKL-

---

<sup>64</sup> Bilboko Zigor eta Instrukzio Fiskaltzan egindako praktketan, EAIE-n biktimentzat prestatuta dauden gelan egoteko aukera izan dut eta, esan dezaket, aurrera pausoak egin arren, instalazioak hobetzeke daudela, hau da, gela txiki bat da aulkiz beteta dagoena eta haurrentzako jostailuak ditu, besterik ez.

<sup>65</sup> EAE-n, Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politikako Sailak Emakumeen aurkako Indarkeria arloko Epaitegietan dauden biktimentzako itxarongelak eraberritzeko proiektu bat jarri du martxan. Hobekuntza-obrekin asmoa da, gelaren azalera handitzea, biktimek deklarazioa egiteko gela ezberdinak egitea, eta komunak, haurren aldagailuak, jolas-gunea eta kafe-makina jartzea; horrekin batera, segurtasuna areagotzeko izuaren txirrina eta interfonoak jarriko dituzte. Bilboko Emakumeen aurkako Indarkeria arloko Epaitegian, aldaketak 2022an egiteko aurreikusita daude. EUSKO JAURLARITZAKO BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKAKO SAILA, *Epaitegietan genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako itxarongelak berritzeko prozesuaren bilakaera*, 2021. Eskuragarri: <https://www.irekia.euskadi.eus/eu/news/los-juzgados> [azken kontsulta: 2022/05/07].

<sup>66</sup> PKL-ko 15 bis. artikulua: “Emakumearen aurkako indarkeria-epaileari badagokio zenbait delituen instrukzioa edo horien gaineko ardurazko izatea, lurralde-eskumena zehaztuko da biktimak duen egoitzaren arabera; horri kalterik egin gabe, egitateak zein tokitan gertatu eta toki horretako epaileak babes-agindua eman dezake edo lege honen 13. artikulua arabera presako neurriak har ditzake”.

ko 13. artikuluan aurreikusten diren presazko neurrien kasuak<sup>67</sup>. Horrez gain, lurralde-eskuduntza zalantzan egotekotan, denbora galtzea ekiditeko eta biktimari berehalako babesa emateko, babes-agindua aurkeztu den organoaren aurrean egikarrituko da, ostean, benetan eskuduna den organoari jarduketak helaraziz (PKL 544 *ter* 3. art.).

Bigarrenik, babes-aginduak dituen gabezietan mamitsua den gaiari helduko diogu, eskuduntza objektiboari, alegia. Arazo nagusia hau da: organo eskuduna aldakorra da. Hau da, genero-indarkerian babes-agindua erabakitzeko organo eskuduna EAIE da, baina, entzunaldi orduetatik kanpo dagoenean, GE izango da eskuduna. Beraz, babes-aginduak ez dituzte beti genero-indarkerian espezializatutako epaitegiek erabakiko<sup>68</sup>.

1/2004 LO-ak Emakumeen aurkako Indarkeria arloko Epaitegiak sortu zituen, eta babes-aginduen inguruan erabakitzeko eskumena esleitu zien<sup>69</sup>. Alabaina, kontuan hartu beharko litzateke, barruti judizial batzuetan, oraindik ez dagoela EAIE-rik eta ondorioz, Instrukzio Epaitegi batek edo Lehen auzialdiko Epaitegi batek eginkizunak bere gain hartzen dituela, eskusiboki edo modu partekatuan; hots, epaitegiko gainerako eginkizunak egiteari utzi gabe eta, jakina, dagozkion guardiak betetzeari utzi gabe. Oro har, barruti judizial horietan tratatuak diren emakumeen segurtasuna eta babesa, formakuntza minimoa ez duen epaile baten esku dago<sup>70</sup>. Horrekin batera, hasieran esan bezala, prozesua arintzeko helburuarekin, legegileak erabaki zuen, subsidiarioki, eskuduntza Guardian dagoen Instrukzio Epaitegiari esleitzea. Helburua alferrikako itxaronaldiak ekiditzea izan arren, biktimarentzat desabantaila izaten amaitu da. Hots, GE-ko epailea ez da genero-indarkerian aditua, ez du prestakuntza egokirik ezta behar den motibaziorik ere. Horrek, eragin negatiboa du biktimarengan, sistema judizialarekiko mesfidantza sentiaraztea eragin ahal duelako<sup>71</sup>. Arazo honi erantzuna emateko, baliabide ekonomikoak bideratu beharko lirateke barruti judizial guztietan EAIE-k egoteko eta hauetan genero-indarkerian espezializatutako epaileen guardia-zerbitzuak lortzeko<sup>72</sup>.

---

<sup>67</sup> PKL-ko 13. artikulua: “*Lehenengo eginbidetzat jotzen dira desager daitezkeen delitu-frogak gordetzea; delitua egiaztatzea eta delitugilea identifikatzea ahalbidetzen duen guztia jaso eta jagotea; hala denean, delituaren ustezko erantzuleak atxilotzea; eta delituaren ondoriozko ofendituak edo kaltetunak, horien familiakoak nahiz beste pertsona batzuk babestea. Ondore horretarako lege honen 544 bis artikuluan ezarritako kautela-neurriak edo 544 *ter* artikuluan jasotako babes-agindua erabaki daitezke*”.

<sup>68</sup> Adibide bat jartzearen, genero-indarkeriaren biktimak Ertzaintzan babes-aginduen eskaera ostiral gauean egiten badu, genero-indarkerian espezializatuta ez dagoen GE-k erabakiko du babes-agindua onartu ala ez; beraz, babes-agindua eskatzen den asteko egunaren edo orduaren arabera, babes-agindua egikaritzeko organo eskuduna ezberdina izango da.

<sup>69</sup> 1/2004 LO-k EAIE-ei babes-agindua erabakitzeko eskuduntza esleitu arren, PKL-ren 544 *ter* artikulua hitzez hitz dioena berariaz ez zuen aldatu eta Instrukzio Epaitegia organo eskudun gisa agertzen da, hala ere, xedapen gehigarri berri bat gehitu zuen, zehazki, 4. xedapen gehigarria, non EAIE-ei berariaz esleitu zien genero-indarkeria kasuetan babes-agindua emateko eskumena. Horrela azaltzen du, GONZÁLEZ SÁNCHEZ, JULIÁN ÁNGEL, *op. cit.*, 204. or.

<sup>70</sup> Iritzi honetakoa, ARROM LOSCOS, ROSA, *op. cit.*, 76-77. or.

<sup>71</sup> RUBIO CASTRO, ANA MARÍA, “Inaplicabilidad e ineficacia del derecho en la Violencia contra las mujeres: un conflicto de valores”, RUBIO CASTRO, ANA MARÍA (Koor.), *Análisis jurídico de la violencia contra las mujeres: Guía de argumentación para Operadores Jurídicos*, Instituto Andaluz de la Mujer, Sevilla, 2004, 56-57. or. Iritzi bereberkoa da, DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM, *op. cit.*, 274-275. or.

<sup>72</sup> Aldarrikapen hau Senatuan Estatu-Ituna prestatzeko egindako txostenean FERNÁNDEZ DOYAGUE-k egindako proposamenarekin bat dator. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la*



Aitzitik, PKL-ko 55 *ter* 11. artikulua aurreikusten duenez, abian den zigor-arloko prozedura bat izapidetzen ari den bitartean, biktimarentzat arrisku-egoera bat sortzen bada, auziaren ardura duen epaile edo auzitegiak biktima babesteko agindua eman ahal izango du. Hortaz, artikulua hau oinarri izanik, SÁNCHEZ GONZÁLEZ-en ustez, GE-k emandako babes-aginduaren edukia, gerora, eskumena duen EAIE-k aldatzeko aukera dago, bai eta ukatua izandako babes-agindu bat ofizioz egikaritzeko ere<sup>73</sup>. Horretarako, lehen adierazi dugun moduan, epailearen parte hartze aktiboa beharrezkoa da; hots, epaile eskudunak GE-ek ebatzitako kasuak berrikusi beharko lituzke eta beharrezkoa denean, ikerketa eginbideak eskatu. Hortaz, berriro ere esan dezakegu, epailearen jarrera pasiboak biktimaren babesgabezia eragingo duela.

Argi geratzen denez, organo eskudunari dagokionez, biktima diren emakume guztiak ez dute hasieratik babes-agindua epaitegi espezializatu batek erabakitzeko aukera izango. Horri batu behar zaio, EAIE-ko epailearen jarrera pasiboak biktimarengan sor dezakeen babesgabezia.

### 2.3. Entzunaldira deituak ez agertzeak dakartzan ondorioak eta arazoak

PKL-ren 544 *ter* 3. artikuluari jarraiki, entzunaldira etor daitezten deituko dira, biktima edo bere legezko ordezkaria, babes-aginduaren eskaera egin duen pertsona (biktima ez denean), ikertua, bere abokatua, eta azkenik, Fiskala. Arazoa alderdietako bat entzunaldian agertzen ez denean emango da. Hala, biktima edo ikertua entzunaldian ez agertzeak ondorio ezberdinak ekarriko ditu.

Batetik, biktima agertzen ez bada, entzunaldia ez da derrigorrez bertan behera geratu behar. Hala ere, gehienetan, biktimaren deklarazioa delituen zantzuak oinarritzeko elementu bakarra izanik, horren faltan, babes-aginduak ukatu egiten dira. Hala ere, biktima agertu gabe, babes-agindua onartzeko aukera dago, esaterako, lekuko bat dagoenean edo egitateak ikusten diren bideo bat dagoenean. Kasu horietan, ezingo dira neurri zibilak hartu, alderdi baten eskaria beharrezkoa baita, salbu eta biktimak seme-alabak baditu<sup>74</sup>. Bestetik, ikertua agertzen ez bada, eta egoki deituta ez badago, entzunaldia bertan behera geldituko da eta berriro deitu egingo zaio. Aldiz, ikertua agertzen ez bada eta egoki deituta badago (bere abokatua agertu behar da), entzunaldia ez da bertan behera geldituko, eta epaileak baldintzak ematen direla uste izatekotan, babes-agindua egikaritu ahal izango du. Epaileak ikertua entzun gabe babes-agindua onartzen duenean, ez ginatke berme prozesalen urraketa baten aurrean egongo, kontraesan-printzipioa bete egin delako, ikertuak entzuna izateko eta bere burua

---

*ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 23. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>73</sup> SÁNCHEZ GONZÁLEZ, ÁLVARO, *op. cit.*, 414. or. Ildo berean, ARROM LOSCOS, ROSA, *op. cit.*, 80. or.

<sup>74</sup> TORRES REVIRIEGO, MARIA ROSARIO, “La orden de protección para víctimas de violencia de género”, NIETO-MORALES, CONCEPCIÓN (Zuz.), *La crisis en las familias, infancia y juventud en el siglo XXI*, Dykinson, Madril, 2015, 126-127. or.; ideia berbera adierazten du: CHARCO GÓMEZ, MARÍA LUZ, “La orden de protección para las víctimas de la violencia doméstica”, *Los juicios rápidos. Orden de Protección: análisis y balance*, Centro de Documentación Judicial, Madril, 2005, 198. or.

defendatzeko aukera izan baitu. Oro har, entzunaldian biktima soilik deklaratu arren, babes-agindua onartu ahal izango da, horretarako baldintzak betetzen badira<sup>75</sup>.

Hala ere, praktikan, EAIE -etan edo GE-etan, ikertua agertzen ez den kasuetan, ohikoa da epaileak urruntze-agindua (PKL 544 bis art.) erabakitzea, eta babes-agindua ukatzea, bere erabakia ikertuaren ez agertzean oinarrituz<sup>76</sup>. Honi dagokionez, horrela argudiatu zuen Valladolideko PAA 21/2022, 2022ko urtarrilaren 13an, 1. OJ: *“Ciertamente no es lo mismo una orden de protección que las medidas contempladas en el artículo 544 bis de la LECRim., que sí pueden ser acordadas de oficio por el Juez inaudita parte. [...] Lo que ocurre es que lo que aquí se solicitó fue una orden de protección, en los términos contemplados en el artículo 544 ter de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, y la misma no podía ser acordada inaudita parte, sin haberse dado la oportunidad al denunciado de oír su versión”*. Beraz, ikertuaren ausentziaren ondorioz, PKL-ren 544 bis. artikulua aurreikusten dituen kautela-neurriak soilik hartuko dira, biktimarengana hurbiltzeko eta berarekin komunikatzeko debekuak, alegia<sup>77</sup>.

Gauzak horrela, DE LA TORRE OLIVER-ren iritziz, egoki deituta dagoen ikertua entzunaldian ez agertzea ezin da eragozpena izan babes-agindu bat onartzeko. Hala, urruntze-agindua soilik erabakitzeak, biktimarengan desbantailak sortzen ditu, neurri zibilen inguruko arazoak ezin baitira berehala konpondu, emakumearen zaintzapean dauden adingabeak edo ezgaiak dauden kasuak izan ezik<sup>78</sup>. Are gehiago, biktimak asistentziazko neurriak jasotzeko zailtasunak izango ditu, genero-indarkeria biktima gisa aitortzeko bide zuzena eta arina babes-aginduaren onarpena baita.

Hortaz, argi dago, ikertua entzunaldian ez agertzeak sistema judizialak biktimari eskaintzen dion babesean eragin negatiboa izango duela; izan ere, egoera honek emakumeak babes integrala jasotzeko aukera eragozten du, neurri zibilak kanpo utziz eta neurri asistentzialak jasotzeko zailtasunak sortuz.

### 3. Ebazpenaren fasea: babes-aginduen urraketa ugariak

Entzunaldia egin ondoren, epaile eskudunak auto bidez babes-aginduaren eskaeraren onarpena ala ukapena ebatziko du; onartzekotan, ebazpenean bertan neurrien edukia eta indarraldia ezarriko ditu. Epailearen erabakia edozein delarik, alderdi guztiei autoa jakinarazi beharko zaie, eta babes-agindua onartua izatekotan, Justizia Administrazioaren Letratuak jakinarazpenak premiaz egin beharko ditu<sup>79</sup>; halaber,

<sup>75</sup> ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIA, *Circular 3/2003, de 18 de diciembre, sobre algunas cuestiones procesales relacionadas con la orden de protección*, 2003, 7-8. or. Eskuragarri: <https://www.boe.es/FIS-C-2003> [azken kontsulta: 2022/05/07]

<sup>76</sup> Esaterako, 2021eko maiatzaren 4ko Zaragozako Emakumearen aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiaren 472/2021 autoa: *“Se ha tomado declaración a la parte denunciante y se ha resuelto la orden de protección solicitada en base al artículo 544 bis LECrim ante la ausencia de la parte denunciada”*.

<sup>77</sup> MÚRTULA LAFUENTE, VIRGINIA, “Las medidas que se pueden adoptar o no en una orden de protección y su vigencia temporal”, *La competencia judicial para adoptar medidas civiles que afecten a los hijos en los casos de violencia de género*, Dykinson, Madril, 2016, 55. or.

<sup>78</sup> DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM, *op. cit.*, 276-277. or.

<sup>79</sup> Jakinarazpenari dagokionez, lehenik, biktimari eta Administrazio Publikoari jakinarazi beharko zaie (PKL 544 ter 8 artikulua). Administrazio Publikoari jakinaraztea funtsezkoa izango da, horrela, biktimak bere

onartutako babes-agindua Etxeko Indarkeriaren eta Genero-Indarkeriaren Biktimak Babesteko Erregistro Nagusian inskribatuko da (PKL 544 *ter* 10. art.)<sup>80</sup>.

Fase honetan, instituzioen arteko koordinazioa bereziki inportantea izango da, babes-aginduen betereazpena ziurtatzeko, hots, epailearen ebazpena jakinarazpena, neurrien betearazpenaren kontrola, eta biktima prozesu osoan zehar informatzea. Izan ere, Espainiako Estatuan, genero-indarkeriaren biktimen alde onartutako babes-aginduen urraketan zenbatekoak kezka sortzen ditu, babes-aginduen urraketa ugariak tresna juridiko honen emakumeak babesteko eraginkortasuna kolokan jartzen baitute. 2020an, Zigor arloko Epaitegietan, babes-aginduaren baitan ezarritako neurri penalen 385 urraketa eta neurri zibilen 2 urraketa ebatzi dira. Halaber, PA-en eskutik 31 babes-aginduren urraketa ezagutu dira<sup>81</sup>.

Babes-agindua indarrean egoteak, ikertuak kautela-neurri penalak zein behin-behineko neurri zibilak bete behar izatea dakar berekin, eta neurrien urraketa delitutzat jotzen da, zera da, epaileak ezarritako kautelazko neurriak ez betetzeak erantzukizun penala eragiten du. Hain zuzen ere, kautela-neurri penalak urratzeak ZK-ren 468.2. artikuluan zigortzen den delitua osatzen du. Eta neurri zibilen urraketak, esaterako, pentsioa ez ordaintzea edo bisita erregimena ez betetzea, pentsioa ez ordaintzeagatiko delitua (ZK-ren 227. artikulua) eta familia abandonatzeagatiko delitua osatzen dute hurrenez hurren (ZK-ren 226. artikulua)<sup>82</sup>.

Egia da, zenbaitetan babes-aginduaren urraketak biktimaren baimenaz ematen direla, hots, biktimak horrela baimendu izanagatik ikertuak biktimari hurbiltzeko edota berarekin komunikatzeko debekua urratzea. Honako egoeretan eztabaidan egon da ikertuari erantzukizun penalik galdatu beharko litziokkeen ala ez. Jurisprudentziak gai honen inguruan, erantzun ezberdinak eman dituen arren<sup>83</sup>, gaur egun, jurisprudenzia

---

Autonomia-Erkidegoko koordinazio-guneetan babes- eta segurtasun-neurriak edo laguntza sozial, juridiko, sanitario eta psikologikoak bere esku izango ditu. Bigarrenik, ikertuari ebazpena formalki jakinarazi beharko zaio, ez bakarrik biktimaren segurtasunaren berme gisa, baita erasotzaileak babes-aginduaren berri duela bermatzeko, ez-betetze batek ekar diezaiokkeen ondorio penalei begira. Hortaz gain, PKL-ko 544 *ter* artikuluko 9. atalaren arabera, biktimari ebazpena jakinarazteaz gain, prozesu osoan zehar informatu beharko zaio. Hau da, biktimak ikertuaren egoera prozesalari eta hartutako kautela-neurrien irismen eta indarrialdiari buruzko etengabeko informazioa jaso beharko du. Ondorioz, prozesuko edozein aldaketaren berri emango zaio; zehazki, erasotzailearen espetxe-egoerari buruzko informazio zehatza jakinarazteko betebeharra dago. PÉREZ GÓMEZ, ROCÍO, “La orden de protección”, *Revista de Derecho vLex*, 136. zk., 2015, 4. or.

<sup>80</sup> Erregistro berezi bat da, estatu-mailakoa, eta bertan inskribatuko dira bai epaian ezarritako zigorrak, bai segurtasun-neurriak, bai auzia izapidetzean erabakitako kautela-neurriak eta babes-aginduak. Erregistro horri esker, zigor-arloko kausak eta kausa zibilak izapidetzeko beharrezkoa den informazioa lortzen laguntzen da, eta horien jarraipena egiteko aukera ematen da.

<sup>81</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, *Boletín de Información Estadística N°80: Quince años de la Ley Orgánica 1/2004*, 2021, 43. or. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/Estadistica-Judicial> [azken kontsulta: 2022/05/07].

<sup>82</sup> SÁNCHEZ GONZÁLEZ, ÁLVARO, *op. cit.*, 416. or.

<sup>83</sup> Lehenengo, 2005ko irailaren 26ko AGE 1156/2005, 5. OJ, urruntzeko kautela-neurria urratu zuena erantzukizunetik salbuetsi zuen, neurri horrek babesten zuen emakumearekin bizikidetzat berrituz ekiteak neurria justifikatzen zuten arrazoiak desagertu baitzituen. Ostean, 2007ko irailaren 28ko AGE 775/2007, 1. OJ, kautela-neurria ez betetzea Administrazio Publikoaren aurkako delitu bat zela adierazi zuen, babestutako ondasun juridikoa (ebazpenei aitortzen zaien aginte-printzipioa) ezin baita indargabetu babestutako pertsonaren baimena dela eta.

erabat bateratua da. Izan ere, 2008ko urtarrilaren 25ean, AG-ren 2. Salaren osoko bilkura ez-jurisdikzionalak adierazitakoari jarraiki, “biktimaren baimenak ez du kautela-neurria urratzeagatiko erantzukizun penala ezabatzen”. Hitz gutxitan esanda, biktimaren baimenak ez du delitua bera indargabetzen. Ikertuak babes-agindua zintzo bete beharko du Justizia Administrazioaren aurkako delitua leporatu ez dakion.

Beraz, honek guztiak, agerian uzten du genero-indarkeria ez dela babes-agindua onartzen den momentuan amaitzen, ondorioz, babes-aginduak biktima babesteko helburua betetzen duen kolokan jartzen du<sup>84</sup>. Horregatik, azken fase honetan ezinbestekoa da instituzioen arteko koordinazioa; hau da, organo judizialek, Segurtasun-Indar eta -Kidegoen, eta biktima laguntzeko bulegoa elkarlanean egon behar dute, biktimaren babesa posible izan dadin.

Instituzioen arteko koordinazioaz gain, Estatuaren arteko harremanak ere funtsezkoak izango dira biktima babestera begira. Hots, EB-ean, Europako babes-agindua daukagu, eta honi esker, beste estatu kide batera doan biktima batek bere jatorrizko estatu-kidean duen babesa helmugako estatuan mantendu ahal izango du<sup>85</sup>. Horrela, esan dezakegu, Europar Batasunak aurrera pauso handia eman duela genero-indarkeriaren kontrako borrokan<sup>86</sup>.

---

<sup>84</sup> Genero-indarkeriaren biktima izan zen EDIGUREN MARURI-k, egindako elkarrizketan, bere esperientzia pertsonala azaltzen duenean, argi eta garbi, adierazten du, babes-agindua indarrean egon arren, bere bikote ohiak etengabe hau urratzen zuela, hots, bere etxera hurbiltzen eta taberna berdinetan sartzen zela, inolako oztoporik gabe. Azkenik, esanguratsua den esaldi hau bota zuen: “*Babes-aginduak ez nau momentu oro babestu*”. EDIGUREN MARURI, MAITE, 6. Eranskina: Biktimaren elkarrizketa, 87. or.

<sup>85</sup> 2011ko abenduaren 13an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluren 2011/99/EB Zuzentaraua indarrean sartu zen, prozesu penaletan emandako Europako babes-aginduari buruzkoa zena. Ondorioz, Espainiako Estatuan, 23/2014 Legearen, Europar Batasunean zigor-arloko ebazpenak elkarri aitortzeakoaren, 130. artikuluan Europako babes-agindua arautu egin zen. Espainiako prozesu penaleko babes-aginduarekin alderatuta, Europako babes-agindua ez da genero-indarkeriaren edo etxeko indarkeriaren eremura mugatzen; aitzitik, mota guztietako biktimei aplikatu dakieke, bizitza, osotasun fisikoa edo psikologikoa, duintasuna, askatasun indibiduala edo osotasun sexuala arriskuan jar dezaketen delituen biktimei, alegia. BURGOS LADRÓN DE GUEVARA, JUAN, “La orden de protección europea: analogías y diferencias con la orden de protección del proceso penal español”, *Diario La Ley*, 8022. zk., 2013, 2-3. or.

<sup>86</sup> MARTÍNEZ GARCÍA, ELENA-ren aburuz, babeserako tresna honek genero-indarkeriaren aurkako borrokan ondorio onuragarriak izango ditu, zeharka bada ere. Hau da, Europako babes-aginduari esker, genero-indarkeriaren existentzia ukatzen den edo lege-ekimen eskasa duten herrialdeek, biktima atzerritarra babestera behartuta egongo dira. Ondorioz, biktimen arteko tratu-desberdintasunak genero-berdintasunaren aldeko eta genero-indarkeriaren kontrako errebindikazio-mugimenduak sustatzea ekarriko du, etorkizunean ordenamendu juridiko nazionalen aldaketa garrantzitsuak emango direlarik. “La orden europea de protección de víctimas: ¿El primer paso para homogeneizar Europa en materia de violencia de género?”, *Seminario internacional contra la violencia de género*, Universitat Jaume I, Fundación Insonomia, Castelló de la Plana, 2016, 163. or.

### III. BABES-AGINDUAREN EDUKIAREN ERAGINKORTASUNA EZBAIAN

Hasieran esan bezala, babeserako tresna juridiko honek izaera ezberdineko neurriak jasotzen ditu: kautela-neurri penalak, behin-behineko neurri zibilak eta asistentzia neurriak. Hots, 1/2004 LO-n, PKL-n eta Kode Zibilean berariaz aurreikusita daudenak. Dударik gabe, babes-aginduaren edukia zabala da, baina, neurri hauen azterketari ekingo zaio biktimak benetan babesteko eraginkorrak diren ezagutze aldera.

#### 1. Izaera penaleko neurriak

Izaera penaleko neurriei dagokionez, babes-agindua berariaz arautu zuen 27/2003 Legeak ez zituen neurri penalei dagokienean inolako berrikuntzarik jaso, Espainiako ordenamenduan jada egon bazeuden izaera penaleko neurriak bakarrik jaso zituen (PKL-n eta 1/2004 LO-n aurreikusita zeuden neurriak). Gauzak horrela, indarrean dauden neurri penalak hauexek dira<sup>87</sup>: lehenik, behin-behineko espetxealdia, behin-behineko askatasuna, fidantzarekin edo gabe, eta atxiloketa; bigarrenik, leku, auzo, herri, probintzia edo Autonomia Erkidego zehatz batean bizitzeko edo bertara joateko debekua; hirugarrenik, biktimari hurbiltzeko edo biktimarekin harremanetan jartzeko debekua; laugarrenik, etxebizitzatik irteteko agindua; azkenik, armak edukitzeko eta erabiltzeko eskubidearen etetea.

#### 1.1. Hurbiltzeko debekuak: biktima babesteko helburu zalantzarria

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeria eta Genero-Indarkeriaren Aurkako Behatokiaren arabera, 2021an, guztira eman ziren babes-aginduetatik 45.406k izaera penaleko neurriak jasotzen zituzten. Gehienak hurbiltzeko debekuak eta komunikatzeko debekuak izan ziren, %39,96a eta %38a hurrenez hurren<sup>88</sup>. Epailleek honako neurriak hain maiz hartzeak, emakumeen babeserako neurri egokientzat jotzen direnaren itxura ematen du. Baina, benetan al dira diruditen bezain eraginkorrak?

Hurbiltzeko eta komunikatzeko debekuek arazoak sortzen dituzte emakumeen babesaz ari garenean, eta gainera biktimentzako ardura-karga itzela suposa dezakeen neurria da. Lehenik, babes-aginduen jarraipenaz arduratzen diren Segurtasun- eta Indar-Kidegoen eginkizunak akatsak ditu. Poliziaren eginkizuna erasotzailea biktimarengana hurbiltzen ez dela ziurtatzean datza, hots, prebentzio-jarduerak egiten dituzte, besteak beste, biktimei sarritan telefono pertsonalera deitu edo biktimaren eta/edo erasotzailearen etxebizitzan noizean behinka agertu<sup>89</sup>. Baina, zoritzarrez, FERNÁNDEZ GARCÍA

<sup>87</sup> Horrela azaltzen du, VALIÑO CES, ALMUDENA-k, *op. cit.*, 11. or.

<sup>88</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ETXeko INDARKERIA ETA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIA, *Violencia sobre la mujer/Juzgados por partido judicial 2021, 2022*. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/Anual-2021> [azken kontsulta: 2022/05/05].

<sup>89</sup> Honen harira, DÍAZ SERRANO, CLAUDIO, “La actuación policial en los delitos de violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009, 396. or.

Ertzainak salatu duen gisan, kontrola erabat pertsonalizatua izateko, giza-baliabideak, baliabide ekonomikoak eta materialak falta dira<sup>90</sup>. Hortaz gain, hurbiltetaren debekuaren kontrolan funtzioen genero-ikuspegi falta ere agerian gelditzen da, eta hau neurri honen eraginkortasun eskasaren arazo gisa ere har dezakegu<sup>91</sup>.

Bigarrenik, hurbiltzeko debekuaren neurriak biktimarengan pisu handia jartzen du<sup>92</sup>. Izan ere, neurri penal honen betearazpenaren erantzukizun osoa biktimaren gain uzten da; hala nola, biktima da, erasotzaileak agindua betetzen ez duenean, poliziari deituko diona edo bizkartzaina eraman behar izango duena. Berez, Segurtasun-Indar eta -Kidegoek babes-aginduaren neurrien jarraipena egiteko burutzen duten kontrol-lana biktimarekin lotuta dagoela esan dezakegu. FERNÁNDEZ GARCÍA ertzainak esan bezala, arazo hau saihestu egingo litzateke, baldin eta hurbiltzeko debekuaren kontrola zuzenean erasotzailearen gainean egingo balute. Baina, ertzainak berak adierazi duen moduan, ez dago baliabide nahikorik horretarako, erasotzaileak kontrola eraginkorra izan dadin laguntzarik ematen ez duen heinean<sup>93</sup>.

## 1.2. Sustatu beharreko lokalizazio-sistema telematikoa

Espainiako ordenamendu juridikoan lokalizazio-sistema telematikoa aplikatzeko aukera jasotzen da<sup>94</sup>. Sistema honen bidez, Estatuko Segurtasun-Indar eta -Kidegoetako agenteek erasotzailea eta biktima non dauden kontrola dezakete eta babes-aginduen betetzeak ematen direnean erreakzionatu dezakete. Baina, esan genezake tresna honen eraginkortasuna eta egokitasuna ez direla ziurrak, batetik, kasu gutxitan ezartzen den neurria delako, eta bestetik, biktimari arazoak eragiten dizkiolako.

2017ko Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu-Ituna sortzeko Kongresuan egindako txostenean, hainbatetan, GPS bidezko eskumuturreko elektronikoen erabilera

---

<sup>90</sup> FERNÁNDEZ GARCÍA-k, babes-aginduen jarraipenaren inguruko bi arazo nagusi aipatzen ditu. Alde batetik, bere ustez, kasu guztiak kontrolpean izatea eta biktimei tratu pertsonalizatua ematen saiatu arren, ez da bideragarria, ertzain bat aldi berean 90 kasuz arduratu behar baita. Bestetik, prozesu osoan parte hartzen duten agenteen koordinazioaren beharra azpimarratzen du, izan ere, bere esperientzian oinarrituta, bai biktimak bai erasotzaileak babes-aginduaren esanahiaren eta ondorioen inguruan duten ezjakintasanak urraketa ugari eragiten dituela uste du. FERNÁNDEZ GARCÍA, AINARA, 2. Eranskina: Ertzainaren elkarrizketa, 67. or.

<sup>91</sup> Azpimarragarria da, EDIGUREN MARURI biktimak Segurtasun-Indar eta -Kidegoen aurrean izandako tratua, genero-indarkerian espezializazio eza erakusten duena: *“Ertzain bat zegoen nire kasuaren arduradun; deiak egiten zituen nire egoeraz jakiteko, baina nik ez nuen suertetik izan. Ertzain honek esan zidan, ni nagoen plaza berdinean bera egon zitekeela, ez egoteko bera bilatzen eta bere atzetik, eta bera dagoela ikustekotan, handik joateko. Takto berezia eta enpatia falta nabaria zen”*. EDIGUREN MARURI, MAITE, 6. Eranskina: Biktimaren elkarrizketa, 87. or.

<sup>92</sup> Genero-indarkeriaren biktima izandako EDIGUREN MARURI-k bere esperientziaren inguruko kontaketatik ondoriozta dezakegu hurbiltzeko debekuaren gaineko erantzukizuna bere gain jarri zela; hona hemen bere elkarrizketaren zati interesgarri bat: *“Behin, bazkari bat nuen kuadrillakoekin, jesarrita egon, eta handik lagun talde osoa alde egin behar izan, bera tabernan sartu zelako. [...] Nire etxe aurretik pasatzen jarraitu zuen, kaletik topatzen baginen, ez zen espaloiaz ere aldatzen”*. EDIGUREN MARURI, MAITE, 6. Eranskina: Biktimaren elkarrizketa, 87. or.

<sup>93</sup> FERNÁNDEZ GARCÍA, AINARA, 2. Eranskina: Ertzainaren elkarrizketa, 68. or.

<sup>94</sup> Lokalizazio-sistema telematikoa 1/2004 LO-ren 64. artikuluan dago aurreikusita.

eskasa eta gailuen berrikuntza salatu zen<sup>95</sup>. Eta neurriaren egokitasunari dagokionez, FERNÁNDEZ GARCÍA ertzainak, eguneroko praktikan ikusten dituen eta arazoz bete dagoen lokalizazio-sistema dela salatzen du, gailu askok huts egitea ez ezik, emakumearengan kontrolaren zama uzten duelako; izan ere, azpimarratzen du gailu telematikoaren alerta unean emakume gehienak urduri jartzen direla, bere segurtasunaren beldur direla eta antsietate handia jasaten dutela<sup>96</sup>.

Amaitzeko, nire aburuz, neurri penalen jarraipena eta kontrola erasotzailearen gainean egin beharko litzateke, emakumeak bere bizitza arrunta aurrera eramateko aukera izan dezan. Horretarako, genero-indarkerian espezializatutako Segurtasun-Indar eta -Kidegoen taldeak baliabidez hornitu beharko lirateke, baita kontrola burutzeko tresneria berri ere.

## **2. Izaera zibileko neurriak: EAE-ko Familia Harremanei buruzko 7/2015 Legeari aipamen berezia**

Babes-aginduarekin batera 30 eguneko iraupena izango duten izaera zibileko neurriak jaso daitezke, beste 30 egunez luza daitezkeenak, neurriak indarrean dauden bitartean biktimak familia prozedura irekitzeko demanda zibila aurkeztzen duenean. Bigarren epe horren barruan, lehen auzialdiko epaile eskudunak berretsi, aldatu edo ereginik gabe utz ditzake. Izaera zibileko neurriak hauexek dira (PKL 544 *ter* 7. art.): lehenik, guraso-ahala, harrera, tutoretza, kuradoretza edo izatezko zaintza egikaritzeko modua; bigarrenik, familia-etxebizitzaren erabilera eta gozamina esleitzeko modua; hirugarrenik, adingabeekiko edo babes berezia behar duten desgaituekiko bisita-, komunikazio- eta egonaldi-erregimena eteteko edo mantentzeko erregimena; laugarrenik, mantenua emateko erregimena; azkenik, arrisku batetik aldentzeko edo kalteak saihesteko egokitzat jotzen den edozein xedapen (esate baterako, adingabeen pasaporteak entregatzea, beste pasaporte berria egiteko debekuekin edo Estatuko lurraldetik ateratzeko alde aurreko baimen judizialaren beharra ezartzea).

Ikus daitekeenez, behin-behineko neurri zibil gehienek seme-alabekin zerikusia dute. Hala ere, biktimaren zaintzapean seme-alaba adingaberik ez egoteak, ez du esan nahi neurri zibilik adostu ezin direnik. Izan ere, seme-alabak ez dituen biktimarentzat, familia-etxebizitzaren inguruko erabakia funtsezko gaia da<sup>97</sup>.

---

<sup>95</sup> Adibide gisa, azpimarratzaekoa da, DELGADO MARTÍN-ek (Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako zuzendari nagusia) adierazi zuena: “*En relación con la efectividad de las medidas de protección de las víctimas, se propone en materia de vigilancia electrónica, optimizar las medidas de control telemático, fomentar su uso, mejorar los mecanismos existentes y agilizar la respuesta*”. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 19. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>96</sup> FERNÁNDEZ GARCÍA, AINARA, 2. Eranskina: Ertzainaren elkarrizketa, 68. or.

<sup>97</sup> ÁLVAREZ ÁLVAREZ, HENAR-ren esanetan, PKL-an 544 *ter* artikulua barneratu aurretik, seme-alabarik ez zuen bikotea bizi zen etxea ez zen familia-etxebizitza gisa aitortzen; hortik aurrera, seme-alaba adingaberik ez duen izatezko bikotearen bizilekua familia-etxebizitza hartzen da. “La víctima de violencia de género y la atribución de la vivienda familiar”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT

Arestian esan bezala, babes-aginduaren baitan neurri zibilak har daitezten, alderdiren batek (biktimak edo haren ordezkari legalak; ala Fiskaltzak, adingabeak edo ezgaituak daudenean) eskaera egin beharko du. Hala ere, salbuesenez, epaileak ofizioz, egikaritu ahal izango du Kode Zibileko 158. artikuluan ezarritako behin-behineko neurri zibilak<sup>98</sup>, edo PKL-ren 544 ter 7. artikulua aurreikusten dituen egoerak ebazteko: biktimarekin bizi diren eta bere zaintzapean dauden adingabeen edo babes berezia behar duten ezgaituen egoera, eta seme-alaben bisita-, egonaldi-, harreman- edo komunikazio-erregimenaren etetea izaera penaleko neurriak ezarri direnean eta seme-alaba adingabeek genero-indarkeria ikusi, jasan edo bizi izan dutela esateko zantzu arrazoitu nahikoak daudenean<sup>99</sup>.

Azken hau garrantzitsua deritzot, batez ere, EAE-ko testuinguruari begira. Zergatik? Bada, Euskadin, Familia Harremani buruzko 7/2015 Legea (hemendik aurrera, 7/2015 Legea) indarrean dago eta praktika judizialean duen ondorio nagusia, zaintza partekatua automatikoki aplikatzean datza, umearen eskubideen gainetik aitaren eskubideak jarriz. Hain zuzen, zaintza partekatua ukatzeko arrazoi bakarra genero-indarkeriagatiko epai irmoa egotea litzateke (7/2015 Legearen 11.3 art.). Beraz, PKL-n jasotzen den epailearen eskumen honi esker, ofizioz umeen egoerari buruzko bestelako erabakia har daiteke. Horrela, nire aburuz, genero-indarkeriaren biktima ere diren seme-

---

(Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009, 269. or.

<sup>98</sup> Kode Zibilaren 158. artikuluan aurreikusitako neurri zibilak: “El Juez, de oficio o a instancia del propio hijo, de cualquier pariente o del Ministerio Fiscal, dictará: 1.º Las medidas convenientes para asegurar la prestación de alimentos y proveer a las futuras necesidades del hijo, en caso de incumplimiento de este deber, por sus padres. 2.º Las disposiciones apropiadas a fin de evitar a los hijos perturbaciones dañosas en los casos de cambio de titular de la potestad de guarda. 3.º Las medidas necesarias para evitar la sustracción de los hijos menores por alguno de los progenitores o por terceras personas y, en particular, las siguientes: a) Prohibición de salida del territorio nacional, salvo autorización judicial previa. b) Prohibición de expedición del pasaporte al menor o retirada del mismo si ya se hubiere expedido. c) Sometimiento a autorización judicial previa de cualquier cambio de domicilio del menor. 4.º La medida de prohibición a los progenitores, tutores, a otros parientes o a terceras personas de aproximarse al menor y acercarse a su domicilio o centro educativo y a otros lugares que frecuente, con respecto al principio de proporcionalidad. 5.º La medida de prohibición de comunicación con el menor, que impedirá a los progenitores, tutores, a otros parientes o a terceras personas establecer contacto escrito, verbal o visual por cualquier medio de comunicación o medio informático o telemático, con respeto al principio de proporcionalidad. 6.º La suspensión cautelar en el ejercicio de la patria potestad y/o en el ejercicio de la guarda y custodia, la suspensión cautelar del régimen de visitas y comunicaciones establecidos en resolución judicial o convenio judicialmente aprobado y, en general, las demás disposiciones que considere oportunas, a fin de apartar al menor de un peligro o de evitarle perjuicios en su entorno familiar o frente a terceras personas. En caso de posible desamparo del menor, el Juzgado comunicará las medidas a la Entidad Pública. Todas estas medidas podrán adoptarse dentro de cualquier proceso judicial o penal o bien en un expediente de jurisdicción voluntaria, en que la autoridad judicial habrá de garantizar la audiencia de la persona menor de edad, pudiendo el Tribunal ser auxiliado por personas externas para garantizar que pueda ejercitarse este derecho por sí misma.

<sup>99</sup> PKL-ren 544 ter 7. artikuluko 3. paragrafoa: “Cuando se dicte una orden de protección con medidas de contenido penal y existieran indicios fundados de que los hijos e hijas menores de edad hubieran presenciado, sufrido o convivido con la violencia a la que se refiere el apartado 1 de este artículo, la autoridad judicial, de oficio o a instancia de parte, suspenderá el régimen de visitas, estancia, relación o comunicación del inculcado respecto de los menores que dependan de él. No obstante, a instancia de parte, la autoridad judicial podrá no acordar la suspensión mediante resolución motivada en el interés superior del menor y previa evaluación de la situación de la relación paternofamiliar.”



alabak babestuago daude, hauen egoera aintzat hartuko baita, beren interesak maila gorenean jarritz<sup>100</sup>.

### 3. Asistentzia izaerako neurriak

Izaera penaleko neurriak eta neurri zibilak ez bezala, asistentzia izaerako neurriak ez daude jurisdikzio-organoen esku. Hala ere, babes-aginduarekin lotura zuzena dute, babes-agindua onartzen duen auto judiziala aurkezte hutsarekin, biktimek, Estatuko, Autonomia Erkidegoko eta Tokiko Administrazio Publikoek beren araudietan gizarte-babeserako aurreikusten dituzten kutsu soziala duten laguntzak baliatu ahal izango dituztelako. Halaber, babes-aginduaz gain, genero-indarkeriaren biktimek beste bide batzuetatik ere lor ditzakete asistentzia izaerako neurriak<sup>101</sup>. Izan ere, biktimen alderdi handi batek, genero-indarkeriatik ateratzeko behar dutena ez da salaketa bat jartzea edo sistema judizialera laguntza eske jotzea; sarritan, lana topatzeak, diru-laguntza bat jasotzeak edo pisu bat izateak, bere bizitzaren agintea hartzeko aukera ematen die. Horregatik, asistentzia neurri hauek funtsezkoak dira biktima ororen beharrak ase ditzaten<sup>102</sup>. Baina, ez gara puntu honetan luzatuko, azterlan honi ez dagokion lan arloko eta Gizarte Segurantza arloko eskubideen, eta arlo ekonomikoko eskubideen gaian sartuko ginatekeelako.

---

<sup>100</sup> Aipatu beharra dago, 2020ko urrian, Gobernu Kontseiluak, EH Bilduk proposatutako 7/2015 Legea aldatzeko lege-proposamena onartu zuela. Ekimenaren helburu nagusia da, genero-indarkeria kasu batengatik prozesu bat irekita dagoenean, zaintza partekatua eragozte. Hala ere, gaur, lege-proposamen honek oraindik ez du aurrera egin. Eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia> [azken kontsulta: 2022/05/08].

<sup>101</sup> 1/2004 LO-ak 23. artikuluan asistentzia neurriak eskuratzeko beste bide batzuk aurreikusten dira: genero-indarkeriaren zantzuak daudela adierazten duen Fiskaltzaren txostena, gizartze-zerbitzuen, zerbitzu espezializatuen edo genero-indarkeriaren biktimei zuzendutako harrera zerbitzuen txostenak, edo sektore-mailako arau-xedapenetan aurreikusita dauden beste edozein tituluak. Honen harira, 2019ko apirilaren 3an egindako Berdintasunerako Konferentzia Sektorialean, Gobernuak, Autonomia-Erkidegoek eta Hiri Autonomoek, 1/2004 LO-ren 23. artikulua ezartzen duen genero-indarkeriaren egoera egiaztatzeko eredu komuna onartu zuten. BERDINTASUN MINISTERIOA, *Acuerdo de la Conferencia Sectorial de Igualdad sobre los Procedimientos básicos para la acreditación administrativa de las situaciones de violencia de género por las Comunidades Autónomas y las Ciudades de Ceuta y Melilla conforme al artículo 23 de la Ley Orgánica 1/2004*, 2021. Eskuragarria: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/> [azken kontsulta: 2022/05/08].

<sup>102</sup> VALIÑO CES, ALMUDENA, *op. cit.*, 9. or.

#### IV. BABES-AGINDUA ONARTZEKO BALDINTZA ZORROTZAK

Babes-agindua onartzeko baldintzak Prozedura Kriminalaren Legeko 544 ter 1. artikuluan daude araututa; zehatz mehatz, bi baldintza dira, batetik, delitu baten zantzu oinarrituak egotea, eta bestetik, biktima arrisku-egoera objektibo batean egotea. Gainerako kautela-neurri penalek duten baldintzen sistema bera hartzen du, hots, *fumus boni iuris* eta *periculum in damnum* delakoak; baina, epaia beteko dela bermatzeko helburua alde batera uzten dute, funtsean biktima babesteko helburua bere eginez<sup>103</sup>.

##### 1. *Fumus bonis iuris*

Babes-agindua onartzeko lehengo baldintza *fumus boni iuris* delakoa da, hots, delitu baten zantzu oinarrituak egotea. Zehatzago esanda, lehenengo baldintza hau betetzeko, bikotearen edo bikote-ohiaren eremuan, emakumearen bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, askatasunaren edo segurtasunaren aurkako delitua egin izanaren zantzu oinarrituak egon behar dira. Baldintza hau jurisprudentzian garatua izan da.

*Fumus boni iuris* baldintza egitateak egiaztatzeko zantzu edo froga-euskarri minimo bat egotean datza. Hau da, epaileak bere erabakia oinarritu ahal izateko, pertsona baten erantzukizun kriminala egiaztatzeko aukera emango dioten kanpoko datuak, zeinuak edo oharrak egotea beharrezkoa da, froga-osotasunik gabe, baina susmo sendoa emanez<sup>104</sup>. Hau da, babes-aginduari buruz ebazteko une prozesala atariko fasea da, ikerketa-eginbideak egiten hasten diren fasea. Beraz, delitu baten zantzu oinarrituak daudela esateko, ez da epaia emateko orduan eskatzen den karguzko froga baten existentzia eskatzen<sup>105</sup>.

VALIÑO CES-en aburuz, delitu baten zantzu oinarrituak egoteko, arrazoi nahikoak egon beharko dira, datu objektibo zehatzetan oinarrituta daudenak, eta ez susmo lauso hutsetan oinarritutakoak. Kasu zehatz bakoitzean, delitu-zantzuak dauden zehaztu

---

<sup>103</sup> DE LAMO RUBIO, JAIME, “La nueva Orden de protección de las víctimas de la violencia de doméstica, instaurada mediante Ley 27/2003, de 31 de julio”, *Actualidad Penal*, 42. Zk., 2003, 190-195. or.

<sup>104</sup> Jurisprudentzian doktrina honen aintzindariak izan ziren, 1978ko irailaren 6ko GEEAE, *Klass vs Alemaniako Errepublika Federala* kasua, 2. OJ; 1985ko abenduaren 17ko KAE 174/1985, 3. OJ; 1992ko ekainaren 18ko AGA 6102/1992, 2. OJ.

<sup>105</sup> TORRES REVIRIEGO, MARIA ROSARIO, *op. cit.*, 126. or. Zentzu berean, horrela adierazi zuen, 2022eko otsailaren 28ko Gipuzkoako PAA 66/2022, 2. OJ: “*Precisamente en relación con los indicios racionales de criminalidad, según su específica utilidad procesal, es decir, según para qué se necesitan en el desarrollo del procedimiento, la palabra indicios, que significa siempre la asistencia de datos concretos reveladores de un hecho importante para las actuaciones judiciales, exige una mayor o menor intensidad en cuanto a su acreditación según la finalidad con que se utilizan. Así, la máxima intensidad ha de existir cuando esos indicios sirven como medio de prueba de cargo (prueba de indicios), en cuyos casos han de estarrealmente acreditados y han de tener tal fuerza probatoria que, partiendo de ellos, pueda afirmarse, sin dudarazonable alguna, la concurrencia del hecho debatido; en otras ocasiones, sin que haya una verdadera prueba, han de constar en las actuaciones procesales algunas diligencias a partir de las cuales puede decirse que hay probabilidad de delito y de que una determinada persona es responsable del mismo*”.

ahal izateko, eginbideak eta ikerketak erabakigarriak izango dira. Hortaz, *fumus boni iuris* delakoa frogatzea, Poliziak, Fiskaltzak edo Epaileak egindako eginbideen zehaztasun eta zabalaren arabera izango da. Hala, hasieran aipatutako zantzuak, kanpoko datuak, zeinuak edo oharrak hainbat bideetatik etor daitezke; besteak beste, atestatuan poliziek ematen dituzten xehetasunak, elementu periferikoak, medikuaren lesioen txostena, forentsearen txostena, lekukoren baten deklarazioa, biktimaren beraren deklarazioa edo inputatuaren deklarazioa<sup>106</sup>. Adibide bat jartzearen, 2022ko urtarrilaren 13ko Errioxako PAA 3/2022 daukagu; honetan, PA-k babes-agindua beharrezkoa zela berretsi zuen, eta delitu baten zantzu oinarrituak zeudela adierazteko testiguen eta poliziek atestatuan adierazitakoa kontuan hartu zuen<sup>107</sup>. Ordea, 2022ko otsailaren 16ko Pontevedrako PAA 71/2022, babes-aginduaren ukapena berretsi zuen, eta delitu baten zantzu oinarrituak ez zeudela argudiatzeko mediku forentsearen txostena eta lekuko falta aintzat hartu zuen<sup>108</sup>.

Genero-indarkeriaren delituei dagokionez, praktika judizialean, eginbideak praktikatzerako orduan, askotan aurki dezakegun arazoa da, zantzu bakarria biktimaren deklarazioa dela. Izan ere, genero-indarkeria delitu gehienak intimitatean gertatzen dira, eta, horregatik, biktima da gertatutakoari buruzko datuak eman ditzakeen bakarria. Beraz, delitu baten zantzu oinarrituak egiaztatzeko, biktimaren deklarazio soila nahikoa den aztertzea dagokigu. Alde batetik, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren 4/2004 Instrukzioak honako hau aitortu zuen: *“Fiskaltzak, beharrezko babes-neurriak eskatzerakoan, biktimaren lehen deklarazio hori ezagutza-iturri pribilegiatutzat aintzat hartu beharko du”*<sup>109</sup>. Beste aldetik, AG-k, 2018ko ekainaren 13an emandako 282/2018 epaian, argi eta garbi adierazi zuen, biktima lekuko pribilegiatua zela eta frogabidearen ikuspegitik, nolabaiteko isla bereizgarria izan behar zuela: *“Es preciso poner de manifiesto que en este caso, las víctimas de hechos de violencia de género declaran en el plenario con una posición distinta a la de los testigos que ven los hechos [...]”. En estos casos, la víctima se encuentra procesalmente en la situación de testigo, pero a diferencia del resto de*

<sup>106</sup> VALIÑO CES, ALMUDENA, *op. cit.*, 6. or.

<sup>107</sup> 2022ko urtarrilaren 13ko Errioxako PAA 3/2022, 2. OJ: *“En este momento procesal, [...] existen indicios de delito. La testifical en el Juzgado de Instrucción del testigo [...] ofrece indicios de la existencia de una agresión por parte del investigado hacia Brigida. Junto a ello, hay que reflejar lo que se objetiva en el atestado, de donde procede destacar; (i) que fueron tres (3) las llamadas recibidas por la policía procedentes de distintas personas poniendo en conocimiento estos hechos, lo que es indicio de la relevancia de lo sucedido[...];(ii) que lo que el testigo les manifestó fue que " desde su domicilio está viendo a un joven pegando puñetazos en la cara a una mujer y tirándola al suelo [...]"; (iii) finalmente, que la Policía describe que cuando llegaron al lugar donde se hallaba la pareja, la presunta víctima Brigida se hallaba "muy alterada, con los ojos enrojecidos y llorosos y las medias rotas" .*

<sup>108</sup> 2022ko otsailaren 16ko Pontevedrako PAA 71/2022, 3. OJ: *“Atiende [...] a la inexistencia de elemento objetivo que pueda corroborar, indiciariamente, su versión de los hechos. Sin embargo, el parte médico y el informe médico forense que pueden ser considerados como tales elementos objetivos no corroboran su versión [...] El parte médico, señala la instructora, no evidencia lesión apreciable alguna que tampoco resultaba apreciable el mismo día del dictado de la resolución cuando fue examinada la denunciante por la Médico Forense. Por tanto, aún cuando las expresiones amenazantes o los insultos se hubieran cometido sin testigos, la agresión que se denuncia en los términos expuestos, no cuenta con corroboración que permita otorgar mayor verosimilitud indiciariamente a la totalidad de la versión de la denunciante”.*

<sup>109</sup> ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIA, Instrucción 4/2004, de 14 de junio, acerca de la protección de las víctimas y el reforzamiento de las medidas cautelares en relación a los delitos de violencia doméstica, 2004. Eskuragarri: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?coleccion=fiscalia&id=FIS-I-2004-00004> [2022/05/14]

*testigos, es víctima y ello debería tener un cierto reflejo diferenciador desde el punto de vista de los medios de prueba. [...]La versión que puede ofrecer del episodio vivido es de gran relevancia, pero no como mero testigo visual, sino como un testigo privilegiado, cuya declaración es valorada por el Tribunal bajo los principios ya expuestos en orden a apreciar su credibilidad*<sup>110</sup>. Hortaz, gaur egungo jurisprudentziak, biktimaren deklarazio soila delitu baten zantzu oinarrituak egon badaudela egiaztatzeko bide gisa onartzen du, baina, aurrerago ikusiko dugunez, indarkeria ez-fisikoko kasuetan baldintza hau frogatzea ez da erraza izango<sup>111</sup>.

Azpimarratzekoa da, delitu baten zantzu oinarrituak daudela frogatzeko gakoa praktikaturako eginbideen emaitzetan dagoela. Beraz, garrantzitsua da, lanean zehar behin eta berriz errepikatu dugun ideia, epailearen jarrera aktiboa, alegia.

## 2. *Periculum in damnum*

Babes-agindua onartzeko bigarren baldintzari dagokionez, legegileak biktima arrisku egoera objektibo batean egotea galdatzen du, *periculum in damnum* delakoa, alegia. Arrisku-egoera objektiboa legalki ez dago definituta, aitzitik, jurisprudenziatik atera dezakegu baldintza horren definizioa.

Gaur egungo jurisprudentziaren arabera, arrisku-egoera objektiboa organo judizialak babes-agindua erabakitzerakoan kontuan hartu beharreko funtsezko alderdia da. Hau da, urruntze-neurriak eta komunikatzeko debekuak barne hartzen dituen babes-agindu batek dakartzan eskubideen murrizketa justifikatzen duen elementu nagusia biktimarentzat arrisku-egoera objektiboa egotea da. Eta arrisku hori gertatzen den ala ez erabakitzeko, organo jurisdikzionalak probabilitate-judizioa egin behar du, arriskugarritasun-judizioa edo arrisku-pronostikoa, hain zuzen ere. Kontua ez da ziurtasun osoz salatuak etorkizunean emakumearen aurka egingo duen ala ez zehaztea, baizik eta horrelako egitateak berriro gertatzeko aukera esanguratsuak dauden eta probabilitate bihurtzen diren baloratzea<sup>112</sup>.

---

<sup>110</sup> 2018ko ekainaren 13ko AGE 282/2018, 2. OJ. Gainera, gaur egungo jurisprudentziak biktimaren deklarazioari balio frogagarria ematen dio, horretan oinarrituz, kondena eman daitekeelarik. Horrela dio, 2022ko martxoaren 8ko AGE 365/2022, 2. OJ: “*Hemos de decir que es una línea que mantiene una abundante jurisprudencia de esta Sala, considerar que la declaración de la víctima puede ser tenida como prueba de cargo suficiente para enervar la presunción de inocencia, aun cuando sea la única prueba disponible, sin que deje de ser tenida como tal, incluso aunque se aprecien en su testimonio fisuras o divergencias; si bien habrá de ser valorada con cautela, de ahí la conveniencia de someterla a criterios de máxima objetivación, acudiendo al aval que puedan aportar determinados elementos de corroboración, a valorar en cada caso, según las circunstancias que en él concurran*”.

<sup>111</sup> Adibide gisa, 2022ko urtarrilaren 20ko Murtziako PAA 34/2022, 2. OJ: “*En el presente caso, la juez de instancia ha podido observar la forma en que la denunciante ha narrado los hechos y le ha dado plena credibilidad. Así, se describe por la denunciante que toma medicación para dormir y que cuando se despertó, notó que su ropa interior estaba mal puesta y que tenía dolor y ardor cuando miccionaba. Se lo comentó a su pareja (aunque actualmente casi no tienen vida en común, a pesar de vivir en el mismo domicilio) y éste le contestó que “esta madrugada te follé y tú ni te enteraste. Tal declaración es suficiente para considerar la posible existencia del ilícito penal en este momento inicial de la investigación*”.

<sup>112</sup> 2021eko uztailaren 27ko Gipuzkoako PAA 206/2021, 2. OJ. Hainbat autorek arrisku-egoera objektiboaren kontzeptua jorratu dute. CUENCA RUIZ, ANA-ren arabera, arrisku-egoera objektiboa, kontzeptu gisa, biktimaren osotasun fisiko eta psikikoaren kontrako ekintza kaltegarriren bat gerta

Halaber, berriro ere, biktimaren deklarazio soila dagoen kasua aipatu beharra dago. Hala, nahiz eta delitu-egitatearen zantzu oinarrituen baldintza azaltzean esan dugun biktimaren deklarazioa nahikoa dela, bigarren baldintza honi dagokionez, arrisku-egoera objektiboa balioesteko, pertzepzio subjektibo hutsa ez da nahikoa izango. Arrisku egoera objektiboa ezin da biktimaren beldurraren sentimendu subjektiboan oinarritu, probabilitate-judizioa den heinean, polizia-ikerketak eta instrukzioak eskaintzen dituen datu guztietan oinarritu behar da<sup>113</sup>.

*Periculum in damnum* kontzeptua kontuan izanda, aipatu beharra dago, biktima arrisku-egoera objektiboan dagoela esateko, jurisprudenzian normalean honako bost inguruabar hauek kontuan hartzen direla<sup>114</sup>: erasotzaileak genero-indarkeria gaietan aurrekari penalak eta polizialak izatea<sup>115</sup>; erasotzaileak aurretiaz ezarritako kautela-neurri

---

daitekeelako aurreikuspenaren egiaztapena da. *Op. cit.*, 208-209. or. Beste era batean esanda, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT-en iritziz, arrisku-egoera objektiboaren aurrean gaude biktimaren alde babes neurriak hartzen ez badira, erasotzaileak biktimaren kontra delituak egiten jarraituko duela adierazten duen pronostikoa argia denean. *Op. cit.*, 536. or.

<sup>113</sup> Horrala dio, 2021eko maiatzaren 30ko Madrilgo PAA 1038/202, 4. OJ. Era berean, 2021eko abenduaren 21eko Madrilgo PAA 1967/2021, 3. OJ: “*La orden de protección está ideada para proteger cuando existe una situación de riesgo objetivo. Ello implica que no puede residenciarse únicamente en la manifestación de temor de la denunciante, ni en la posibilidad meramente teórica de que sufra una agresión. Tampoco debe prescindirse de la orden de protección por la mera percepción subjetiva de la víctima de que no existe riesgo en su deseo de no apartarse del peligro*”.

<sup>114</sup> Hainbat autorek beren lanetan arrisku-egoera objektiboa aztertu dutenean inguruabar hauek aipatu dituzte, besteak beste: BERMÚDEZ REQUENA, JUAN MANUEL, “La orden de protección a favor de víctimas de violencia de género en la práctica de los tribunales”, *Actualidad jurídica Aranzadi*, 734. zk., 2007, 5-9. or.; DEL POZO PÉREZ, MARTA, “El derecho procesal español ante la violencia de género: especial referencia a las últimas reformas”, *Revista Electrónica de Ciencias Jurídicas*, 2008, 16. or.; CUENCA RUIZ, ANA, *op. cit.*, 208-209. or.

<sup>115</sup> Adibide gisa, aipa dezakegu, 2021eko urriaren 20ko Madrilgo PAA 1466/2021, 3. OJ: “*Concurre asimismo una situación objetiva de riesgo para los bienes jurídicos de la víctima, derivado del hecho de haber sido condenado escasamente doce días antes como autor de un delito de coacciones, en el que la víctima era la misma mujer*”.

bat urratu izana<sup>116</sup>; erasotzaileak izaera oldarkorra izatea<sup>117</sup>; arriskuaren polizia-balorazioaren emaitza arrisku altua dagoela izatea<sup>118</sup>.

Hitz gutxitan esanda, arrisku-egoera objektibo baten aurrean egongo gara, emakumearen aurka egindako delitu-egitatea gertakari isolatua ez denean, aitzitik, erasotzaileak etorkizunean antzeko egitateak gauzatzeko arriskua dagoenean. Hortaz, emakumea bere bikote edo bikote-ohiaren aurrean benetako arrisku objektiboko egoeran dagoela ondorioztatu ahal izateko, babes-neurriak ezartzeko elementu nahikoak behar dira, eta horretarako, organo judicialak arriskugarritasun-judizioa edo arrisku-pronostikoa egin behar du<sup>119</sup>.

## 2.1. Arriskuaren baloraziorako tresnak

Arriskuaren balorazioa aurreikuspen-lana da, hots, arrisku-faktoreetan oinarritutako metodologia zientifikoaren bidez etorkizuneko indarkeria-arriskua baloratzea<sup>120</sup>. Hala, biktimak indarkeria jasaten jarraitzeko arriskua baloratzeko hainbat

---

<sup>116</sup> Adibidez, 2021eko abenduaren 15eko Madrilgo PAA 1939/2021, 2. OJ: “*Respecto al segundo requisito, la situación objetiva de riesgo se aprecia por la concurrencia de factores que evidencian la posibilidad de reiteración en el caso de que no se adoptara la orden de protección. A pesar de la existencia de una prohibición de aproximarse a Ascension y comunicarse con ella estaban viviendo juntos, Ascension ha manifestado que volvieron a vivir juntos porque no podía mantener a sus hijos y él le ofrecía una vivienda. Se está produciendo un delito de quebrantamiento de medida cautelar continuado que además genera una situación de mayor vulnerabilidad superior, depende económicamente del investigado tanto para ella como para sus hijos. Hay una Sentencia condenatoria contra Ruperto. A pesar de esta situación Ruperto le agrede en presencia de terceras personas porque le molesta que le lleve la contraria delante de sus amigos*”.

<sup>117</sup> Esaterako, 2022ko urtarrilaren 19ko Madrilgo PAA 105/2022, 3. OJ: “*Lo relevante es analizar que, junto a tales datos indiciarios, concurra también una situación objetiva de riesgo para la víctima. Y lo cierto es que en este caso existe: pues el investigado ha desplegado una fuerte agresividad no sólo hacia la denunciante, sino que la hizo extensiva a las personas que intentaban evitar que la supuesta agresión alcanzaría cotas más altas. Estos hechos, como se ha indicado, corroboran la declaración de la denunciante en cuanto al clima violento en que se desarrolló la relación, y abonan un terreno en el que no es descartable que se produzcan situaciones de riesgo importante para la integridad física de la víctima que deben ser conjurados. En este momento, desde luego, todos estos datos evidencian una peligrosidad criminal lo suficientemente relevante para justificar la protección dispensada a las víctimas*”.

<sup>118</sup> Besteak beste, 2022ko urtarrilaren 2ko Leoneko PAA 14/2022, 2. OJ: “*No hay que perder de vista el informe de Valoración Policial del Riesgo donde se aprecia un riesgo medio y -lo que es más relevante- se consideran los hechos "caso de especial relevancia" por cuanto la combinación de indicadores que aumentan de manera significativa la probabilidad de que el agresor ejerza sobre la víctima violencia muy grave o letal. Por lo tanto, no es sólo que se aprecien los indicios de delito que se detallan en el Auto recurrido sino que, desde el punto de vista de la prevención policial, estamos en presencia de una situación objetiva de riesgo que la Guardia Civil, en su mencionado informe, califica de un caso de especial relevancia, por lo que la Orden de Protección otorgada, es imprescindible para conjurar el riesgo futuro contra la víctima y su hija*”.

<sup>119</sup> CASTILLEJO MANZANARES, RAQUEL, “La orden de protección en el anteproyecto de ley de enjuiciamiento criminal”, *Revista de la asociación de profesores de derecho procesal de las universidades españolas*, zk. 3., 2021, 273-275. or.

<sup>120</sup> ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, “Violencia contra la mujer: una visión médico-forense”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2020.

tresna sortuz joan dira<sup>121</sup>. Gaur egungo Espainiako ordenamendu juridikoan bi tresna hauek ditugu: arriskuaren polizia-balorazioa eta arriskuaren balorazio forentsea<sup>122</sup>.

### 2.1.1. Polizia-balorazioa

Lehenik eta behin, Segurtasun-Indar eta -Kidegoek arriskuaren diagnostiko bat egiteko protokolizatutako tresnak dituzte, zehazki, Segurtasun-Indar eta -Kidegoetako funtzionarioek 2019ko Emakumearen Aurkako Indarkeria-Arriskuaren Polizia-Balorazioaren Protokoloa jarraitu beharko dute<sup>123</sup>. Balorazioa egiteko erabiliko dituzten formularioak “Genero-indarkeriako kasuen Jarraipen Integralerako Sistemari” (VioGén Sistema) eskuragarri egongo dira<sup>124</sup>. Hala, arriskuaren polizia-balorazioa zenbakizko eskala baten arabera zehazten da. Eskala horren emaitza lortzeko, biktimak galdera-sorta bat erantzun behar du, eta emandako erantzunen arabera, arriskuaren maila adieraziko da, «txikia», «ertaina», «handia» edo «berezia» izango dena. Horrekin batera, hautemandako arrisku-faktore nagusiak zeintzuk diren zehaztuko dira, eta arrisku-maila bakoitzarentzat aurreikusitako babes-neurri polizialak (nahitaezkoak zein osagarriak) berehala aplikatuko dira, esaterako, biktima epaitegira laguntzea. Babes-neurri polizialak epaileak ostean hartuko dituen babes-neurri judizialekiko independenteak izango dira, biktimari bizkarzaina jartzeko erabakia izan ezik<sup>125</sup>.

Euskal Autonomia Erkidegoa kasu berezia dela esan dezakegu. 2006an, Ertzaintzak, Euskal Herriko Unibertsitatearen (UPV/EHU) lankidetzara eskatu zuen indarkeria-gertaera larriak izateko probabilitate handiagoa erakusten zuten adierazleak identifikatzeko gai izango zen eta, aldi berean, biktima bakoitzari ezarritako arrisku-maila zorroztasunez kalkulatu zuen tresna zientifiko bat sortzeko. 2007an, Psikologia Klinikoko katedraduna den Enrique Echeburúa Odriozola eta bere taldeak, Ertzaintzarekin batera, “Bikotekidearen Kontrako Indarkeria Larriaren Arriskua Iragartzeko Eskala” (EPV-R) sortu zuten, 20 item-etan oinarrituta dagoena; hala nola, kontuan hartzen dira zein neurri judizial hausten diren, erasotzailearen portaera zein den,

<sup>121</sup> Gai honetan aplikagarriak diren hamaika protokolo hemen daude eskuragarri: <http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Temas/Violencia-domestica-y-de-genero/Guias-y-Protocolos-de-actuacion/Protocolos/>

<sup>122</sup> Ez naiz arriskuaren baloraziorako tresnak sakonean aztertzeraz sartuko, baizik eta tresna bakoitzaren hurbilketa egingo dut, izan ere, *Emakumeen kontrako indarkeria IKDi3* Proiektuaren baitan, kide batek gai honen inguruko ikerketa-lan sakona egingo du.

<sup>123</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA, *Instrucción 4/2019, de la Secretaría de Estado de Seguridad, por la que se establece un nuevo protocolo para la valoración policial del nivel de riesgo de violencia de género (Ley Orgánica 1/2004), la gestión de la seguridad de las víctimas y seguimiento de los casos a través del sistema de seguimiento integral de los casos de violencia de género (Sistema VIOGÉN)*, 2019. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/cgpj> [azken kontsulta: 2022/05/09].

<sup>124</sup> LÓPEZ GARCÍA-NIETO, ISABEL, “Protección a las víctimas testigo de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9721. zk., 2020, 2-3. or. Autore honek VioGén sistemaren azalpen sakona egiten du.

<sup>125</sup> GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS; LÓPEZ OSSORIO, JUAN JOSÉ, RODRÍGUEZ DÍAZ, MARINA; eta URRUELA CORTÉS, CARLOTA, “Sistema de Seguimiento Integral de los Casos de Violencia de Género: Sistema Vio Gén”, *Behavior & Law Journal*, 1. zk., 2018, 36. or.

zein motatako erasoak burutu dituen eta zein asmorekin egin duen, eta seme-alaben presentzian egin diren<sup>126</sup>.

### 2.1.2. Balorazio forentsea

Arriskuaren balorazioa egiteko bigarren tresna, epaitegietan dauden forentseek egiten duten arriskuaren balorazioa da, agintari judizialen edo fiskalen eskaera galdatzen duena, honek ez baitu era autonomoan jarduten<sup>127</sup>. Hari berean, arriskuaren balorazio forentsea bi motatakoa izan daiteke: batetik, antolatutako arriskuaren balorazioa, Auzitegiko Balorazio Integraleko Unitateak (ABIU), mediku-forentse, psikologo eta gizarte-langile batek osatutako taldeak, burutzen duena; eta bestetik, arriskuaren premiazko balorazioa, guardiako eginkizunetan dagoen forentseak burutzen duena. Bigarren balorazio mota hau erabiltzen da babes-aginduaren izapidetza prozeduren baitan, 72 orduko epea bakarrik baitago horrelako eginbideak aurrera eramateko<sup>128</sup>.

2020an, Genero-indarkeria kasuetan Arriskuaren Presazko Balorazio Forentsearen Protokoloa indarrean sartu zen eta 72 ordu baino lehen amaitzea aurreikusita dagoen 5 pausotan banatutako prozedura proposatzen du: lehenik, forentseak erasotzailearen eta biktimaren informazioa bilduko du, hau da, historial klinikoa, zehazki, bien dokumentazio mediko/psikiatrikoak, eta espediente judizial osoa. Bigarrenik, indarkeriari lotutako arrisku-faktoreak bilduko ditu: ikertuaren faktoreak, biktimaren faktoreak eta bikote-harremanaren faktoreak. Hirugarrenik, jasotako informazioaren arabera, Arriskuaren Balorazio Forentsearen inprimakia (VFR) edo onartuta dagoen beste bat beteko du; jarraian, VioGén sistematik emaitza deskargatuko du eta kasuaren espedientean sartuko du. Laugarrenik, erabilitako tresnaren emaitzetan eta forentseak garrantzitsutzat jotzen dituen elementuetan oinarrituta, bere balio-iritzia emango du. Azkenik, forentseak txostena egingo du eta agintaritzak judizial eskudunari helaraziko dio<sup>129</sup>.

---

<sup>126</sup> FERNÁNDEZ CUCÓ, JAVIER ÓSCAR, *op. cit.*, 233-239. or. Autore honek azaldu duenez, Euskadin ez da VioGén Sistemaren arabera jardungo, EBA Sistemaren arabera baizik. Etxekoen eta Emakumeen Babesa (EBA) sare informatiko bat da, Etxeko Indarkeria edo Genero-Indarkeria kasu baten historia osoa biltzen duena, kronologikoki ordenatuta. Hala, tratatu txarren egoera bat agertzen denean, sisteman bertan familia-nukleo bakoitzean espediente bat ireki egiten da. Sistema honetan, ertzainak, organo judizialak eta forentseak sar daitezke.

<sup>127</sup> RODRÍGUEZ MARTÍNEZ, MARÍA BERTA, “La intervención forense sobre la violencia de género” *Psicología clínica: anuario*, 3. zk, 2009, 1314-1320. or.

<sup>128</sup> PASTOR BRAVO, MAR; MONTERO JUANES, JOSE MARÍA; BARBERÍA MARCALAIN, ENEKO; GRIJALBA MAZO, MARTA; ESTARELLAS ROCA, AINA; eta BAÑÓN GINZALEZ, RAFAEL, “El protocolo de valoración urgente del riesgo de violencia de género del Consejo Médico Forense”, *Revista española de medicina: órgano de la Asociación Nacional de Médicos Forenses*, 47. liburukia, 4. zk., 2021, 173. or.

<sup>129</sup> BELTRÁN ALEU, PURIFICACIÓN, “Protocolos de valoración del riesgo”, *Revista de l'Institut Universitari d'Investigació en Criminologia i Ciències Penals de la UV*, zk. 21., 2019, 14-16. or.



## 2.2. Epaileak egiten duen balorazio subjektiboa

Babes-agindua onartzeko ala ukatzeko, epaile eskudunak biktima arrisku-egoeran dagoen erabaki beharko du; horretarako, irizpide propioetan oinarrituz bere balorazio egingo du. Izan ere, PKL-ren 544 *ter* artikuluan, ez dago arrisku-egoera objektiboa baloratzeko irizpideen zerrendarik. Hala ere, epaileak balorazio sendoa egiteko, bere irizpide propioaz aparte, orain arte aipatutako arriskuaren polizia-balorazioa eta presazko balorazio forentsea ditu bere esku (azken hau eskatu ezean, ez da balorazio forentserik egongo).

Zoritxarrez, esan beharra dugu, babes-agindua erabakitzeko momentuan, organo judizialek ez dituztela premiazko arriskuaren balorazio forentserik eskatzen, eta beraz, bere balorazioa bi alderdien deklarazioetan oinarrituta egingo du<sup>130</sup>. Honi dagokionez, Estatuko Fiskaltza Nagusiak, 2020 urteko memorian, ohartarazi zuen epaitegiek oraindik gutxiegi erabiltzen dituztela arriskuaren presazko balorazio forentseen txostenak babes-agindua onartu edo ukatzeko<sup>131</sup>. ILARIA IBAÑEZ epaileak mahaigaineratzen duen arazoa, denbora falta da<sup>132</sup>. Ordea, ILARDIA OLANGUA abokatuak kritika egiten dio txosten hauen eskaera urriari eta epaileak egiten duen balorazio hain subjektiboari; bere iritziz, organo judizialek ez dituzte forentsearen arrisku balorazio txostenik eskatzen, nahiz eta biktimaren segurtasuna kolokan egon, kolapsatuta dagoen epaitegiari lan karga ez gehitzearen<sup>133</sup>.

Arazo honen aurrean, elkarrizketatuak izandako eragile juridiko guztiak ados daude, EAIE-ek guardiako forentse eskusiboa behar dutela, ABIU eskusiboarekin batera. Honek, lana arinduko luke eta arriskuaren balorazioa, epailearen pertzepzio soila ez den beste baliabide baten bidez egin ahal izango litzateke<sup>134</sup>.

Ezin da ukatu, gaur egun, epaileek babes-aginduen onarpena edo ukapena erabakitzen duenean egiten duen arriskuaren balorazioa oso subjektiboa dela, eta

<sup>130</sup> Lanean zehar aztertutako babes-aginduen inguruko Probintzia Auzitegiko autoetan, ez da ezein arriskuaren balorazio forentserik aipatzen ez babes-agindua onartzeko ez ukatzeko, beraz, ondoriozta daiteke, kasu horietan, epaileak ez duela forentsearen arriskuaren baloraziorik eskatu.

<sup>131</sup> ESTATUKO FISKALTZA NAGUSIA, *Memoria de la Fiscalía General del Estado 2020*, 2021, 736. or. Eskuragarri: <https://www.fiscal.es/documents> [azken kontsulta: 2022/05/09].

<sup>132</sup> Arazo honen aurrean, elkarrizketatutako epaileak, ILARIA IBAÑEZ-ek, proposamen gisa ideia hau bota zuen: “Forentseak entzunaldian parte har dezake, hots, epailearekin, fiskalarekin eta abokatuarekin batera alderdien deklarazioak entzuten eta galderak egiten egon daiteke. Horrela, forentseak kasua aztertu eta oharrak hartuko litzateke, arriskuaren balorazioaren txosten forentsea ekitaldi berean edo denbora laburrean egin ahal izateko”. ILARIA IBAÑEZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 72-73. or.

<sup>133</sup> ILARDIA OLANGUA, BETARIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 78. or. Bestalde, ABASOLO TELLERÍA forentseak, elkarrizketan, arriskuaren presazko balorazio forentseari dagokionez, arazo garrantzitsuak identifikatu ditu. Batetik, guardiako forentseak lesio fisikoak soilik baloratzen ditu eta ABIU-ak ez du 24 orduko guardiarik egiten, errekurtsio nahikorik ez dagoelako. Bestetik, azken horri gehitu behar zaio, EAE-n, VioGén sistemara sarbiderik ez dagoela, eta EBA sistema martxan jartzen dabilela oraindik. Beraz, forentsearen aburuz, guardia batean, arriskuaren presazko balorazioa egitea oso zaila da, momentuan bertan, informazio poliziala, penala eta klinikoa barneratzen duen VioGén bezalako datu-base sendorik ez baitago. ABASOLO TELLERÍA, ANA EUGENIA, 5. Eranskina: Forentsearen elkarrizketa, 83. or.

<sup>134</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 64. or.; ILARIA IBAÑEZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 73. or.; ILARDIA OLANGUA, BETARIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 79. or.; ABASOLO TELLERÍA, ANA EUGENIA, 5. Eranskina: Forentsearen elkarrizketa., 81. or.

aurrerago ikusiko dugun moduan, horrek eragin handia duela babes-aginduen ukapen kopuru altuan<sup>135</sup>.

### 3. Ukatutako babes-aginduei buruzko balantzea

#### 3.1. Babes-aginduen ukapen kopuru altua eta barruti judizialen arteko ezberdintasuna

Hasi baino lehen, hainbat datu mahaigaineratu nahiko genituzke. Emakumearen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren arabera, 2021ean, salaketa jarri zuten genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen % 25-ak babes-agindua eskatu zuten, baina, eskaera ez zen onartu. Urte berean, EAIE-etan, 37.270 babes-agindu abiarazi ziren; 10.883 ukatu egin ziren<sup>136</sup>.

Bai Fiskaltzaren 2020ko azken memorian, bai Genero-Indarkeriaren aurkako Estatu Itunerako Senatuan eta Kongresuan egindako estrategien txostenetan, bai GREVIO-k Espainiar Estatuari buruz egindako ebaluazio txostenean, Autonomia-Erkidegoen arabera dagoen babes-aginduen ukapen kopuruaren desberdintasun nabaria salatu dute. Hala, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren Etxeko Indarkeriaren eta Genero-Indarkeriaren aurkako Behatokiak 2021eko hurrengo datuak argitaratu ditu: Alde batetik, babes-agindu kopuru txikia ukatzen duten autonomia erkidegoak ditugu, Errioxa (% 12), Aragoi (% 13) eta Valentzia (% 15), eta, bestetik, ukapen kopuru altua dutenak, Katalunia (% 52), Madril (% 49) eta Euskadi (% 44), alegia. Ezberdintasuna, barruti judizialaren arabera ere ikus daiteke. Esate baterako, Bilbon hasitako babes-aginduetatik % 57,85 ukatu ziren, eta Almerian, aldiz, % 1,1 baino ez. Gainera, probintzia berean dauden barruti judizial ezberdinetan, ukatutako babes-aginduen aldea izugarria da. Adibidez, Huelvako probintzian, Huelva hiriburuan, irekitako babes-aginduen %2,5 bakarrik ukatu ziren, eta, alderantziz, La Palma del Condadon % 53 babes-agindu ukatu dira<sup>137</sup>.

Datu hauek guztiak ikusita, ideia kezkarri bat etor dakiguke burura: genero-indarkeriaren biktima den emakume batek, bere bizitokiaren edo salaketa egin duen lekua arabera, babesa jasotzeko aukera gehiago edo gutxiago izan ditzake. Beste era

---

<sup>135</sup> Estatu-Ituna prestatzeko Senatuan egindako strategiak lantzeko ikerketa txostenean, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Salako Fiskal Ordezkarriak, PERAMATO MARTÍN-ek, kritika zorrotza egiten dio epaileak egiten duen arriskuaren balorazio subjektiboari, arriskuaren balorazio forentsearen garrantzia azpimarratuz: “*La mayor parte de las órdenes de protección se deniegan porque no se aprecia una situación objetiva de riesgo, pero ni Jueces ni Fiscales son profesionales forenses que cuenten con suficientes elementos de juicio o conocimientos específicos. Las Unidades de Valoración Integral de Violencia de Género deben auxiliar a los órganos competentes a la hora de adoptar dichas decisiones*”. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 17-18. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>136</sup> EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN ESTATUKO BEHATOKIA, *Mujeres víctimas mortales por violencia de género en España a manos de sus parejas o exparejas*, 2022. Eskuragarri: <https://violenciagenero.igualdad.gob.es/violenciaEnCifras> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>137</sup> BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN ETXEKO INDARKERIA ETA GENERO-INDARKERIAREN AURKAKO BEHATOKIA, *Violencia sobre la mujer/Juzgados por partido judicial 2021, 2022*. Eskuragarri: <https://www.poderjudicial.es/Anual-2021> [azken kontsulta: 2022/05/05].

batera esanda, organo eskuduna ukatutako babes-aginduen portzentaje altua duena izatekotan, biktimak sistema judizialaren partetik babestua izateko aukera gutxiago izango ditu. Honi dagokionez, Genero-Indarkeriaren kontrako Estatu-Ituna prestatzeko Senatuan egindako estrategiak lantzeko ikerketa txostenean, Emakumearen aurkako Indarkeriaren Salako Fiskal Ordezkariek, PERAMATO MARTÍN-ek, hurrengo adierazi zuen: *“Babes-aginduak maizen ukatzen diren lurraldeetan, gutxiago eskatu ohi dira, hots, sistema judizialari babesa eskatzea errefusatzeko dute, babestuak izateko aukera gutxi dituztela uste dutelako”*<sup>138</sup>.

### 3.2. Babes-agindua ukatzeko jurisprudentziak zehaztutako irizpideak

Arestian emandako babes-aginduen ukapen kopuru altuak direla eta, epaileek babes-aginduak ukatzeko erabiltzen dituzten irizpideak zeintzuk diren aztertzea bultzatu nau. Horretarako, ukatutako babes-aginduen portzentaje altuenak eta baxuenak dituzten Autonomia Erkidegoetako jurisprudentzian zentratu naiz; zehatz mehatz, PA-ek emandako 30 auto kontuan hartu ditut, babes-aginduak ukatuak izan direnean aurkeztutako apelazio-errekurtsoen ebazpenak, alegia<sup>139</sup>.

#### 3.2.1. Zehaztutako irizpideen azterketa

Hasteko, aintzat hartu behar dugu, arestian aztertu bezala, babes-agindua onartzeko bi baldintza daudela; beraz, babes-aginduak ukatu egiten dira bi baldintza hauetako bat ematen ez denean edo biak ematen ez direnean.

Lehenengo baldintzari dagokionez, aztertutako epaietan, delituaren zantzu oinarrituak ez daudelako, ez da babes-agindu bat bere ere ukatu. Baina, egia da, epaietan

---

<sup>138</sup> SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 29. or. Era berean, Zuzenbide Prozesaleko unibertsitateko irakaslea den DEL POZO PEREZ-ek esandakoa errepikatuz, ukatutako babes-aginduen kopuru altua eta jarduketa judizialen berdintasun falta ikertu behareko gaia da. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 52. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>139</sup> Bartzelonako Probintzia Auzitegia [2020eko maiatzaren 13ko 398/2021 autoa; 2021eko arazoaren 22ko 1106/2021 autoa; 2021eko azaroaren 17ko 1099/2021 autoa; 2021eko azaroaren 16ko 1088/2021 autoa; 2021eko azaroaren 9ko 707/2021 autoa]; Bizkaiko Probintzia Auzitegia [2021ko irailaren 21eko 365/2021 autoa; 2019ko urriaren 23ko 90425/2019 autoa; 2021eko ekainaren 8ko 90239/2021 autoa; 2021eko irailaren 14ko 90334/2021 autoa; 2021eko irailaren 22ko 90347/2021 autoa; 2021eko irailaren 9ko 90343/2021 autoa]; Madrilgo Probintzia Auzitegia [2021eko ekainaren 30ko 1038/2021 autoa; 2021eko abenduaren 27ko 1853/2021 autoa; 2021eko abenduaren 22ko 1835/2021 autoa; 2021eko abenduaren 21eko 1967/2021 autoa; 2021eko abenduaren 21eko 2162/2021 autoa; 2021eko abenduaren 21eko 1949/2021 autoa; 2021eko abenduaren 20ko 1819/2021 autoa; 2021eko abenduaren 15eko 1800/2021 autoa]; Gipuzkoako Probintzia Auzitegia [2021eko irailaren 23ko 228/2021 autoa; 2021eko uztailaren 27ko 209/2021 autoa; 2021eko uztailaren 27ko 206/2021 autoa]; Zaragozako Probintzia Auzitegia [2021eko ekainaren 29ko 419/2021 autoa; 2021eko maiatzaren 18ko 319/2021 autoa; 2021eko apirilaren 22ko 263/2021 autoa; 2021eko maiatzaren 5eko 284/2021 autoa]; Tarragonako Probintzia Auzitegia [2021eko azaroaren 23ko 601/2021 autoa; 2021eko azaroaren 26ko 654/2021 autoa]; Huescako Probintzia Auzitegia [2021eko maiatzaren 14ko 132/2021 autoa]; Errioxako Probintzia Auzitegia [2021eko abenduaren 17ko 553/2021 autoa; 2022ko urtarrilaren 13ko 3/2022 autoa].

askotan agertzen dela, emakumeak egitateen kontaktetan adierazitako gertaera bat edo batzuk ez direla kontuan hartzen, zantzu nahikorik ez baitago hauek ikertzen jarraitzeko. Kasu gehienak, indarkeria ez-fisikoaren inguruak izaten dira; hala nola, indarkeria psikologikoa, indarkeria ekonomikoa... Sarritan, epaietan indarkeria ez-fisikoaren inguruabarrak aipatzen dira bikote-harremana deskribatzeko; hain zuzen ere, jelsia eta kontrola (ekonomikoa zein soziala) gehien adierazten direnak dira<sup>140</sup>.

Bigarren balditzari dagokionez, aztertutako jurisprudentzian, epaile eskudunak, arrisku-egoera objektiboaren faltan argudiatzen ditu ukatzen dituen babes-agindu guztiak. Egindako ikerketaren arabera, orokorrean, hurrengo inguruabarrak hartzen dira kontuan arrisku egoera objektiboa ez dagoela ondorioztatzeko:

### 3.2.1.1. Garrantzi gutxiko gertakaria edo entitate txikiko intzidentea izatea

Egitatearen garrantzia aintzat hartuta, berehalako eta egungo arriskurik sortzen ez duen gertakaria izan behar da. Inguruabar hau aipatzen den epaietan, indarkeria ez fisikoaz ari da, emakumearen osotasun moralaren aurkako erasoetaz, alegia; hala nola, irainak, hertsapenak eta mehatxu arinak dira ikertzen diren delituak. Hau da, jurisprudentziak, indarkeria psikologikoari, eta, oraindik, tipifikatuta ez dagoen indarkeria ekonomikoiari, garrantzi txikia ematen diola esan dezakegu. Adibide bat jartzearen, aipatuko dugu, 2021eko irailaren 21eko Bizkaiko PAA 90343/2021, 2. OJ: *“La denunciante refirió que durante la relación sentimental de entre 6-8 meses que mantuvo con el las agresiones fueron constantes, sobre todo cuando ella no quería mantener relaciones sexuales [...]. Con relación al incidente de siete días antes, la denunciante relata que se encontraba junto al denunciado y dos personas más y que el denunciado, una vez se hizo con su móvil, comenzó a entrar en sus redes sociales, contactos, galería, etc., comenzando entre ellos una discusión para que le devolviese el móvil, momento en el que F. le agarró como siempre hace por las muñecas, los brazos y el cuello. No existe constancia de una asistencia médica pero sí que la denunciante aportó una fotografía supuestamente sacada con su móvil de los moratones que le produjo el agarrón por los brazos. [...]. Nos encontramos ante un incidente de no relevante entidad, incidente de una entidad menor, del que no puede inferirse la existencia de un riesgo inmediato y actual que aconseje la protección”*<sup>141</sup>.

<sup>140</sup> Adibide bat aipatzearen, 2021eko irailaren 21eko Bizkaiko PAA 90343/2021, 2. OJ: *“La denunciante refirió que durante la relación sentimental de entre 6-8 meses que mantuvo con el las agresiones fueron constantes, sobre todo cuando ella no quería mantener relaciones sexuales. La agarraba fuertemente de las muñecas, le chantajeaba emocionalmente y que le controlaba continuamente el móvil y le prohibía quedar con sus amigos. Llega incluso a ofrecer detalles de una supuesta agresión sexual [...]. Lo cierto es que con relación a toda esta vivencia anterior, sin contar con ningún motivo por el que cuestionarla veracidad de las manifestaciones de la denunciante, no contamos con ningún mínimo elemento decorroboración periférica.”*

<sup>141</sup> Beste kasu interesgarri bat aipatzearen, 2021eko abenduaren 27ko Madrilgo PAA 1853/2021 daukagu: *“Imputa la recurrente a su marido haber sido maltratada psicológicamente durante todo el tiempo que duró el matrimonio con humillaciones, insultos desprecios y control económico, conducta que desplegaba también con los hijos del matrimonio. Aunque la víctima manifestara tener miedo del*

### 3.2.1.2. Larriak ez diren lesio fisikoak izatea

Jurisprudenziaren arabera, lesioen objektibatze hutsak arrisku-egoera ondorioztatzeko balio dezake, baldin eta lesioek intentsitate handiko edo bortxa edo basakeria bereziko eraso fisikoa agerian uzten badute. Hortaz, alderantziz, irakurritako epaien arabera, lesioak larriak ez diren heinean, ez da biktimarentzat arrisku objektiborik aintzat hartzen. Esate baterako, hurregoa dio, 2021eko azaroaren 16ko Bartzelonako PAA 1088/2021, 2. OJ: *“Ya hemos dicho en resoluciones anteriores que la simple objetivación de lesiones puede servir para deducir la necesaria situación de riesgo cuando estas revelan un mecanismo lesional contumaz o un acometimiento físico de intensidad o de especial virulencia o brutalidad. En el caso que nos ocupa si bien a tenor del Informe médico forense que obra en la causa se han objetivado lesiones, estas no resultan de gravedad al haber consistido en contusión en calota craneal y dolor por contractura muscular en brazo derecho”*.

### 3.2.1.3. Jokabide puntuala eta isolatua izatea

Epaileak, inguruabar honekin, bikotea-harremanak iraun zuen denboran edo jada bikote ez ziren denboran emandako indarkeria kasu bakarra izan dela kontuan hartzen du, hots, ohiko genero-indarkeria ez izatea. Aztertutako epaietan, inguruabar hau aipatzen da, emakumeak, deklarazioan, aurretik antzeko bestelako egitaterik egon ez dela aitortzen duenean. Hortaz, genero-indarkeriari hasiera ematen dion egitatea izatearren, epaileak arrisku-egoera kolokan jartzen du. Besteak beste, aipa dezagun 2021eko apirilaren 22ko Zaragozako PAA 263/2021, 1. OJ: *“La víctima refiere haber sufrido desprecios por parte de quien ha sido durante años su pareja sentimental, coartando su libertad y obligándole a realizar determinadas conductas contra su voluntad. Pese a que la denunciante manifestó dos concretos sucesos de los que se pudiera desprender un comportamiento violento por parte del investigado, hechos que tuvieron lugar en el año 2018 cuando el investigado golpeó una puerta del domicilio y en agosto del 2020 cuando el investigado la empujó y le dijo que volvieran hacia casa, los anteriores episodios, por su carácter puntual y aislado, siendo la primera vez que ocurría, y visto el tiempo transcurrido desde entonces, carecen de la entidad suficiente para considerar que concurre una verdadera situación de peligro para la víctima”*.

---

*denunciado no puede determinarse exista la situación objetiva de riesgo que exige el artículo 544 ter de la ley ritualaria para dictar la orden de protección de la víctima y consecuente restricción de los derechos del denunciado que la misma conlleva cuando, como señala la resolución recurrida, desde el momento de la ruptura (9 de febrero de 2021) no consta que haya existido entre ellos episodio violento alguno, habiendo también de reiterarse y compartirse los razonamientos de la juez "a quo" al indicar que los conflictos de índole económica surgidos tras la separación que también indica la recurrente, deberán ser solventados a través de la vía civil.”*

#### **3.2.1.4. Aurretiaz bestelako salaketarik ez egotea**

Inguruabar hau aipatzen denean, emakumeak, bai salaketan bai deklarazioan, ohiko indarkeriaz hitz egin du, baina ez dago aurretiazko gertakari horien kontrako salaketarik. Zera da, ikertzen diren gertakariak, bikote edo bikote-ohiaren eremuan erregistratutako lehengoak dira. Arrisku-egoera eza argudiatzeko inguruabar gisa hartzen da, emakumeak aurretiaz sistema polizial eta judizialera jo ez izana. Eman dezagun adibide bat; hots, 2021eko abenduaren 17ko Logroñoeko PAA 553/2021, 2. OJ: *“De esta exposición se infiere que los hechos detonantes de la interposición de la denuncia, producidos el 31 de agosto pasado, fue una discusión derivada de que su hija se fue de casa, lo cual animó a la denunciante a denunciar los malos tratos que asegura haber sufrido durante el tiempo de convivencia, denuncia que no había interpuesto hasta ahora “porque pensaba que no podía criar a su hija sola y que lo necesitaba para criarla”, pero a la vista de que no la ayuda en nada ha decidido tomar este paso. Es asimismo cierto que a lo largo de los 21 años que duró la relación de pareja entre ambos, no consta evidenciado objetivamente ningún episodio violento: no hay partes médicos, no hay denuncias previas.”*

#### **3.2.1.5. Ikertuak genero-indarkeria aurrekari penalik eta polizialik ez izatea**

Aurreko bi elementuekin lotura duen inguruabarra da. Epailleek, arrisku-egoera objektiboa ukatzeko, ikertuak aurreko harremanetan genero-indarkeria gauzatu ez izana aintzat hartzen dute. Esaterako, horrela dio, 2020ko maiatzaren 13ko Bartzelonako PAA 398/2020, 3. OJ: *“A los efectos de valoración del riesgo no puede minimizarse un comportamiento del hombre en la violencia de género, pero en el presente caso, a pesar de los alegatos vertidos en el escrito el recurso, lo cierto es que la indiciaria conducta del hombre aparece como puntual en relación a la denunciante pues no constan antecedentes penales ni tampoco policiales como se constata en la diligencia que obra en el atestado. Por ello fue razonable que se considerara que no existía un riesgo objetivo de ataque a bienes jurídicos de la denunciante.”*

#### **3.2.1.6. Polizia-balorazioaren maila baxua**

Epailleek, poliziak egindako arriskuaren balorazioa goitik behera irakurrita eta ezarritako itemak aztertuta, balorazio horren emaitza arrisku-egoera ez dagoela arrazoitzeko erabiltzen dute. Aipa dezagun adibide gisa, 2021eko abenduaren 15eko Madrilgo PAA 1800/2021, 4. OJ: *“Igualmente debe considerarse que si bien el investigado, como se refleja en el recurso, tiene una condena por un delito de maltrato en el ámbito familiar, en el caso de autos, la valoración policial del riesgo es no apreciado, y según se hace constar en el atestado tampoco existen otras denuncia por hechos semejantes entre las partes”.*

### **3.2.1.7. Biktimaren bertsioa berresteko elementu periferikorik ez egotea**

Epaileak, inguruabar hau, bikotearen intimitatean ematen diren gertakariak direnean erabiltzen du. Biktimaren deklarazioa soilik dagoenean, gertakaria eman zela frogatzeko bestelako tresna gehiagorik ez dagoenean; esaterako, lekukorik ez dagoenean edo mezuen edo deien erregistroa ez dagoenean. Emakumearen deklarazio hutsa, bere sentimenduen arabera adierazitako arrisku-egoera, ez da nahikoa. Adibide gisa hartuko dugu, 2021eko uztailaren 27ko Gipuzkoako PAA 206/2021, 3. OJ: *“La inexistencia de elementos periféricos de corroboración del relato ofrecido por la víctima que permitan dar su versión como cierta. [...] No existen parte médicos, no se han aportado testigos y, es más, analizado su terminal no se aprecia el flujo ingente de llamadas que la denunciante manifiesta recibir, ni los insultos que señaló en sede judicial”*.

### **3.2.1.8. Maiz elkar topo egingo dutela aurreikusteko arrazoirik ez egotea**

Aztertutako epaietan, inguruabar hau hurrengo kasuetan erabiltzen da: elkarrekin seme-alabarik ez dutenean, edo bakoitzaren bizilekua geografikoki urrun dagoenean, hots, herri, probintzia edo Autonomia Erkidego ezberdinetan bizi direnean. Adibidez, inguruabar hau aipatu zuen arrisku-egoera ukatzeko, 2021eko ekainaren 29ko Zaragozako PAA 419/2021, 2. OJ: *“En cuanto a los insultos o vejaciones, aún existiendo indicios, tampoco ponen de manifiesto una situación objetiva de riesgo para la denunciante, que además en el momento actual vive en Zaragoza y el denunciado en Madrid. Por lo tanto, viven ahora en domicilios distintos que distan entre más de cien kilómetros. En esta situación la medida de alejamiento se hace objetivamente menos necesaria”*.

### **3.2.1.9. Harremanaren eta bizikidetzaren haustura ofiziala izatea**

Biktimak eta ikertuak, egindako deklarazioetan, harremanaren hausturarekin ados daudela aitortzen dutenean, epaileak, inguruabar hau, arrisku-egoera ez degoela arrazoitzeko erabiltzen du. Hala nola, horrela dio, 2021eko maiatzaren 14ko Huescako PAA 132/2021, 2. OJ: *“No procede acorar la medida cautelar solicitada, ya que de las diligencias practicadas incluida la declaración de la propia víctima no se deduce un riesgo objetivo para su persona; además, se ha de tener en cuenta que existe un divorcio entre las partes, no existía convivencia en la fecha en la que dictó la resolución impugnada”*.

### **3.2.1.10. Iraupen laburreko harremana izatea**

Harremanaren ezaugarri hauek kontuan dituzte, mendekotasun emozionala eskasa dela aurreikusita; beraz, hau arrisku maila baxuarekin lotzen dute. Inguruabar hau horrela azaltzen du, 2021eko abenduaren 15ko Madrilgo PAA 1800/2021, 4. OJ: *“Hacer un diagnóstico, un juicio de probabilidad, debe basarse en todos los datos que ofrezca la investigación. A estos efectos ponderativos, reiterar, tal y como se menciona en el auto”*

*recurrido, que [...], la relación de pareja tenía escasa duración, dos meses, con un mes y medio de convivencia, la denunciante manifestó su voluntad de no seguir conviviendo con el acusado, y no consta que tuvieran otros vínculos en común que les obligara a mantener el contacto”.*

### **3.2.1.11. Salaketa berandu egitea edo erasotzailearekin bueltatzea**

Ikertutako jurisprudentziari dagokionez, salaketa egitateak gertatu baino askoz beranduago egitea, arrisku-egoera objektiboa ukatzeko erabiltzen den inguruabarra da. Horrekin batera, egitateak gertatu ostean, elkarbizitza mantentzea ere aipatu egiten da. Hau da, egitateak eman ostean bikote harremanarekin jarraitzeak, emakumea arrisku-egoeran ez dagoela arrazoitzeko erabiltzen dute. Aztertutako epaien erdia baino gehiagok inguruabar hau aipatzen dute arrisku-egoera objektiboa ez dagoela argudiatzeko; hona hemen, adibide batzuk: 2021eko irailaren 29ko Bizkaiko PAA 90343/2021, 2. OJ: *“Ha de añadirse que difícilmente puede apreciarse esa situación de riesgo a conjurar con la orden cuando la propia víctima presenta la denuncia una semana después del incidente”*; 2021ko ekainaren 29ko Zaragozako PAA 419/2021, 2. OJ: *“Se estima insuficiente para deducir una situación de riesgo, máxime cuando la denunciante reconoce que volvió a Madrid con su marido después de comunicarle su deseo de divorciarse y antes de presentar denuncia”*.

### **3.2.2. Azterketaren ondorioak**

Ikerketa honen emaitzak kontuan hartuta, bi ondorio atera ditzakegu: batetik, *fumus boni iuris* baldintzari dagokionez, genero-indarkeria egoera oro ezin da erraz tipo penal batean kokatu, eta horrek delitu baten zantzu oinarrituak egotea eragozten du; eta bestetik, gaur egun, jurisprudentziak biktima arrisku-egoera objektibo batean dagoela ukatzeko erabiltzen dituen irizpideek genero-ikuspegi falta dute.

#### **3.2.2.1. Indarkeria ez-fisikoa, indarkeria ikusezina**

Lehenengo ondorioa argia da, auzitegietan genero-indarkeriaren baitan dauden indarkeri mota batzuk presentzia txikia dute, indarkeria psikologikoa, edo indarkeria ekonomikoa, hain zuzen ere<sup>142</sup>. ILARIA IBAÑEZ-ak, Barakaldoko EAIE-ko epaileari, egindako elkarrizketan, oso ondo azaltzen du indarkeria psikologiko eta ekonomikoak

---

<sup>142</sup> Praktikaldian Bilboko Instrukzio eta Zigor Fiskaltzan eman dudana denboran, genero-indarkeria ez-fisikoari ematen zaion garrantzi eskasa ikusi dut. Hala, ILARDIA OLANGUA abokatuak argi adierazi bezala, indarkeria ez-fisikoa jasan duten emakumeek babes-agindua lortzeko, arrastoak izan behar dituzte, biktimaren hitza ez da nahikoa. Hau da, lekukoak, mehatxuen Whatsapp-eko mezuak, deien erregistroa, txosten psikologikoak... ez badaude, biktimaren berbarekin bakarrik, oso zaila da epaileak zantzu oinarrituak daudela aitortzea eta beraz, babes-agindua onartzea. Bere aburuz, jurisprudentzian biktimaren deklarazioa errugabetasun-presuntzioa apurtzeko nahikoa izanda, genero-indarkerian formakuntza nahikoa eta jarraia duen epaile batek, biktima bat laguntza eske etortzen zaionean, zalantza aurrean, babes-agindua eman beharko luke. ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 78. or.



sistema judizialean duten arazoa: “*Indarkeria psikologikoa eta indarkeria ekonomikoa kontzeptu oso zabalak eta zehaztugabeak dira. Indarkeria ez-fisikoaren zantzu oinarrituak egoteko, egitateak Zigor Kodean zigortuta egon behar dute. Zigor Kodean zigortuta ez dagoena ez da ikertzen. Beraz, indarkeria psikologikoa edo ekonomikoa delitu-figura batean sartu behar da, eta delituaren elementuak ematen diren aztertu. Ezin dira zantzu oinarrituak indarkeria psikiko edo ekonomikoaren kontzeptuetan oinarritu, Zigor Kodean tipifikatutako delitu batean baizik. [...] Kasu horietan, prozesuarekin aurrera egin ahal izateko, irainen, hertsapenen, mehatxuen, edo lesio psikikoen zantzu oinarrituak egon behar dira. Legegileak indarkeria psikologikoa edo ekonomikoa deskribatzen duenean, delitu gisa tipifikatzen duenean eta delituaren elementuak zehazten dituenean, delitu horiek jazarri ahal izango ditugu*”<sup>143</sup>.

Halaber, nire ustez, arazo nagusia da, indarkeria ez-fisiko ikertzeko tresnei erabilera ematen ez zaiela, hots, epaileek ez dituzte forentsearen lesio psikologikoen txostenak eskatzen. Hala, Fiskalari egindako elkarrizketa oinarri hartuta, hurrengo hausnarketa egin dezakegu ikerketa baliabide honen inguruan. Bada, ageriko lesio fisikoak ez daudenean, eta biktimaren deklarazioa soilik dagoenean, organo judizialek, artxiboa eskatu aurretik, forentsearen txostena eskatu beharko lukete, jasaten duten indarkeria hori objektiboki berretsi ahal izateko<sup>144</sup>. Halaber, honi dagokionez, elkarrizketatutako forentseak, ABASOLO TELLERÍA-k, dio, indarkeria psikologikoaren kasuan, beharrezkoak direla forentsearen txostenak, hauek emakumeak sufritutako tratu txarrei sinesgarritasuna ematen baitiete<sup>145</sup>.

Autonomia Erkidegoetako Lege Medikuntza eta Zientzia Forentsetako Institutuak bere jardueren inguruko Memorian bertan, lesio psikologikoen txostenen kopuru baxua ikusteko aukera daukagu. Adibide bat jartzearren, Lege Medikuntza eta Zientzia Forentsetako Euskal Institutuaren 2020ko Memoriaren arabera, hiru probintzietan (Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa), guztira, genero-indarkeria barnean emandako lesio fisikoen 844 azterketa egin dira, aldiz, forentseak egindako lesio

<sup>143</sup> ILARIA IBANÉZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 71-72. or. Honi dagokionez, gomendagarria da Lucía Avilés epaileak Gobernuari indarkeria ekonomikoa genero-indarkeria gisa tipifikatzeko egindako eskaeraren inguruko albistea irakurtzea: EFEMINISTA, *La jueza Lucía Avilés pide al Gobierno tipificar la violencia económica como violencia de género*, 2021/10/20. Eskuragarri: <https://efeminista.com/jueza-lucia-violencia-economica/> [azken kontsulta: 2022/05/09]

<sup>144</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 62. or. Estatuko Itunaren lanetan Senatuan eta Kongresuan egindako txostenetan ideia hau aurki dezakegu. Batetik, LORENTE ACOSTA-k hurrengo adierazi zuen: “*Los juzgados de lo penal necesitan trabajar de forma que se evalúe la violencia psicológica, porque más de la mitad de los casos quedan impunes*”. KONGRESUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la subcomisión creada en el seno de la comisión de igualdad para un Pacto de Estado en materia de violencia de género*, 2017, 166. or. Eskuragarri: [https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado\\_Congreso](https://violenciagenero.igualdad.gob.es/PactodeEstado_Congreso) [azken kontsulta: 2022/05/14]. Bestetik, ÁLVAREZ SALINAS-en arabera, “*Deben extremarse las diligencias cuando hay indicios de violencia habitual o de orden psicológico. Los juzgadores tienden a centrarse en el último episodio violento*”. SENATUKO BERDINTASUN BATZORDEA, *Informe de la ponencia de estudio para la elaboración de estrategias contra la violencia de género*, 2017, 40. or. Eskuragarri: <https://www.senado.es/publicaciones> [azken kontsulta: 2022/05/14].

<sup>145</sup> ABASOLO TELLERÍA, ANA EUGENIA, 5. Eranskina: Forentsearen elkarrizketa, 82. or.

psikologikoen azterketarik ez da aipatzen<sup>146</sup>. Azken finean, ondoriozta dezakegu, sistema judizialean, indarkeria ez-fisikoa indarkeria ikusezina izaten jarraitzen duela. Epaitegietan indarkeria psikologikoa ikertzeko eta zigortzeko baliabide garrantzitsuak erabilera txikia dute, are gutxiago, biktimari babes-agindua onartzeko.

### 3.2.2.2. Genero-ikuspegi gabeko arriskuaren balorazioa

Bigarren ondorioari dagokionez, aztertutako epaietan genero-ikuspegiaren falta agerian dago, zehazki, aztertutako arrisku-egoera objektiboa ukatzeko erabiltzen diren irizpideetan eta kontuan hartzen dituzten inguruabarretan<sup>147</sup>. Aztertutako epaietan, genero-ikuspegiaren gabezia hurrengo elementuetan identifika daiteke:

Hasteko, aztertutako epai askotan arrisku-egoera ukatzeko kontuan hartzen duten inguruabar kezkarriena biktimak salaketa berandu egitea da. AG gai honen inguruan mintzatu egin da, eta genero-ikuspegia barneratu du. Hala, 2018ko maiatzaren 24an, AG-k, 247/2018 epaian, argi eta garbi utzi du, genero-indarkeriaren biktimaren sinesgarritasuna ezin dela gutxitu salaketa berandu egiteagatik, atzerapena indarkeria mota berezi honen ezaugarrien ondorio izan daitekeela ulertu behar delako<sup>148</sup>. Are gehiago, Auzitegi Gorenak mahaigaineratu du, emakumeak tratu txarrak lehenengo aldiz salatzen dituenean, arrisku-egoera areagotzen dela<sup>149</sup>. Hortaz, aztertu ditugun Probintzia Auzitegiaren epaiak, zentzu honetan, ez dute gorengo jurisprudentzia betetzen.

---

<sup>146</sup> EUSKO JAURLARITZAKO LAN ETA JUSTIZIA SAILA, *Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen 2020ko Memoria*, 2021. Eskuragarri: <https://www.justizia.eus/IVML-memoria-2020> [azkenekoz kontsultatuta: 2022/05/06].

<sup>147</sup> Genero-ikuspegia emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak zehaztaper biologikoetara ez ezik, ezarritako desberdintasun kultural edo sozialetara ere mugatzen direla erakusten duen tresna da. Beste erara esanda, bi generoen arteko desberdintasun-harremank emakumearen diskriminazioa eragiten dutela ulertzean datza. Hala, genero-ikuspegia ordenamendu juridikoaren printzipio informatzaile gisa hartu beharko litzateke, etengabe jardun prozesal osoan aintzat hartu beharrekoa. Hau da, genero-ikuspegiak organo judizialei eskatzen die, prozesuan zehar, sexua-genero sistemaren konplexutasuna eta sistema hori subjektuetan nola gorpuzten den ulertzea eta horren arabera jardutea. FUENTES SORIANO, OLGA, “La perspectiva de género en el proceso penal. ¿refutación? de algunas conjeturas sostenidas en el trabajo de ramírez ortiz «el testimonio único de la víctima en el proceso penal desde la perspectiva de género»”, *Revista internacional sobre razonamiento probatorio*, 1. zk., 2020, 280-281. or.

<sup>148</sup> 2018ko maiatzaren 24ko AGE 247/2018, 2. OJ: “No puede admitirse, por ello, que el estado de pánico y terror que sufren las víctimas les suponga una "traba de credibilidad" cuando éstas deciden a denunciarlo más tarde, ya que el retraso en denunciar hechos de violencia de género, o doméstica, no es sinónimo de falsedad en una declaración, sino que es perfectamente admisible entender veraz esa declaración por las especiales características de los hechos de maltrato, cuya valoración debe tener unas condiciones distintas por las propias diferencias inherentes a quien es el autor del delito: nada menos que tu pareja, o tu propio padre, o la pareja de tu madre, como en este caso ocurrió”.

<sup>149</sup> 2018ko maiatzaren 24ko AGE 247/2018, 2. OJ: “El maltrato habitual produce un daño constante y continuado del que la víctima, [...], lo que provoca situaciones de miedo, incluso, y una sensación de no poder denunciar. Ello provoca que en situaciones como la presente el silencio haya sido prolongado en el tiempo hasta llegar a un punto en el que, ocurrido un hecho grave, se decide, finalmente, a denunciar por haber llegado a un límite a partir del que la víctima ya no puede aguantar más actos de maltrato hacia ella y, en ocasiones, también, hacia sus hijos. Sin embargo, es preciso señalar y destacar en el caso que ahora nos ocupa que cuando esta decisión se adopta por la víctima se incrementa el riesgo de que los actos de maltrato pasen a un escenario de "incremento grave del riesgo de la vida de la víctima", ya que si ésta decide comunicar la necesidad de una ruptura de la relación, como aquí ha ocurrido, o le denuncia por

Beste alde batetik, deigarria da, egitateak eman ostean bikote harremanarekin jarraitzeak, emakumea arrisku-egoeran ez dagoela arrazoitzeko erabiltzea. Izan ere, tratu txar eta salaketen ostean bikoteak harremanarekin bueltatzea, indarkeria berriro emateko arriskua areagotzen dute<sup>150</sup>. Epaileek babes-aginduak ukatzeko inguruabar hau kontuan hartzen dutenean, emakumea irrazionalki jokatzegatik, zuzenbidearen logikatik kanpo dagoen jokabidea hartzegatik, biktimak kriminalizatu eta zigortu nahi izango balitu bezala jokutzen du<sup>151</sup>. Horretaz gain, aztertutako epaietan, genero-indarkeria gertaera puntualtzat hartzen da, indarkeria-mota horrek dakarren zama kontuan izan gabe. Jarrera horren ondorioa, tratu txarren kasuak araupetzeko eta biktimak diren emakumeak estereotipatzeko joera da, biktimizazio bikoitza dakarrena. Emakumeengandik beraiengandik hurbilago dagoen begirada falta da, genero-ikuspegia, alegia<sup>152</sup>.

Bestalde, maiz elkar topo egingo dutela aurreikusteko arrazoirik ez egotea, arrisku-egoera ez dagoela arrazoitzeko inguruabar zaharkitua iruditzen zait. Nahiz eta biktimaren eta erasotzailearen bizilekuak urrun egon, gaur egun, bestelako tresnak daude biktimari beldurra sortzeko, bere bizitzan eragiteko eta erasotzen jarraitzeko; sare sozialak, hain zuzen ere<sup>153</sup>.

Azkenik, biktimaren deklarazioan deskribatutako arrisku-egoera berresteko elementu periferikoen falta aztertuko dugu. Izan ere, lanean zehar askotan aipatu bezala, genero-indarkeria gehienetan intimitatean ematen da eta ondorioz, gerta liteke lekukorik ez egotea edo medikuaren parterik ez izatea (medikura edo gizarte-zerbitzuetara inoiz joan ez delako). Honen aurrean, bi ikuspegi kontrajarri aurki ditzakegu egindako elakrriketetan: alde batetik, ILARIA IBÁÑEZ Epaileak dionaren arabera, genero-indarkerian, garrantzitsua da alderdien inguruabar pertsonalen aniztasunera egokitzea, era horretan, bi alderdiei sinesgarritasun bera eman behar zaie, eta errugabetasun-presuntzioa beste delituetan bezalaxe bermatu behar da. Bere ustez, ezin dira genero-indarkeriako

---

*esos hechos, o el más reciente, el sentimiento de no querer aceptar esa ruptura el autor de los mismos provoca que pueda llegar a cometer un acto de mayor gravedad”.*

<sup>150</sup> Honela dio, PUENTE MARTÍNEZ, ALICIA; UBILLOS LANDA, SILVIA; ECHEBURÚA ODRIOZOLA eta PÁEZ ROVIRA, DARÍO, “Factores de riesgo asociados a la violencia sufrida por la mujer en la pareja: una revisión de meta-análisis y estudios recientes”, *Anales de psicología*, zk. 1., 2016, 301. or.

<sup>151</sup> LARRAURI PIJOAN, ELENA, “¿Se debe proteger a la mujer contra su voluntad?”, *Cuadernos Penales José María Lidón*, 2. zk., Deustuko Unibertsitatea, 2005, 160-162. or.

<sup>152</sup> LALIGA MOLLÁ, MONICA eta BONILLA CAMPOS, AMPARO, “Estudio socio-jurídico sobre el tratamiento de los delitos de violencia de género análisis del discurso de profesionales del ámbito judicial y policial”, CASADO MEJÍA, ROSA; FLECHA GARCIA, CONSUELO; GUIL BOZAL, ANA; PADILLA-CARMONA, MARÍA TERESA; VÁZQUEZ BERMÚDEZ, ISABEL; eta MARTÍNEZ TORRES, MARÍA DEL ROCIO (Koor.), *Aportaciones a la investigación sobre mujeres y género: V Congreso Universitario Internacional*, SIEMUS, Sevilla, 2015, 1159-1160. or.

<sup>153</sup> Oinarri bezala, aintzat hartuko dugu, 2021eko azaroaren 26ko Tarragonako PAA 654/2021, 1. OJ. Aipatu berri dugun inguruabarra erabakigarria izan zen arrisku-egoera objektiboan zegoela aitortzeko: *“Cabe identificar una situación objetiva de riesgo para la recurrente, que es preciso tutelar. Y en este sentido, es verdad que recurrente e investigado no viven en el mismo domicilio y ni si quiera en la misma localidad, pero ello no le habría impedido realizar las conductas descritas por la Sra. Socorro (que incluyen, no lo olvidemos, presentaciones en su vivienda, presentaciones en su lugar de trabajo, llamadas y envíos constantes desde el teléfono móvil, habiendo llegado a producir un sentimiento de desasosiego e intranquilidad en aquella, quien, como se ha dicho, habría tenido que llegar a bloquear el contacto del Sr. Marcial en su teléfono.”*

delituak direlako zantzuak eta arriskua diferente baloratu<sup>154</sup>. Beste alde batetik, ILARDIA OLANGUA-ren iritziari jarraiki, biktimek egiazkotasun-presuntzioa izan beharko lukete, hots, beldurra duela adierazten duen emakume bat dagoenean, epaileek, zalantzaren aurrean, babes-agindua eman beharko luketeela uste du. Hau oinarritzeko, estatistikak eta datu objektiboak azpimarratzen ditu, babesa eskatu zuten emakume erailak daudela salatuz<sup>155</sup>.

Amaitzeko, orain arte mahaigaineratuta 5 ideietan laburbildu daiteke: lehenengo, babes-aginduen ukapen kopuru altua dago; bigarren, barruti judizialean babes-aginduen ukapenen kopuruan ematen den ezberdintasun ikusgarria da; hirugarren, indarkeria ez-fisikoa ikusezina da sistema judizialean; laugarren, jurisprudentziak babes-aginduak genero-ikuspegia ezarri gabe ukatzen ditu; eta azkenik, babesa eskatu zuten emakume erailak daude.

### 3.2.2.3. Elkarrizketetatik ateratako ondorioak

Elkarrizketetatik ateratako ondorio nagusia hurrengoa izan da: babes-agindua erabakitzeke momentuan, biktimaren arrisku-egoera objektiboki baloratzeko giltzak organoen koordinazioa eta genero ikuspegia dira.

Batetik, elkarrizketan parte hartu duten lau agenteek (abokatua, fiskala, forentsea eta epailea), arriskua objektiboki baloratzeko judizio-elementu edo ezagutza espezifiko gehiago norik duen galderari emandako erantzuna hurrengoa da: prozesuan parte hartzen duten operadore bakoitzak bere tresnak ditu balorazioa egiteko, baina, beharrezkoa dena, momentu zehatz horretan, guztien elkarlana da. Zehatzago esanda, hasiera batean, poliziak egindako arriskuaren balorazioa daukagu, baina, honek izan ditzakeen gabeziak, forentseak egindako balorazioarekin bete daitezke; ostean, entzunaldia eginda, bai fiskalak bai abokatuak beren balorazioa egingo dute, bere argudioak epaileari aurkeztuz; eta azkenik, epaileak jasotako informazio eta txosten guztiekin, erabaki oinarritu eta sendo bat emateko aukera izango du<sup>156</sup>.

Bestetik, elkarrizketatuak izandako bai abokatuak bai fiskalak, genero-ikuspegia finkatzeko garrantzia azpimarratu dute. Fiskalaren hitzetan, zenbat eta denbora gehiago eman genero-indarkerian eskusiboki lan egiten, langileek orduan eta prestakuntza eta espezializazio gehiago lortzen dute, eta, aldi berean, genero-ikuspegia barneratu ere<sup>157</sup>. ILARDIA OLANGUA-ren ustez, operadore guztiek formakuntza jarraia eta espezifikoa beharko lukete, datu objektiboetan ikusten dugunez, genero-ikuspegia ez dagoenean gabezia asko sortzen dira, eta gabezia horiek bizitzak jartzen ditu arriskuan<sup>158</sup>.

---

<sup>154</sup> ILARIA IBAÑEZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 73. or.

<sup>155</sup> ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 77. or.

<sup>156</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 63-64. or.; ILARIA IBAÑEZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 72-73. or.; ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 79. or.; ABASOLO TELLERÍA, ANA EUGENIA, 5. Eranskina: Forentsearen elkarrizketa, 82. or.

<sup>157</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 64. or.

<sup>158</sup> ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 79. or.

Egindako ikerketa honekin nire harri-koskorra ekarri nahian, proposamen bat egitea gustatuko litzaidake, babes-aginduak babesteko helburua benetan bete dezan.

Nire proposamena, PKL-ren 544 *ter* 1. artikuluan arrisku-egoera objektiboa baloratzeko erreferentziako irizpideak jasotzen dituen zerrenda bat barneratzean datza. Proposamen honen helburu nagusia epaileak, genero-ikuspegitik adituek sortutako irizpideen zerrenda bat aurrean izatea da. Horrekin batera, zerrendan bertan, argi eta garbi utziko litzateke zein irizpide ezin diren erabili arriskua ez dagoela baloratzeko. Horrela, arestian aipatu ditugun genero-ikuspegi gabeko inguruabarrak ezabatu egingo lirateke. Halaber, garrantzitsua izango litzateke, zerrenda horren baitan, poliziaren eta forentsearen arriskuaren balorazioa kontuan izateko beharra adieraztea. Nire ustez, aldaketa honekin aurrerapauso bat emango litzateke, jurisprudentzia bateratzea ahalbidetuko luke eta emakumeak sistema judizialaren partetik babestuago egongo lirateke, beren egoera eta inguruabar bereziak ulertu eta kontuan izan direla sentituko luketeelako. Baina, legean egindako aldaketa hau guztiz eraginkorra izan dadin, prozesu honetan parte hartzen duten operadore guztiek genero-indarkerian eta genero-ikuspegiaren etengabeko formakuntza jaso beharko lukete.

Elkarrizketaren amaieran, sistema judizialean lan egiten duten hiru emakumeei nire proposamena aurkeztu diet, beren iritzia eman diezadaten. Lehenik, fiskalaren ustez, ez da beharrezkoa PKL-ren 544 *ter* artikuluan irizpideen zerrenda bat barneratzea, beste gauza bat da, epaileek babes-aginduak onartu eta ukatzeko izan beharrek genero-ikuspegia<sup>159</sup>. Bigarrenik, ILARIA IBAÑEZ epailearen iritzia dagokionez, ez zitzaion ideia txarra iruditu, baina bere iritziz, erreferentziazko irizpide batzuk sartzeak ez du babes-aginduak onartzeari edo ukatzeari buruzko jurisprudentzia bateratuko, kasu bakoitzak bere berezitasunak dituelako eta organo judizialek horietara egokitu behar dutelako<sup>160</sup>. Hirugarrenik, ILARDIA OLANGUA abokatuak nire proposamena entzun ostean, hurrengo adierazi zuen: *“Zaila da proposatzen duzuna, baina honekin amaitu behar da, ukatutako babes-agindu kopuru altua daukagu eta ez hori bakarrik, gainera, babesa eskatu zuten emakume erailak ere. Orain, babes-aginduak ukatzen dituzten autoek jasotzen dituzten irizpideek ez dute genero-ikuspegiaren arrastorik, epaileak ez daude formatuak, eta ez dute kasuetan asko ikertu nahi. Beraz, genero-ikuspegia barneratzeko ahaleginak inoiz egingo ez duten epaile asko daudenez, legearen aldaketa ideia ona izango litzateke; horrela, legeak ezarriko du genero-ikuspegitik arriskuaren balorazioa nola egin”*<sup>161</sup>.

---

<sup>159</sup> 1. Eranskina: Fiskalaren elkarrizketa, 65. or.

<sup>160</sup> ILARIA IBAÑEZ, BLANCA, 3. Eranskina: Epailearen elkarrizketa, 73-74. or.

<sup>161</sup> ILARDIA OLANGUA, BEATRIZ, 4. Eranskina: Abokatuaren elkarrizketa, 79-80. or.

## V. ONDORIO OROKORRAK ETA AZKEN HAUSNARKETAK

1. Babes-agindua, gaur egun, biktima babesteko dagoen tresnarik osoena da, kautela-neurri penalak barneratzeaz gain, behin-behineko neurri zibilak eta asistentzia izaerako neurriak jasotzen baititu. Hala ere, aztertu dugun gisan, ez ditu genero-indarkeria jasaten duten emakume oro babesten, bikote edo bikote-ohiaren eremuko biktimak bakarrik, hain zuzen. Ondorioz, Espainiako ordenamenduak Istanbulleko Hitzarmena bete eta genero-indarkeriaren kontzeptua zabaldu arte, gaitz-sozial honen biktima diren emakume askok ez dute tresna-juridiko hau egikaritzeko aukera izango, beren segurtasuna arriskuan utziz.
2. Babes-aginduaren izapidetza korrika eta presaka egiten den prozesua bihurtzeko arriskuan dago. Egia da, biktimari berehalako erantzuna eman behar zaiola, baina horrek ez du esan nahi, prozesua, bere horretan, pausuz-pausu era egokian egin behar ez denik. Horretarako, prozesu osoan parte hartzen duten agente guztien arteko koordinazio eraginkorra beharrezkoa da. Izan ere, prozesuan hainbat arazo identifikatu ditugu, burokratizatua den eta akatsez betea dagoen sistema judiziala agerian utzi duena. Hau aldatzeko erronka hurrengo aldarrikapenetan ikus dezakegu: epailearen jarrera aktiboa izan behar da ikerketa eginbideei dagokionez, Segurtasun-Indar eta -Kidegoen atestatuaren erredakzioa sakona izan behar da, epaitegietako instalazioak biktimaren beharretara egokitu behar dira, EAIE-en guardiako zerbitzuak beharrezkoak dira eta ikertua ez agertzea ezin da biktimak babesa jasotzeko traba izan.
3. Dударik gabe, babes-aginduaren edukia zabala da, eremu penala, zibila eta asistentziala barneratzen baitu. Hala ere, erabilienak diren kautela-neurri penalen eraginkortasuna kolokan dago, alderdien borondatearen menpe baitago. Hobeto esanda, emakumearen gain dago erantzukizun osoa, azken finean, bere askatasuna baita mugatzen dena, erasotzaileak bere debekua bete dezan bere bizitza aldatzen duena, alegia. Horretarako, giza-baliabide eta baliabide ekonomiko gehiagoren beharra dago, neurri hauen kontrola erasotzailean zentra dadin.
4. Babes-agindua onartzeko bi baldintzak, emakumea sistema-judizialetik urruntzeko tresna bihurtu dira. Horren isla, ukatutako babes-aginduen kopuru altua eta babesa eskatutako emakume erailen kopurua dugu. Gaur egungo jurisprudentzia, hiltzear egondako emakumea babestean zentratzen da, horrelako egoera bortitza heldu aurreko egoera xumeagoak ekiditeko ez da babesik ematen. Epaitegietan babesa eman behar den momentuan, ageriko lesio fisikoen faltan, intimitatean emandako indarkeria ikusezina da. Hau da, organo judizialek ez dute egitate zehatz baten atzean dagoen denbora luzeko indarkeria ikertu nahi, besteak beste, ez dituzte lesio psikologikoen txostenak eskatzen.

5. Arriskuaren balorazioari dagokionez, epaileak beren irizpide propioetan soilik oinarrituta egiten du, balorazio betea egiteko baliabideak alferrik galduz, besteak beste, ezinbestekoa iruditzen zaidan arriskuaren balorazio forentsea. Gainera, jurisprudentzia ikertuz, ikusi dugu arrisku-egoera ez dagoela adierazteko epaileek erabiltzen dituzten irizpideek genero-ikuspegi falta itzela dutela.
6. Babes-aginduarekin lotura duten agente guztien genero-ikuspegia eta formakuntza jarraia derrigorrezkoa izan beharko litzateke. Hots, emakumeek jasaten duten inguruabar bereziak ulertzea eta kontuan hartzea beren lanaren zeregin gisa hartu beharko lukete. Ertzainak biktima artatzen duen momentutik, epaileak babes-agindua eman ala ez erabakitzeke bere irizpideak erabiltzen dituen momentura arte, eragile judiriko guztiek funtsezko rola dute biktima babesteko prozesuan, beraz, jasotako formakuntzak eta honen aplikazioak emakumearen etorkizunean eragina izango du.
7. Babes-aginduak izapidetza prozeduran, neurrien eraginkortasunean eta onartzeko baldintzen erabakian gabeziak eta arazoak identifikatu ondoren, ikerketa lan honekin planteatutako galderari erantzun behar diogu: babes-aginduak biktimak babesteko helburua betetzen du? Bada, niri iritziz, babes-agindua biktima eremu guztietan babesteko tresna nagusia da, baina, gaur egungo sistema judizialak behin eta berriz porrot egiten du. Hala, sistema judizialaren erantzukizuna da biktimei babesa era eraginkorrean ematea, eta sistemak funtziona dezan, genero-ikuspegia, instituzioen arteko koordinazioa eta erasotzailean zentratutako kontrola ezinbestekoak dira. Hortaz, nire aburuz, babes-aginduak, gaur egungo sistemaren baitan, ez ditu biktimak bere osotasunean babesteko helburua betetzen. Hala ere, gabeziak konpontzeko garaiz gaudela pentsatzen dut<sup>162</sup>.
8. Honekin guztiarekin, unibertsala den genero-indarkeriarekin amaitzeko sustraietatik egin behar da erreforma erradikala. Aurrera pausuak emateko ez dugu Maguette Mbeugouren kasua gertatu arte itxaron behar. Aldaketa estruktural indartsu bat behar da, beharrezkoak diren baliabide guztiak hartu eta sistemak berak honen kontra borrokatu behar du. Matxismoa eta estatu patriarkala borrokatzeko tresnak daude, eta beraz, hauek martxan jartzea besterik ez dugu egin behar.

Lana hasi dudan moduan amaituko dut: *Maguettek laguntza eskatu zion sistema judizialari, baina ukatu egin zioten. Gaur, sistema horrek berak senarra kondenatu du Maguette erailtzeagatik.*

---

<sup>162</sup> Galdera nagusi hau elkarrizketetan guztiei egindako azken galdera izan da; bakoitzak bere egoera eta ikuspuntutik, bere iritzia eman du eta komenigarria izango litzateke banan-banan beren erantzunak irakurtzea.

## BIBLIOGRAFIA ETA BESTELAKO ITURRI OSAGARRIAK

### 1. Bibliografia

- ABASOLO TELLERIA, ANA EUGENIA, “Violencia contra la mujer: una visión médico-forense”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020.
- ÁLVAREZ ÁLVAREZ, HENAR, “La víctima de violencia de género y la atribución de la vivienda familiar”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009.
- ARAGONESES MARTÍNEZ, SARA, “Las medidas judiciales de protección y de seguridad de las víctimas de violencia de género”, *Tutela Penal y Judicial frente a la violencia de género*, Constitución y Leyes, COLEX, 2006.
- ARROM LOSCOS, ROSA, “Los juzgados de violencia sobre la mujer. Algunos problemas prácticos”, RAMON RIBAS, EDUARDO; ARROM LOSCOS, ROSA; eta NADAL GOMEZ, IRENE (Zuz.), *La protección frente a la violencia de género: tutela penal y procesal*, Dykinson, Madril, 2010.
- BELTRÁN ALEU, PURIFICACIÓN, “Protocolos de valoración del riesgo”, *Revista de l'Institut Universitari d'Investigació en Criminologia i Ciències Penals de la UV*, 21. zk., 2019.
- BERBELL, CARLOS, “La violencia doméstica en el mundo”, *Cuadernos de Derecho Judicial*, 2. zk., 2005.
- BERMÚDEZ REQUENA, JUAN MANUEL, “La orden de protección a favor de víctimas de violencia de género en la práctica de los tribunales”, *Actualidad jurídica Aranzadi*, 734. zk., 2007.
- BONILLA CORREA, JESÚS ÁNGEL, “La orden de protección de las víctimas de la violencia doméstica y de género”, *Boletín del Ministerio de Justicia*, 2002. zk., 2005
- BURGOS LADRÓN DE GUEVARA, JUAN, “La orden de protección europea: analogías y diferencias con la orden de protección del proceso penal español”, *Diario La Ley*, 8022. zk., 2013.
- CASTILLEJO MANZANARES, RAQUEL, “La orden de protección en el anteproyecto de ley de enjuiciamiento criminal”, *Revista de la asociación de profesores de derecho procesal de las universidades españolas*, 3. zk., 2021.
- CHARCO GÓMEZ, MARÍA LUZ, “La orden de protección para las víctimas de la violencia doméstica”, *Los juicios rápidos. Orden de Protección: análisis y balance*, Centro de Documentación Judicial, Madril, 2005.
- CHOCRÓN GIRÁLDEZ, ANA MARÍA, “Medidas cautelares y su quebrantamiento”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010.
- CUENCA RUIZ, ANA, “Orden de protección”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010
- DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT, “La orden de protección a las víctimas de la violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009.



- DE LA ROSA CORTINA, JOSÉ MIGUEL, *Tutela Cautelar de la Víctima. Órdenes de Alejamiento y Órdenes de Protección*, Thomson Aranzadi, Zizur Txikia, 2008
- DE LA TORRE OLIVER, MIRIAM, “Problemas de ejecución de la orden de protección para víctimas de violencia de género”, HERRERA MORENO, MYRIAM (Koor.), *Hostigamiento y hábitat social: una perspectiva victimológica*, Comares, Granada, 2008.
- DE LAMO RUBIO, JAIME, “La nueva Orden de protección de las víctimas de la violencia de doméstica, instaurada mediante Ley 27/2003, de 31 de julio”, *Actualidad Penal*, 42. zk., 2003.
- DEL POZO PÉREZ, MARTA, “El derecho procesal español ante la violencia de género: especial referencia a las últimas reformas”, *Revista Electrónica de Ciencias Jurídicas*, 2008.
- DEL POZO PÉREZ, MARTA, “La orden de protección de las víctimas de violencia doméstica”, IBÁÑEZ MARTÍNEZ, MARÍA LUISA eta FIGUERUELO BURRIEZA, ÁNGELA (Koor.), *El reto de la efectiva igualdad de oportunidades*, Comares, Granada, 2006.
- DEL POZO PÉREZ, MARTA, “Ventajas e inconvenientes de los juicios rápidos para la lucha contra la violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009.
- DELGADO ÁLVAREZ, CARMEN, “Raíces de la violencia de género”, MARCHAL ESCALONA, ANTONIO NICOLÁS (Koor.), *Manual de lucha contra la violencia de género*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2010.
- DÍAZ SERRANO, CLAUDIO, “La actuación policial en los delitos de violencia de género”, DE HOYOS SANCHO, MONTSERRAT (Zuz.), *Tutela jurisdiccional frente a la violencia de género: aspectos procesales, civiles, penales y laborales*, Lex nova, Valladolid, 2009.
- ESCOBAR JIMÉNEZ, RAFAEL, “Insuficiencias en el orden procesal con ocasión de la instrucción y enjuiciamiento de los delitos de violencia contra la mujer”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020.
- FERNÁNDEZ CUCÓ, JAVIER ÓSCAR, “La valoración del riesgo: La situación de las víctimas a lo largo del proceso judicial. Víctimas especialmente vulnerables: mujeres inmigrantes”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020.
- FERNÁNDEZ SALDAÑA, MARÍA MERCEDES, “Derecho de la víctima de violencia de género”, *Diario La Ley*, 9734. zk., 2020.
- FUENTES SORIANO, OLGA, “La perspectiva de género en el proceso penal. ¿refutación? de algunas conjeturas sostenidas en el trabajo de ramírez ortiz «el testimonio único de la víctima en el proceso penal desde la perspectiva de género»”, *Revista internacional sobre razonamiento probatorio*, zk. 1., 2020.
- GÓMEZ FERNÁNDEZ, ITZIAR, “Hijas e hijos víctimas de la violencia de género”, *Revista Aranzadi Doctrinal*, 8. zk., 2018
- GONZÁLEZ ÁLVAREZ, JOSÉ LUIS; LÓPEZ OSSORIO, JUAN JOSÉ, RODRÍGUEZ DÍAZ, MARINA; eta URRUELA CORTÉS, CARLOTA, “Sistema de Seguimiento Integral de los Casos de Violencia de Género: Sistema Vio Gén”, *Behavior & Law Journal*, 1. zk., 2018.
- GONZÁLEZ SÁNCHEZ, JULIÁN ÁNGEL, *La orden de protección de las víctimas de violencia domestica y de género*, Sepín, Las Rozas, 2014.

- IZQUIERDO TÉLLEZ, CARLOS ALBERTO, *El juicio por delito leve ante el juzgado de violencia sobre la mujer*, Centro de Estudios Jurídicos, Madril, 2017.
- ZULUETA ÁLVAREZ, ANA JESÚS, “La protección de la víctima en el ámbito de violencia de género”, *Revisión de las políticas y prácticas ante la violencia de género, Cuadernos penales José María Lidón*, 16. zk., 2020.
**5. ¿Cree que es correcta la valoración del riesgo que hace el juez o la jueza sin el auxilio de otros recursos (por ejemplo, la valoración forense de riesgo), aparte de su propia experiencia, criterio y percepción después de escuchar las declaraciones de la audiencia?**

Creo que todos los auxilios son bienvenidos, y siempre va a ser mejor tener diferentes fuentes para tomar la decisión. Pero la propia dinámica de los juzgados, hace imposible que haya informes adicionales para valorar el riesgo objetivo. La valoración policial del riesgo viene junto con el atestado y es una fuente que tengo en cuenta, pero, en el caso de la valoración forense del riesgo es mucho más complicado. La elaboración de los informes supone mucho tiempo de espera, que no tenemos en los casos de las órdenes de protección. Es verdad, que en un curso que hice hace poco, nos dijeron que teníamos la posibilidad de pedir la valoración forense urgente del riesgo; yo no la he pedido nunca. En mi opinión, cuando los jueces y las juezas hacemos la valoración del riesgo sin otros recursos que nuestro criterio y percepción, es por la dinámica de los juzgados, esto es, a veces es inviable tener esos recursos.

**6. ¿Quién cree que tiene más elementos de juicio o conocimientos específicos para valorar objetivamente el riesgo?**

No sabría decir quién es la persona que más elementos y conocimientos tiene. Creo que la valoración debe hacerse en unidad de agentes: jueces, fiscales, abogados, policías y forenses. Y la unidad tiene que ser temporal, esto es, todos tenemos que hacer nuestra valoración desde el punto de vista de nuestra profesión en el mismo espacio-

tiempo. Por ejemplo, yo propongo que el forense asista a las declaraciones de las partes en la audiencia junto al fiscal y abogadas/os. Así, el forense iría analizando y tomando notas, para poder hacer la valoración forense del riesgo en el mismo acto o en un corto espacio de tiempo. Yo creo que así las juezas y los jueces podríamos tener en cuenta la valoración forense del riesgo, junto con la valoración policial y nuestra propia percepción.

**7. ¿Cree que falta perspectiva de género en la valoración del riesgo que hacen los órganos judiciales (Juez/a, Fiscal)?**

No lo creo. La perspectiva de género está ahí, pero le doy la misma credibilidad a las dos partes, y la presunción de inocencia es igual que en diferentes delitos. No podemos valorar los indicios y el riesgo de diferente forma por ser delitos de violencia de género. En violencia de género, es muy importante que los órganos judiciales tengamos en cuenta las circunstancias personales de las partes. Tenemos que adecuarnos a la variedad de circunstancias que puede tener cada caso. Creo que no hay denuncias falsas, sino que hay actitudes y problemas en la pareja que el derecho penal no puede solucionar o otros que es necesaria la actuación penal para acabar con esa violencia.

*La Fiscalía, en la memoria anual de 2020, advirtió que los juzgados siguen infrutilizando los informes forenses para sustentar la adopción o denegación de la orden de protección.*

**8. ¿Por qué cree que los órganos judiciales no suelen solicitar informes al médico forense como fundamento para adoptar o denegar la orden de protección?**

En la dinámica de los juzgados, muchas veces es inviable, teniendo en cuenta que en este proceso solo hay 72 horas para conseguir toda la información posible para sustentar la concesión o denegación de la orden de protección.

**9. ¿Cree que deberían tener unidades de valoración integral forense de VG exclusivos o un médico forense de guardia exclusivo en los juzgados de violencia contra la mujer?**

Vendría muy bien. Pero creo que de momento es imposible. Como ya he propuesto antes, teniendo en cuenta la dinámica de los juzgados hoy en día, sería eficiente si el forense estuviera presente en la declaración y pudiera dar la valoración del riesgo en un periodo corto de tiempo.

**10. ¿Cree que se debería introducir en el artículo 544 ter de la LECrim un listado no cerrado de criterios de referencia de la situación de objetiva de riesgo?**

Creo que cada caso es diferente y que cada jueza o juez es responsable de cada decisión que toma. No estaría demás introducir un listado de criterios de referencia, aunque creo que todos solemos valorar los mismos elementos y circunstancias. Pero no sé si tendría alguna consecuencia en la diferencia de porcentajes según los partidos judiciales. Yo introduciría estos criterios de referencia:

- La edad de la víctima denota vulnerabilidad

- Circunstancias personales de las partes (hijos, salarios, enfermedades psíquicas, domicilio familiar...)
- Gravedad de los hechos y el delito objeto de la investigación
- Antecedentes penales
- Valoraciones del riesgo de otros órganos (policías, forense de guardia, UVFI)
- Informes forenses de las lesiones

Como ya he dicho, no creo que introducir unos criterios de referencia vaya a unificar la jurisprudencia en cuanto a la adopción o denegación de la orden, porque cada caso tiene sus particularidades y los órganos judiciales tienen que adecuarse a ellas.

### Conclusión

#### **11. ¿Cree que son eficaces las órdenes de protección? ¿Por qué?**

**En la práctica, ¿cree que se está cumpliendo el objetivo de protección que tiene?**

Sí, creo que las órdenes de protección son eficaces, es la herramienta judicial que tenemos para proteger a las víctimas. Pero, es cierto que hay muchos quebrantamientos. Por un lado, es muy importante tener la voluntad de la víctima, y que en todos los casos que haya un quebrantamiento por parte del agresor ella no lo consienta y avise. Por otro lado, la voluntad del agresor es esencial, por que si quiere matarla lo va a hacer teniendo orden o no. Por eso es muy importante, que entienda lo que supone tener una orden de protección en su contra y ser consciente de que consecuencias tiene quebrantarla. Como conclusión, sí que creo que en la práctica la orden de protección ha ayudado a muchas mujeres, y aunque haya quebrantamientos, se cumple el objetivo de protección en muchos casos.

#### **4. ERANSKINA: Abokatuaren elkarrizketa**

**Beatriz Ilardia Olangua**

**Bilbon, 2022ko apirilaren 21a**

*Emakumeen aurkako Indarkeriaren Estatuko Behatokiaren arabera, 2021ean, salaketa jarri zuten genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen % 25-ak babes-agindua eskatu zuen, baina, eskaera ez zen onartu. Urte berean, 37.270 PKL-ko 544 bis artikuluan aurreikusitako kautela-neurri eta babes-agindu abiarazi ziren Emakumearen aurkako Indarkeria arloko Epaitegietan; 10.883 ukatu egin ziren.*

*Bai Fiskaltzaren 2020ko azken memorian, bai Genero-indarkeriaren aurkako Estatu Itunerako Senatuan egindako Genero-Indarkeriaren aurkako estrategien txostenean, bai GREVIO-k Espainiar Estatuari buruz egindako ebaluazio txostenan, autonomia-erkidegoen arabera babes-aginduen ukapen kopuruaren desberdintasun nabariari egiten diote erreferentzia: Alde batetik, babes-agindu kopuru txikia ukatzen duten autonomia erkidegoak ditugu, Errioxa (% 12), Aragoi (% 13) eta Valentzia (% 15), eta, bestetik, ukapen kopuru altua dutenak, Katalunia (% 52), Madril (% 49) eta Euskadi (% 44), alegia.*

*Ezberdintasuna, barruti judizialaren arabera ere ikus daiteke. Esate baterako, Bilbon hasitako babes-aginduetatik % 57,85 ukatu ziren, eta Almerian, aldiz, % 1,1 baino ez. Gainera, probintzia berean dauden barruti judizial ezberdinetan, ukatutako babes-aginduen aldea izugarria da. Adibidez, Huelvako probintzian, Huelva hiriburuan, irekitako babes-aginduen %2,5 bakarrik ukatu ziren, eta, alderantziz, La Palma del Condadon % 53 babes-agindu ukatu dira.*

##### **1. Zure ustez, zergatik ukatzen dira hainbeste babes-agindu?**

Hainbat arrazoi daudela esango nuke. Lehengo eta behin, operadore guztien aldetik genero-indarkerian formazio falta dago, genero-ikuspegiarekin formazio falta itzela dago. Genero-indarkeriarekin lan egiten duten operadore guztiek beharko lukete formazio espezifiko eta jarraia. Formazio espezifikorik ez dagoenean, gabezia asko sortzen dira; hots, adibidez, tratu txarraz ari garenean, ez gara eraso batetaz ari, tratu txarrak askoz gehiago dira, eta operadoreek hau ulertu eta bere lanean aplikatu beharra dute.

Bigarrenik, salaketa gehienak komisaldegian egiten dira. Polizia gehienak ez daude formatuak. Alde batetik, pertsona bakoitzaren esku dago, biktimari tratu edo artatze hobeagoa ematea ala ez. Baina, bestetik, poliziek genero-indarkeria inguruko ezjakintza daukagu. Hala, emakumea salaketa egitera doanean, eskatzen diote salaketa eragin duen gertakarian zentratu dadin; esaterako, hurrengo esaldia bilatzen dute “gaur nire senarrak mehatxatu nau”. Baina, genero-indarkeria ez da egitate bakar bat, emakumea komisaldegira doanean, ez gaude egitate puntual eta espontaneo baten aurrean, baizik eta egitatea horrek emakume horri salaketa jartzeko bide eman diona izan

da. Beraz, Poliziek egiten dituzten atestatuak oso garrantzitsuak dira, epaitegietan hartzen den erabakiari begira.

Hirugarrenik, biktimei ez zaie sinesten. Epaitegietan, biktimak salatutakoa egitate isolatu gisa hartzen dute, bere testuingurua nolakoa den jakiteko eta ulertzeko ahaleginik egin gabe. Organo judizialek gehiago ikertu beharko lukete eta egitate zehatz horretan ez zentratu, hots, bere buruari galdetu: “zergatik dauka beldurra emakume honek?”, “emakume hau zergatik etorri da hona?”, “zerk ekarri du hona?”... eta ostean, ikertzeko baliabideak erabili.

Laugarrenik, Epaileak egindako arriskuaren balorazioa oso subjektiboa da. Gainera, subjektibotasun horri, formazio espezifikoa ez duela gehitzen badiogu, kutsu barik egindako arriskuaren neurketa bihurtzen da; horrelako esaldiak esaten dira: “no da el perfil”, “no es para tanto”, “solo me está contando una amenaza”...

Bosgarrenik, Epaileek ez dute frogabiderik eskatzen. Adibidez, abokatuak eskatzen ez badu edo oso larria den eraso fisiko baten aurrean ez bagaude, ez dute biktima forentsetik pasatzeko eskatzen. Bestetik, ez dituzte UVFI-ak egiten dituen balorazioak eskatzen.

Seigarrenik, Epaitegiak kolapsatuta daude. Emakumeen Aurkako Indarkeria arloko Epaitegietako funtzionarioak etengabe aldatzen dira, gainontzeko epaitegietako funtzionarioekin alderatuta, lanez gainezka daudelako, guardiak bikoiztu egiten direlako eta honen aurrean, gehiago ordaintzen ez dietelako; ondorioz, alde egiten dute ahal duten bezain pronto. Eta horrek zer dakar? Etengabe funtzionario berriak sartzen joatea eta beraz, lana atzeratzea, Epaitegiak kolapsatzea eta Epailea lanez gainezka egotea, ondorioz, ikerketa sakona egiteko ahaleginik ez egitea dakar.

Zazpigarrenik, genero-indarkeriaren biktima diren emakume hauek, askotan, urte askotako indarkeria jasan dute, normalean psikologikoa. Horrek dakar, emakume hauek ez dutela koherentziaz eta era logikoan kontaketa egiten. Gehienetan, biktimek garrantzia ematen diote salaketa jartzera bultzatu duen gertaera horri, eta gainera, ez dute bere burua biktimatzat onartu momentu horretara arte edo orain bez. Emakume hauei beren egoeraren arabera, tresnak eman behar zaizkie, hots, batzuetan, indarkeria horretatik ateratzeko konponbidea salaketa egitea da, bestetan dibortzioa nahikoa zaie edo lana topatzea edo diru-laguntza bat jasotzea... Izan ere, kasu batzuetan, abokatuok biktimari prozesu nola doan azaltzen diogun momentuan, atzera egiten dute. Baina, errealitatean, ezin da atzera egin, eta kasuak epaitegian amaitzen dute, eta epailea haserretu egiten da deklaratu nahi ez duelako. Arazoa da, sarritan, biktimak babes-aginduaren eskaera eta salaketa jarri aurretik ez dutela inolako informaziorik jasotzen; hau gertatzen da, askotan, poliziak ez duelako abokatu itxaroten, eta automatikoki, atestatua egiten dute, biktimak salatu nahi ala ez kontuan izan gabe.

Zortzigarrenik, genero-indarkeria turnoko abokatuaren genero-ikuspegiaren falta ere nabaria da. Formakuntza eskasa da, urtero online kurtso bat dago, eta gero, gure esku dago gehiago formatu nahi garen ala ez. Beraz, egokitutako abokatuaren arabera, egitate

Babes-agindua genero-indarkeria: gaur egungo sistema judizialak biktimak babesten ditu?

puntual horri soilik emango dio garrantzia edo egitate zehatz horren atzean dagoena argira ateratzen saiatuko da.

Azkenik, poliziaren arriskuaren balorazioari dagokionez, item-ak zaharkituta daudela eta aldatu behar direla uste dut.

*Prozedura Kriminalaren Legearen 544 ter artikulua ezartzen duen bezala, babes-agindua emateko bi baldintza bete behar dira:*

*1) Bizitzaren, osotasun fisiko edo moralaren, sexu-askatasunaren, askatasunaren edo segurtasunaren aurkako delitua edo falta egin izanaren zantzu oinarrituak izatea.*

*2) Babestu nahi den pertsonaren jokabideak biktimarentzat sortutako arrisku-egoera objektiboa.*

## **2. Zure ustez, zer inguruabar edo elementu hartzen ditu kontuan epaileak babes-agindu bat ukatzeko edo onartzeko?**

Lehenengo, emakumeak salatutako delitu zehatza hartzen du kontuan. Ez du egitate horren atzen egon daitekeen indarkeria gehigarrian ikerketarik egiten. Ikerketa sakona egitea beharrezko da, emakumeak bizitako indarkeria ezagutzea. Atestatuan jasotakoa oso garrantzitsua da, epaileak irakurriko duen lehengo gauza baita. Salaketa jartzerako orduan, informazio faltak, biktimak egitate zehatz horretan soilik zentratzea eragiten du. Momentu horretan, abokatuok zeregin garrantzitsua daukagu; hots, biktimari arriskua demostratu behar dugula azaldu behar diogu eta gainerako inguruabarrak eta kontaketa osoa egiten hasi (lekukoak, mezuak, psikologo baten txostena... biltzen hasi). Horretarako, poliziek gu heltzera itxaron behar dute, atestatua egiten hasi aurretik. Horrekin batera, poliziek atestatuan ezaugarri eta zehaztasun gehiago jaso beharko lituzke.

Bestetik, biktimaren deklarazioa daukagu. Nire iritziz, biktimek egiazkotasun-presuntzioa izan beharko lukete, badago AG eta AK-ren doktrina jurisprudenziala, non esaten den biktimaren deklarazioa nahikoa izan daitekeela errugabetasun-presuntzioa apurtzeko. Ildo horretatik, emakumeak beldurra duela esaten duenean, epaileak, kautela-printzipioa hartuta, babesa eman beharko lioke. Bi eskubideek talka egingo dute, erasotzailearen zirkulatzeko eskubidea eta biktimaren segurtasuna. Nire aburuz, epaileak bi eskubide hauek aurrean jarri beharko lituzke, eta formakuntza nahikoa eta jarraia izatekotan, zalantzaren aurrean, babes-agindua emango luke. Arestian aipatutako datu objektiboak ikustea besterik ez dago, sistema judizialari babesa eskatu zioten emakume erailak daude. 1/2004 Lege Organikoa indarrean sartu zenean, askoz ere babes-neurri gehiago ematen ziren. Geroztik, zenbakiak behera egin dute, salaketa faltsuen teoria eta emakumeek salaketak umeak kentzeko eta beren senarren bizitza suntsitzeko egiten dituztelako diskurtsoak indar handia hartu baitute.

Horrekin batera, epaileek lesio fisikoa egoteari garrantzia ematen diote. Beltzune bat badago, babes-agindua ematen dute. Baina, beltzune horren atzean, indarkeria psikologikoa dago, garrantzia ematen ez zaiona. Orduan, indarkeria psikologikoa



bakarrik dagoen kasuetan oso zaila izaten da babes-agindua onartzea, ez dute ikertu nahi, ez dituzte froga-biderik eskatzen.

1) Baldintza: delitu baten zantzu oinarrituak

**3. Zein argudiotan oinarritzen dira organo judizialak indarkeria ez-fisikoko kasuetan (esaterako, indarkeria psikologikoa edo ekonomikoa), delituaren zantzu oinarrituak daudela ondorioztatzeko eta babes-agindu baten beharra oinarritzeko?**

Indarkeria ez-fisikoaz ari garenean, arrastoak egotea beharrezko da, biktimaren hitzak bakarrik ez baitu balio. Hau da, indarkeria ez-fisikoko kasuetan, delitu zantzuak egongo dira, txosten psikologiko bat edo froga fisikoak (deien erregistroa, whatsapp-eko mezuak) edo lekukoak daudenean edo ikertuak aurrekari penalak dituenen. Horrelakorik ez badago, biktimaren berbarekin bakarrik, oso zaila da indarkeria ez-fisikoaren kasuetan, epaileak zantzu oinarrituak daudela aitortzea eta beraz, babes-agindua onartzea.

**4. Zure ustez, beharrezkoa da, indarkeria ez-fisikoko kasuetan, organo judizialek forentseari txostenak eskatzea babes-agindu baten beharra oinarritzeko?**

Bai, noski beharrezkoak direla. Sarritan eskatzen dugu lesio psikologikoen inguruan forentseak biktima ikus dezan, eta ukatuak izaten dira. Zein da arrazoa? Organo judizialek denbora galdu nahi ez dutela, eta horretarako, judizio azkarra egiten dute, presazko eginbideak eginez. Ez zaie egitate zehatz horren atzean dagoen indarkeria ikertzea interesatzen, aurretiazko eginbide bihurtuko baita eta horrek lana eta denbora suposatzen baitu. Beraz, epaitegien kolapsoa txikiagoa izan dadin, abokatuok eskatutako forentsearen txosten hauek ukatu egiten dituzte.

2) Bigarren baldintza: arrisku-egoera objektiboa

**5. Zure ustez, zuzena da epaileak beste baliabide batzuen laguntzarik gabe (adibidez, arriskuaren balorazio forentsea) egiten duen arriskuaren balorazioa, hots, bere esperientzia, irizpide eta pertzepzio soilaz egiten duen balorazioa egokia iruditzen zaizu?**

Ni ustez ez da zuzena epaileak bestelako baliabide gabe egiten duen arriskuaren balorazioa, eta are gutxiago, formaziorik ez daukaten epaileek egiten duten balorazioa. Adibide bat jartzearren, Maguette Mbeugouren kasua daukagu. Emakume horrek laguntza eskatu zuen, bere senarrak hil egingo zuela mehatxatu zuela salatu zuen, eta epaileak urruntze-agindua ukatu zuen, arrisku-egoera ez zegoela adieraziz. Maguette eraila izan zen. Kasu hauetan, zerbitzu sozialak ere kontuan hartu beharko lirateke. Gehienetan, emakumeek, komisaldegira joan aurretik, zerbitzu sozialetan kontatzen dute beraien istorioa. Baina, zoritxarrez, zerbitzu honetan ere formazioa falta eta kolapso itzela dago, eta test arin bat eginez, bere beharrak asetzeko baliabideak hartzen dituzte.

**6. Zure ustez, nork ditu judizio-elementu edo ezagutza espezifiko gehiago arriskua objektiboki baloratzeko?**

Batetik, forentse eta zerbitzu sozialetako operadore espezializatuak, genero-ikuspegian eta indarkerietan formazio jarraia dutenak. Zerbitzu-sozialek balorazio txostena oso erabilgarria izan daiteke praktika judizialean; esaterako, txostenean agertzea nola orain dela urte batzuk salaketa jarri duen emakume zerbitzu-sozietara joan zela, dibortziatu nahi zuela esanez, baina baliabide faltagatik ezin zuela. Bestetik, epaileak, fiskalak eta abokatuak, formazioa etengabe jasota. Amaitzeko, polizia egiten duen arriskuaren balorazioa dago, baina item-ak aldatu eta berridatzi behar dira.

**7. Zure ustez, genero-ikuspegia falta da organo judizialek (epaileak, fiskalak) egiten duten arriskuaren balorazioan?**

Duda barik, bai, genero-ikuspegia falta da arriskuaren balorazioan. Arazo larrienetariko bat da. Emakumeak dituen inguruabar bereziak (menpekotasun emozionala, ekonomikoa, kulturala...) ez dira kontuan hartzen arriskuaren balorazioa egiten denean. Askotan, epaileek adierazten dute ezin dutela arriskua dagoenik aitortu, egitateak gertatu ziren egun berean batera lo egin bazuten. Genero-ikuspegi falta itzela dago organo judizialen partetik.

*Fiskaltzak, 2020ko urteko memorian, ohartarazi zuen epaitegiek oraindik ere gutxiegi erabiltzen dituztela auzitegiko medikuen txostenak babes-agindua onartu edo ukatzeko.*

**8. Zergatik uste duzu organo judizialek ez diotela forentseari txostenik eskatzen babes-agindua onartzeko edo ukatzeko oinarri gisa?**

Txosten hauek eskatzeak suposatzen duelako presazko eginbideak aurretiazko eginbide bihurtuko direla, eta beraz, ez dela judizio azkar bezala tramitatuko. Aurretiazko eginbide bihurtzeak lan gehiago dakar, kolapsoan jarraitzea, alegia; eta horrela jarraituko du, baliabide oso urriak baitaude.

**9. Uste duzu Emakumearen Aurkako Indarkeriaren arloko Epaitegiek, UVFI eskusiboak edo guardiako forentse eskusiboak izan beharko litzuketela?**

Bai noski. Lagunduko luke arriskuaren balorazioa egiteari begira eta prozesua arinduko luke, beti ere forentseak formakuntza espezializatua badute.

**10. Zure ustez, Prozedura Kriminalaren Legearen 544 ter artikuluan, arrisku-egoera objektiboa baloratzeko erreferentzia-irizpideen zerrenda bat (itxia ez dena) sartu beharko litzateke?**

Idea ona iruditzen zait legean barneratzea bai zein irizpide erabili behar den bai zein ezin den erabili; horrela, genero-ikuspegitik sortutako irizpideak egongo lirateke eta horien kontrakoak kanpo geratuko lirateke. Esaterako, zaintza partekatua ez emateko irizpide oso markatuak eta tasatuak daude. Gure kasura ekarrita, legearen erreforma horretan barneratu ahal izango litzateke; adibidez, babes-agindua emango da beti, salbu kasu honetan, bestean zein bestean. Hala ere, zaila da proposatzen duzuna, baina honekin

amaitu behar da, ukatutako babes-agindu kopuru altua daukagu eta ez hori bakarrik, gainera, babesa eskatu zuten emakume erailak ere. Orain, babes-aginduak ukatzen dituzten autoek jasotzen dituzten irizpideak ez dute genero-ikuspegiaren arrastorik, epaileak ez daude formatuak, eta ez dute kasuetan asko ikertu nahi.

Beraz, epaile asko daudenez genero-ikuspegia barneratzeko ahaleginak inoiz egingo ez dutenak, ba bai, ideia ona izango litzateke; horrela, legeak ezarriko die nola erabaki babes-agindua.

### Ondorioa

#### **11. ¿Babes-aginduak eraginkorrak direla uste duzu? Zergatik?**

##### **Praktikan, biktimak babesteko helburua betetzen ari da?**

Emakumea erail nahi duen gizonak, egingo du, babes-agindua izan ala ez. Baina, egia da, zorionez, bestelako kasu askotan babes-aginduak erasotzailea geldiaraziko duela. Erasotzaileek ez dute espero emakumeek salaketa egitea, eta orduan, emakumeak kontrol hori apurtzen eta babesa jasotzen duenean, batzuk ez dute ezer egiten eta beste batzuk neurriak apurtzen dituzte. Beraz, kasu askotan efektiboak dira, eta emakumeari lasaitasun minimo bat ematen dio. Emakumeak laguntza eskatzen duenean, laguntza eman behar zaio. Emakume bakoitzak bere tresnak beharko ditu: batzuetan, bide judizialek abiatzea izan daiteke, eta beste batzuetan, lana topatzea, diru-laguntza bat jasotzea edo pisu bat lortzea da emakumeak indarkeria horretatik ateratzeko behar duena. Baina, ez daude baliabiderik emakume bakoitzari behar duen laguntza emateko. Orduan, gertatzen dena da batzuetan bere erasotzailearekin bueltatzen direla. Gizarte honek dauka onartzen duen indarkeria maila. Gizarte honek genero-indarkeria toleratzen du, eta bestelako indarkeria mota izatekotan, bestelako baliabide maila batzuetaz arituko ginateke.

Argi izan behar dugu, genero-indarkeriaren kontra borrokatzeari dagokionez, sistemak ez duela funtzionatzen. Baina, ez du funtzionatzen egiten diren legeak eta erreformak aurpegiak zurrizteko egiten direlako; hau da, kasu potoloa ematen denean (adibidez, manada kasua) eta horren atzean mobilizazioak daudenean, legeen aldaketen behararen oihartzunak hasten dira. Legeen aldaketaren arrazoia ez da “genero-indarkeriarekin amaitu nahi dugu eta horretarako, beharrezkoak diren baliabide guztiak erabiliko ditugu”, baizik eta zurrizteko.

## **5. ERANSKINA: Forentsearen elkarrizketa**

**Ana Eugenia Abasolo Tellería**

**Bilbon, 2022ko apirilaren 25a**

*La Fiscalía, en la memoria anual de 2020, advirtió que los juzgados siguen infrutilizando los informes forenses para sustentar la adopción o denegación de la orden de protección.*

### **1. ¿Cree que es necesario que los órganos judiciales soliciten informes al médico forense para fundamentar la adopción o denegación de la orden de protección?**

Primero de todo, los/las forenses actuamos en dos tiempos, en función de guardia o de forma programada. En función de guardia, actúa cualquier médico forense que está de guardia, que normalmente se centra en las lesiones físicas. Mientras que de la actuación de forma programada la realiza la UVFI, formado por psicólogos, trabajadores sociales y médicos forenses especializados en psiquiatría. En la UVFI hacemos entrevistas en profundidad tanto a la víctima como al agresor y valoramos nuestros parámetros, que ya son muy amplios.

Segundo, para la adopción de la orden de protección, hacer valoraciones del riesgo es muy complicado, es necesaria mucha información y tiene que ser información de calidad. Y eso en una guardia es muy difícil, porque el/la forense de guardia no sabe a quién va a ver y entrevistar, según llegan los casos los va valorando, por lo tanto, en una guardia es difícil conseguir información para hacer una valoración. En cambio, en la UVFI sabemos quién va a venir, y tenemos tiempo para recolectar información. Yo creo que las valoraciones del riesgo hechas en las guardias serían una ilusión de mejora.

Entonces, los dos problemas hoy en día son los siguientes: el/la forense en funciones de guardia normalmente solo valora la lesión física y la UVFI no hace guardias. La UVFI no está pensada para hacer guardias. Si esta unidad tuviera recursos de personal para hacer guardias, creo que nuestros informes se tendrían en cuenta para fundamentar la orden de protección. Pero, para que hubiera una unidad siempre de guardia, tendríamos que doblar el personal. Pero, ahora mismo, la UVFI de Bizkaia somos una unidad pequeña y no tenemos recursos para hacerlo.

### **2. ¿Cree que deberían tener unidades de valoración integral forense de VG exclusivos o un médico forense de guardia exclusivo en los juzgados de violencia contra la mujer?**

Sí. En Bilbao, diariamente tenemos una persona en funciones de guardia que solamente trata temas de violencia de género, pero, como ya he dicho antes, en la guardia, solo se dedica a las lesiones físicas. Creo que un equipo (psicólogos, trabajadores sociales y médicos forenses) exclusivo en los juzgados de violencia contra la mujer sería lo adecuado.

*En 2020 en los Juzgados de Violencia sobre la Mujer de Alicante hubo 2.352 actuaciones por parte del Instituto de Medicina Legal y Ciencias Forenses de Alicante, sin contar las actuaciones solicitadas por el Juzgado de Instrucción de varios partidos judiciales que carecen de Juzgado de Violencia sobre la Mujer. En el caso de Alicante, el porcentaje de denegaciones de las órdenes de protección es muy bajo, exactamente, 11,58%.*

**3. ¿Por qué cree que en los partidos judiciales donde más informes forenses se solicitan se adoptan más órdenes de protección?**

Yo creo que ahí hay unos criterios judiciales que a mi se me escapan. Creo que dentro de una Audiencia Provincial hay influencias y tendencias judiciales que a mi se me escapan. Sí que es verdad que creo que la justicia es una entidad en la que no solo están los jueces y las juezas, sino que estamos muchos profesionales diferentes, cada uno/una con criterios distintos, y eso hace que nos influenciamos entre nosotros. Es decir, los informes forenses y su interpretación tiene su repercusión en las sentencias. También, la relación entre el juez o la jueza y la/el forense es importante; por ejemplo, el juez o la jueza hace una pregunta al forense, y esta contesta en este paciente veo esto o a este tipo de víctima les pasa lo otro. Ese contacto diario entre juez y forense puede tener mucha influencia en cómo los jueces y las juezas interpretan las cosas.

*Como el artículo 544 ter de la LECrim determina, para la adopción de la orden de protección se requiere la concurrencia de dos presupuestos:*

*1) Existencia de indicios fundados de la comisión de un delito o falta contra la vida, la integridad física o moral, la libertad sexual, la libertad o seguridad de alguna de las personas mencionadas en el art. 173.2 CP por la persona respecto a la que se solicita la protección.*

*2) Situación objetiva de riesgo para la víctima creada por el proceder de la persona de la que se pretende ser protegida.*

*1) Primer presupuesto: existencia de indicios fundados de un delito*

**4. ¿Cree que es necesario que los órganos judiciales soliciten informes al médico forense para sustentar la necesidad de una orden de protección en los casos de violencia no física (como, por ejemplo, la violencia psicológica o violencia económica)?**

Sí. Cuando se fundó la UVFI de Bizkaia en el 2009, uno de los criterios de derivación de casos era que hubiese poca prueba en los casos de violencia psicológica. Por eso, ahora, en casos de violencia no física, el informe forense actúa como elemento de objetivación. Por ejemplo, como médico forense, si digo que esta paciente tiene una depresión vinculada causalmente con los hechos denunciados, ya estoy dando una credibilidad y estoy, de una forma, certificando que esos malos tratos existieron.

*2) Segundo presupuesto: situación de riesgo objetivo para la víctima*

**5. ¿Quién cree que tiene más elementos de juicio o conocimientos específicos para valorar objetivamente el riesgo?**

Por un lado, la Ertzaintza tiene mucha información, pero también tiene información criminalística (antecedentes penales, policiales etc.). Pero no tiene la información clínica que tiene el/la forense. Yo analizo como es el agresor, que perfil de personalidad tiene, si consume alcohol o drogas, si está en un tratamiento. Es decir, la objetivación del riesgo se complementa, yo creo que es igual de valiosa la información de la Ertzaintza como la nuestra.

**6. ¿En el caso que se solicite informe del/de la médico forense por razón de una solicitud de una orden de protección, utilizáis el Protocolo de valoración forense urgente del riesgo de VG 2020?**

No. Tenemos muchos problemas. Este protocolo que establece el ministerio, está ligado al sistema VioGen. Yo soy un cuerpo nacional, aunque trabaje para el Gobierno Vasco. Entonces, la Comunidad Autónoma Vasca, somos la única comunidad que no tenemos acceso al sistema VioGen. Aquí tenemos el sistema EBA, que todavía está en proceso de creación. Si yo tuviera acceso a VioGen, claro que utilizaría este protocolo. Me parece una herramienta muy poderosa, porque, a tiempo real, tienes mucha información. Pero, aquí, por ahora, esa información la tengo que buscar con un candil; todavía hacemos la valoración del riesgo de lápiz y papel. Por lo tanto, ahora mismo, hacer en una guardia de 24 horas, una valoración urgente del riesgo es muy complicado porque la información es escasa. En una guardia, yo no sé si el agresor tiene antecedentes penales, si le han denunciado más veces, si le han detenido más veces... Esa información la voy buscando y consiguiendo, y cuando llego a la UVFI, un mes más tarde. Pero lo que te digo, si tengo una plataforma informática, como VioGén, que me da todos esos datos, claro que lo utilizaríamos. Yo creo que la Comunidad Vasca, en ese sentido, está un poquito a la cola, por la limitación de la información. Porque para hacer una valoración del riesgo es necesaria información de calidad, porque él te lo va a negar todo. Si la plataforma EBA sale adelante, tiene sus parámetros de permitir un acceso real en tiempo real de las informaciones de las personas denunciadas, podríamos hacer una valoración urgente del riesgo en las guardias.

Conclusión

**7. ¿Cree que son eficaces las órdenes de protección? ¿Por qué? En la práctica, ¿cree que se está cumpliendo el objetivo de protección que tiene?**

No sé qué decirte. La violencia de género es un problema muy complejo en el que no hay soluciones mágicas. Pero, yo sí que creo, que la orden de protección puede ser una herramienta útil, porque, sobre todo, le da tranquilidad y confianza a la víctima. Muchas veces, esa confianza no es realista, porque por mucha orden de protección, si él quiere matarla lo va hacer, hay mujeres muertas teniendo orden de protección. Pero, sí que creo, que la orden de protección le da a la víctima, por un lado, un reconocimiento de su situación de víctima, y por otro lado, le da una cierta tranquilidad, porque sabe que puede

recurrir a la Ertzaintza fácilmente. Pero no es una vara mágica que soluciones todos los problemas.

## **6. ERANSKINA: Biktimaren elkarrizketa**

**Maite Ediguren Maruri**

**Bilbon, 2022ko maiatzaren 3a**

### Esperientzia pertsonala

#### **1. Zergatik eskatu zenuen babes-agindua?**

Bikote horrekin 20 urtez egon nintzen. Harremanaren lehenengo 4 urteak kenduta, momentu horretan nire bikotea zen gizonaren partetik indarkeria psikologikoa jasan nuen. Hau oraingo esperientziatik esan dezaket, lehen ez nintzen ohartzen.

Alaba bat daukagu, eta 2013an, honek 2 urte zituela, banandu egin nintzen. Harremana bukatu baino 7-8 urte aurretik, konturatu nintzen gauzak ez zihoazela ondo. Hala ere, berarekin jarraitu nuen. Banandu nintzenean, herriz aldatu nuen, eta umearekin Lekeitiora bizitzera joan nintzen. Nahiz eta banatuta egon, jarraitzen nuen berarekin bueltatzen. Horrela eman nituen beste 3 urte. Denbora guzti honetan, eskerrak babesaren izan dudala, babesarekin esan nahi dut, babes familiarra, lagunak... Hots, inguru oso babestua izan nuen. Azken urteetan, inguru honi hasi nintzen esaten mesedez ez uzteko berarekin bueltatzen. Baina, bueltatzen nintzen, eta gainera, inguruari gezurrak esaten hasi nintzen eta berarekin bueltatzen nintzen.

2018ko maiatzean, harremanaren gora-behera honetan, nire etxean sartu zitzaidan. Umearen bila zetorrela esanez agertu zen, normalean umearen bila ez agertu arren. Umea eraman nahi zuen. Asteko egun bat zen, umeak hurrengo egunean eskola zuen, eta beraz, ezetz esan nion. Hor tira-bira bat egon zen. Momentu horretan, ni ikaratuta sentitu nintzen; sekula ez nuen horrelako ikara sentitu. Une horretan, esan nion nire etxetik joaten zela, edo bestela, ertzainei deituko niela. Ertzainei deitu nien, eta etorri ziren. Nire etxetik indarrez atera zuten, ez zuelako irten nahi. Egun horretan, nire ahizpak salaketa jartzera lagundu zidan, baina, azkenean, ez nuen salaketarik jarri, ez nuen gertatutako kontatu. Momentu horretan, buruan neukan gauza bakarra zen joan aurretik esan zidana: *“tus amigos han tardado 17 minutos con 37 segundos en aparecer, si yo hubiese querido te hubiese matado a ti y a la niña”*.

2018ko uztailean, oportrotatik bueltan, umearen aldaketa zegoen. Portalean bertan, umea ikaratuta zegoela ikusi nuen, “aitatxu utzi ama baketan, ni zurekin noa, ez egin amari ezer” esaten zion. “Honaino heldu naiz” esan nion nire buruari, eta salaketa jartzea erabaki nuen eta babes-agindua eskatu nuen. Pentsatu nuen, egoera honi fin bat eman behar niola, ez negoziela ondo, eta egiten ez banuen, ni berarengana eramaten jarraituko zuela. Salaketan urteetan zehar gertatutako kontatu nuen. Laburbilduz, etxe azpian itxaroten zidan; 400 mezu edo deia egin ahal zizkidan egun bakarrean; nirekin harremanetan jartzea lortu ezean, nire bila etortzen zen.

#### **2. Zer espero zenuen babes-agindua eskatu zenuenean? Nola uste zenuen sistema judizialak babestuko zintuela?**



Nik momentu horretan, ez neukan inolako espektatibarik. Nahi nuen gauza bakarra zen ni bakean uztea. Arratsaldean jarri nuen salaketa eta babes-aginduaren eskaera, komisaldegitik goizeko ordu batetan atera nintzen, eta hurrengo egunean, goizeko 9tan, epaitegietara joan ginen. Ez neukan inolako espektatibarik izango zen prozesuaren gainean. Nire bizitzatik ateratzea, bakean uztea nahi nuen. Ni lokalizatu ezin izatea besterik ez nuen eskatzen. Nire etxe azpian orduak eta orduak ematea eta etengabeko komunikazioa amaitzea eskatzen nuen. Egoera bideraezina zen.

### **3. Epaitegian izandako entzunaldian, epaileak eta fiskalak egindako galderekin, bizitzen ari zinen arrisku-egoera azaltzeko aukera izan zenuen? Zer somatu zenuen faltan organo judizialekiko komunikazioan?**

Egia esaten badizut ez naiz oso ondo gogoratzen, ez dakit ezta zer esan nuen. Hala ere, esan ahal dizut, prozesuan zehar, momentu askotan, sentitu dudala erruduna ni izan naizela eta bera ez dela kuestionatua izan. Prozesu hori egunerakotasunean eramatea oso gogorra izan da, kuestionatua sentitu naiz. Sentimendu horretan, egindako galderek eragina izan zuten: “¿Por qué durante años volvías con él?”, “¿Por qué has hecho esto?”, “¿Por qué no le has protegido a la niña antes?”. Galdera horien erantzuna sinplea da, momentu horretan ez nuen ezer ikusten, maite nuen eta aldatuko zuela uste nuen; urteekin, orain ikusten dut, baina lehen ez, engainatuta nengoen. Epaitua sentitu naiz, aldiz, nire ustez, bera ez zen kuestionatu. Nik salaketa jarri nuenez, nik justifikatu behar nuen momentu oro, nire berbak, aurkeztutako frogak eta abar. Gauza asko somatu nituen faltan, baina ez soilik organo judizialen partetik, gizartean ere bai. Gai hau tabu bat izaten jarraitzen du. Oso zaila da kalera irtetea eta esatea erasotua izan naizela. Momentu oro epaitua zara.

### **4. Zure kasuan, epaileak forentseak zu ikusteko eskatu zuen? Arriskuaren balorazio forentsea eskatu zuen?**

Epaileak ez zuen eskatu, nire abokatuak eskatu zuen. Forentseak bai ni bai nire alaba ikusi gintuen, informe bat egin zuen. Hala ere, informearen arabera, izandako sekuelak, indarkeriaz gain, bestelako bizipenen ondorio zirela; hots, informeak ez zuen konfirmatu nik nituen sekuelak indarkeria horrenak zirela. Baina, forentsea babes-agindua eman ostean ikusi nuen, hau da, babes-agindua erabakitzeko momentuan ez nuen forentsea ikusi. Ez, epaileak ez zuen arriskuaren balorazio forentserik eskatu.

### **5. Zein eduki izan zuen lortu zenuen babes-aginduak?**

Alde batetik, babes-aginduak 25 metrotara hurbiltzeko debekua jaso zuen. Hain metro gutxi jartzeko arrazoiak izan ziren, batetik, bera Lekeition bizi ez zelako, eta bestetik, herrira hurbiltzeko nahia ez zuela adierazi zuelako. Horrekin batera, komunikatzeko debekua ere ezarri zuten. Epaileak ezarri zuen umeak mugikor bat izango zuela berarekin komunikatzeko nirekin zegoenean, eta alderantziz. Baina, mugikor horrekin ezin zen nirekin kontaktuan jarri inola ere ez. Beste alde batetik, ez zen neurri zibilik ezarri. Umearen zaintzari dagokionez, momentura arte izandako antolaketa mantendu zen. Batzeko eta ekartzeko, nire aita arduratzen zen. Azkenik, asistentzia neurriak jaso nituen. ZUTITU-n, terapian psikologo batekin egon nintzen; hasieran,

astero joaten nintzen eta ostean, hamabostean behin eta hilabetean behin. Bi urte egon nintzen han. Lehenengo urtean, bajaran egon nintzen.

## **6. Babes-agindua bete zuen?**

Ez, ez zituen babes-aginduak jasotzen zituen debekuak bete. Urtarrilean Lekeitiora etorri zen bizitzera eta albotik pasatzen zen etengabe. Ni taberna batean banangoen, bera sartzen zen. Behin, bazkari bat nuen kuadrillakoekin, jesarrita egon, eta handik lagun osoa alde egin behar izan, bera tabernan sartu zelako. Azkenean, demonstratu genuen Lekeitio bizi zela, eta 250 metroko hurbiltzeko debekura aldatu zuten. Baina, nire etxe aurretik pasatzen jarraitu zuen, kaletik topatzen baginen, ez zen espaloiaz ere aldatzen.

Bestetik, ertzain bat zegoen nire kasuaren arduradun; deiak egiten zituen nire egoeraz jakiteko. Nik ez nuen suerterik izan, ez nuen feeling-a izan berarekin. Ertzain honek esan zidan, ni nagoen plaza berdinean egon zitekeela, ez egoteko bera bilatzen eta bere atzetik, eta bera dagoela ikustekotan, handik joateko. Takto berezia eta enpatia falta nabaria zen. Momentu horretan konturatu nintzen hori ez zela babesa, ni ez nintzela inondik joan behar bera han zegoelako.

## **7. Prozesua nola amaitu zen?**

3 urte beranduago prozesua amaitu zen, epaia heldu zenean. Honetan, gizon hau kondenatu zuten, genero-indarkeria eremuko derrigortze arinen delitu jarraitu batengatik zigortu zuten. Epaia irten zenean, babes-agindua kendu zuten, eta epaian bertan, 6 hilabetez hurbiltzeko eta komunikatzeko debekua, gizarterako lanekin batera, zigor gisa ezarri zen; horrekin batera, erantzukizun zibila ordaintzera zigortu zuten. Baina, ohiko tratu txar psikiko eta mehatxu arinen delituengatik absolbitu zuten. Berez, epaitegian aurkeztu genituen Whatsapp-eko mezuetan zegoena soilik kondenatu zuten, gainerakoa ez. Indarkeria psikologikoa ez da existitzen.

Momentu horretan pozik nengoen, behintzat nonon arrazoia eman zidatelako. Nire abokatuak esan zidan pozik egon ahal ginela, oso gutxitan lortzen zelako. Baina denbora pasata, irakurtzen dut, eta pentsatzen dut “honek pena merezi du?”.

## **8. Prozesu guztiaren ostean, babes-aginduak benetan babestu zaituela uste duzu? Zergatik?**

Babes-aginduak ez nau momentu oro babestu. Berak nahi zuena egiten zuen, inolako ondoriorik gabe. Horregatik esaten dizut, babestu ez nauela babestu. Gainera, berak ondiño ez du ulertzen zeozer txarto egin duela. Epaketan, mehatxuak egin ez zituela esan zuen, abisuak zirela adieraziz. Herrian, umeak kentzeko salatu zuela hedatu du eta jendeak bera sinesten du. Nik ez nuen umea sartu prozesu honetan, baina orain, damutzen naiz. Hortaz, ez, babes-aginduak ez nau babestu.

### *Sistema judizialaren errealitatea*

*2021ean, salaketa jarri zuten genero-indarkeriaren ondorioz hildako emakumeetatik % 25ek babes-agindua eskatu zuen, eta ukatu egin zitzaion. Urte berean,*

*37.270 babes-agindu eta bestelako babes neurri abiarazi ziren Emakumearen aurkako Indarkeriaren Epaitegietan; 10.883 ukatu egin ziren.*

**9. Zergatik uste duzu ukatzen direla hainbeste babes-agindu?**

Ez dagoelako kontzientziatorik. Kasu horiek daramaten epaile gehienak gizonezkoak dira, eta genero-indarkeria benetan zer den ez dakite; beren etxean (alabari, arrebari...) gertatzekotan, egoera ezagutuko lukete. Gizartean ez dago kontzientziatorik ezta egoera ulertzeko gogorik ere.

**10. Zure ustez, zer hartu beharko luke kontuan epaileak babes-agindu bat ukatzerako edo onartzerako orduan?**

Pertsonak berak, laguntza eskatzen duenean, bere istorioa kontatzen duenean, momentuan bertan, jarri beharko litzateke babes-agindua. Aurrean dagoen pertsona kontuan izan behar da, egia esaten duen ala ez dudan jarri barik. Jarri babes-agindu bat eta gero denbora dago kuestionatzeko. Babesaz ari gara, nire ikuspegitik, babesa horretarako dago, laguntza eske dagoen pertsonentzako. Nire ustez, babesa eskatzen duen pertsonari, momentuan eman behar zaio, eta gero, froga guztiak batzen direnean, ikusiko duzu, hilabete bateko ala 10 urteko babesa beharko duen.

**11. Zure ustez, biktimek indarkeria ez fisikoa pairatzen dutenean, organo judizialek babes-agindua onartzea zailagoa izaten da?**

Nik uste dut baietz. Zoritxarrez, indarkeria ez fisikoa ez da ikusten, ez ditu arraztorik usten. Nik pertsonalki ez dut lesio fisiko bat izan. Orduan, oso zaila izan zen demostratzea indarkeria egon zela. Nire kasuan, hor salbatu ninduen urte askotako mezuak idatzita zeudela. Markarik ez dagoenean, ez du inork ikusi nola jipoitu nauen, oso zaila da prozesuarekin aurrera egitea. Fisikoa ikusten da eta ezin denean indarkeria ikusi, zaila da gainerakoek sinestea eta demostratzea gertatu dela.

**12. Zure ustez, organo judizialek (epaileak, fiskalak) genero-indarkeriari buruzko formakuntza falta dute, adibidez, biktimekiko tratuari dagokionez, egindako galderei dagokionez...?**

Bai, noski. Baina, gizartean, guztiok daukagu formakuntza falta, ni barne. Txikitatik kontzientziatu behar da. Ni irakaslea naiz, eta ikusten dut kontzientziazio lan egiten dela, baina azaroak 25rako eta martxoak 8rako; egunero egunero ikasten joan behar da. Epaketan, ni ez nintzen pertsona, lagunas beteta daukat egun hori. Ezin dizut esan epaile edo fiskal horrek justu formakuntza falta zuela. Baina nik sentitutakoaren eta prozesuaren jarraipena kontuan izanda, kontzientziazio falta dagoela esan dezaket.

Ondorioa

**13. Babes-aginduak eraginkorrak direla uste duzu? Zergatik?  
Praktikan, biktimek babesteko helburua betetzen ari da?**

Babes-agindua genero-indarkeria: gaur egungo sistema judizialak biktimak babesten ditu?

Ez, ez dut eraginkorrak direnik esango. Babes-aginduak dituzten emakumeak erailak dira, ez dago ezer gehiago ikusi beharrik. Babesaren erantzukizun guztia emakumean dago zentratuta, gu gara polizia, epailea eta guztia.